



ALBOAN

ELLACURIA
FUNDAZIOA
GEZARTE GOMIA
CENTRO SOCIAL

Nahi dugun garapena EAEn dauden etorkinen elkarteetatik jasotako ikuskerak



ikerbasque

Basque Foundation for Science



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Nahi dugun garapena
EAEn dauden etorkinen elkarteetatik
jasotako ikuskerak



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda kalea, 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

Estenaga Apezpikua, 1 • 01002 Gasteiz
Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676
alboanar@alboan.org

www.alboan.org

IGNACIO ELLACURIA GIZARTE CUNEA

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbao
Tel.: 944 465 992 • Faxa: 946 070 951
info@centroellacuria.org

www.centroellacuria.org

Proiektuaren koordinatzailea: Mary Tere Guzmán. ALBOAN

Ikerketa-taldea: Saioa Bilbao Urkidi, Celsa Hierro Esnarriaga eta Andrea Ruiz Balzola.

Data: 2011.eko Apirila

Itzulpena: Elhuyar

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: Bi-1144/2011

Lan honen erreproduzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.



Aurkibidea

Sarrera	5
1. Metodologia, pausoz pauso.	9
Giza garapena, gogoetarako ikuspegia	
1.1. Garapenaren ideia	11
1.2. Protagonistak: migratzaileen elkarteak aukeratzeko irizpideak	15
1.3. Metodologia pausoz pauso	17
1.4. Parte hartu duten elkarten karakterizazioa	20
2. Migrazioa eta garapena. Kontzeptuak, erronkak eta ikuspuntuak	27
2.1. Gaur egungo migrazioak: erronkak eta ikuspuntuak	29
2.2. Migrazioa eta garapena	35
2.2.1. Migrazioa garapenean	35
2.2.2. Diru-bidalketak eta immigrazio-mugimenduak, garapenerako aukera?	40
2.2.3. Baterako garapena, migrazioa eta garapenaren arteko lotura berria?	43
3. Helmuga-puntuak. Elkarrizketatik eta hausnarketa amankomunetik lortutako emaitzak	47
3.1. Zer hartzen dugu garapentzat?	49
3.2. Garapenaren definizioak	59
3.3. Horretatik, zer ulertzen dugu giza garapen gisa? Zer hobetu du, eta zer oztopatu du migrazioak?	64
3.4. Zer nahi dugu gure jatorrizko herrialdearen garapenerako, eta zer ekarpen egin dezakegu?	74
3.5. Zer nahi dugu gure harrera-komunitatearen garapenerako, eta zer ekarpen egin dezakegu?	78
Ondorioak	79
Bibliografia	87



Sarrera

Gaur egungo egoeran, atrebentzia izan daiteke migrazio- eta/edo garapen-mugimenduez hitz egitea. Gizartearen ikuspuntutik, egokia al da migrazio-prozesuak aztertzea haien kontrolaz eta kudeaketa egokiaz harantz doan ikuspegitik? Hala gure herrialdean nola mundu mailan pairatzen ari garen krisi-egoera honetan, badago lekurik giza garapenari buruz hitz egiteko? Galdera horiez gain, proposamen ausartagoa egiten dugu; izan ere, migrazio-prozesuekin eta, zehazki, gurekin lotura duten pertsona migratzaileekin -izena eta aurpegia dituztenak- lotutako giza garapenari buruz hitz egin nahi dugu.

Jakin badakigu gaia konplexua dela; horregatik, zuhurtasunez eta zehaztasunez heldu nahi diegu migrazioari eta giza garapenari, eta, batez ere, migrazioaren eta garapenerako lankidetzaren arloetan dugun esperientzia instituzionalean oinarrituz. Gure lanaren muinean eta aukera instituzionaletan oinarritzen da gure hurbilketa; hots, pertsonetan, pertsonen duintasunean eta pertsonen garapenean.

Ikerketa honen hasierako planteamenduan bertan ezarri zen helburua migratzaile-taldeak garapen-prozesuetako ezinbesteko eragile gisa indartzea zela. Proiektu hau sortu zenean, gero eta interes handiagoa sortzen ari zen migrazioaren eta garapenaren arteko loturari buruzko azterketen inguruan, eta esparru akademikoak gainditzen ari zen eta gobernu-erakundeetan eta gizarte-erakundeetan sendotzen hasia zen.

Jakina den moduan, migrazioaren eta garapenaren arteko loturaren inguruan, azken urteotan indar handiz sartu da baterako garapenaren kontzeptua eztabaida akademikoetan, migratzaile-elkarteen eta GKEen diskurtsoetan, Europako Batauneko agenda politikoetan, estatu-nazioetan eta, Espainiaren kasuan, gobernu autonomikoen agenda politikoetan. Alabaina, hainbat egilek azpimarratu duteenez, kontzeptua zertxobait anbigua da eta esanahi bat baino gehiago adierazteko erabiltzen da; garatzen ari den terminoa da, eta horrek, batzuetan, pentsarazten du ez ote gauden beste moda igarokor baten aurrean. Oro har, baterako garapena erabiltzen da harrera-herrialdeek zuzendutako eta diruz lagundutako

proiektuak edo programak zehazteko, migratzaileen jatorri-eskualdeen tokiko garapena bultzatzeko helburua dutenak, eskualde horien garapenean migranteen elkarteetan partaidetza sustatuz.

Zalantzarik gabe, *baterako garapena* eratzen ari den terminoa da, polisemikoa, eta haren arabera garatzen dira erakundeetan askotariko jardunbideak eta esperientziak. Planteamenduei dagokionez, asmo eta etorkizun handikoa bada ere, praktikan jarduera mugatua du. Hala ere, badago elementu nagusi bat, baterako garapenaren ahalmenak erakusten eta horiek aurrera eramaten laguntzen duena, eta egile guztiek ezinbestekotzat jotzen dutena (Gómez Gil 2005; Giménez *et. al.* 2006; Abad 2004; Atienza 2004): pertsona migratzaileen protagonismoa eta parte-hartze aktiboa. Hortaz, lehenik eta behin pentsa genezake proposamen hau dela migrazioak eta garapenerako lankidetzaren argi eta garbi lotzen dituen lehenengoa, eta garapenerako lankidetzaren politiken “eragile nagusiak” pertsonak direla esaten duena.

Hori jakinda, agian, zentzuzkoa izango litzateke baterako garapenerako ekimenak bultzatzeko aliantzak sortzea, adibidez lankidetzaren arloko erakundeetan -ALBOAN kasu- eta migratzaile-taldeak indartzeko erakundeetan -Ellacuría kasu- artean. Baina gure erakundeek urrun dute pauso hori oraindik; izan ere, horra iristeko, aurrez, hainbat fase igaro behar dira, adibidez, zehaztu behar da nola ulertzen dugun garapena eta nola lotzen dugun hori migrazioarekin, nola laguntzen diegun talde horiei edo nola nahi duten talde horiek laguntzea eta sustatzea. Horregatik, uste dugu garrantzitsua dela migrazioak eta garapenak osatzen duten binomioaren errealitatea ulertzen, protagonista nagusiei entzuten eta haiek ulertzen ahalegintzea. Lagundu, ulertu eta pentsamendua landu nahi dugu, zentzurik gabeko ekimenak aurrera eramane baino lehen. Garrantzitsua da argitzea migratzaileei entzuteko ideia sortu zela gure lanerako oinarritzakoa den kontzeptu baten -GARAPENAREN- inguruan sortutako galderak eta suposizioak egitean.

Gure ustez, garapenerako lankidetzaren arloko politikak eta programak diseinatzean jotzen da migratzaileak “garapen-eragile” direla. Azken urteotan indartu egin da migrazioak garapenerako alderdi garrantzitsua direla baieztatzen duen ideia; batez ere, uste baita diru-bidalketak oso onuragarriak direla jatorrizko herrialdeen ekonomiaerentzako. Hala ere, ekonomismoaren aldeko neurritz kanpoko ikuspegi horrek, ziur aski migrazioari eta garapenari buruzko ikerketetan gehien aztertu denak, lehenik eta behin, kezka batzuk sortu zizkigun proiektua formulatu baino lehen. Gure asmoa da migrazioaren eta garapenaren arteko ikuspuntu ekonomizista hutsa hedatzea eta konplexuago bihurtzea, eta alor hori giza garapenari eta higikortasunari buruzko eztabaidak zabaltzeko aukera gisa hartzen duten korranteetara hurbiltzea, aintzat hartuz migrazioek jatorri- eta helmuga-herrialdeen garapenean eragiten dituzten askotariko loturak eta efektuak.

Proiektu honek planteatu zigun bigarren hausnarketa izan zen jakitea ea migratzaile bat jatorrizko herrialdean “garapenerako eragile” izan zitekeen, baldin eta harrera-herrialdean duintasunez bizitzeko gutxieneko baldintzak ez baditu; edo, besterik gabe, migratzaileek helmuga-herrialdean zer eginkizun duten hausnartzeko eta aintzatesteko gai izan ez garenean, migratzaileek bizi diren gizarte berriari zer ekarpen egiten dizkioten jakitea. Ezinezkoa da jatorrizko herrialdera begiratzea orainaldian pentsatu gabe. Migratzailea ez du jatorrizko komunitateak soilik baldintzatzen; migratzaileak badu bere oraina, harrera-gizartean erronka eta bizi-baldintza berriak planteatzen dizkiona.

Gure ustez, gainera, migrazioaren eta garapenaren arteko artikulazioaren muina ez dago soilik migratzaileen banakako eginkizunen mende, eta hori izan zen, hain zuzen ere, azterketa hau egitera bultzatu gintuen beste elementu bat. Gizabana-koaren dimentsioa ezinbestekoa da, noski, baina beste hainbeste da talde-dimentsioa. Talde-ikuspegi horren adierazgarri dira azken urteotan sortzen ari diren migratzaileen elkarteak. Azterketa honen helburua da garapenaren inguruko diskurtsoei eta ideiei pertsonen ikuspegitik heldzea; orobat, pertsona-taldeen ikuspegitik, elkarteen ikuspegitik, eta elkarteek egiten dituzten jardueren -batzuetan, migrazioa bideratzeko egiten dituzten jardueren- ikuspegitik.

Baina migratzaileak eta migratzaile-taldeak garapenerako eragile izan daitezkeen eztabaidatu aurretik, azterketa honek mahaigaineratu nahi du beharrezkoa dela haiei entzutea eta galdetzea: zer garapen-motari buruz ari gara? Nola ulertzen dute garapena eta nola eramaten dituzte aurrera ideia horri lotutako ekintzak? Eta migratzeak edo jatorri-herrialdea uztea erabaki izanak zer alderdi indartu edo oztopatu ditu? Azterketa honen helburua da atzerritarrez osatutako elkarteek gogo-eta kolektiboa egiteko gunea izatea; haien kezkak eta lehentasunak argitzea, eta gaur egungo egoeran oinarrituta jatorri- eta harrera-gizarteei zer ekarpen egiteko prest dauden argitzea.

Hori dela eta, ikerketa kualitatibo baten bidez aditzera eman nahi ditugu garapenaren kontzeptuari buruz prozesu horretan protagonista nagusi diren migratzaileek dituzten pertzepzioak eta irudiak. Hala, lotura hori lantzeko modu bat eskaintzeaz gain, azterketa honek garapenerako programak eta politikak sortzeko hainbat irizpide emango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) migratzaileei eta migratzaile-taldeei zuzenduta daudenak. Lana lau zatitan banatzen da, non azterketa honetan izan den parte-hartzea azalduko dugun eta lanetik ateratako emaitzak eta ondorioak aurkeztuko ditugun.

1. kapituluak labur deskribatzen du zer ikuspuntutik egin dugun azterketa, eta go-goeta kolektiboa egiteko, zer metodologia erabili dugun, pausoz pauso. Halaber,

kapitulu horretan, azterketaren protagonisten ezaugarrien aurkezpena egingo da: EAEko atzerritarren taldeena eta elkarteena.

2. kapituluan ikerketa hau bideratu duten kontzeptuak aipatuko dira. Egungo biztanleria-mugimenduen ezaugarrien berri emango da, eta aurkeztuko dira gurea bezalako mendebaldeko gizarteetan biztanleria-mugimendu horiek eragiten dituzten erronkak. Ondoren, migrazioen eta garapenaren arteko artikulazioa aztertuko dugu, gero eta indar handiagoa hartzen ari dena. Amaitzeko, garapenaren kontzeptu nagusiak aipatuko dira, zehazki, giza garapenarenak, parte-hartzearen ikuspegia eta interpretazioa baldintzatzen dituelako.

3. kapituluan landuko dira lan honetan azertu dugun migratzaileen elkarteen jarduera parte-hartzaitetik atera ditugun emaitzak. Talde horiekin eta EAEko lankidetzatarloko beste eragile batzuekin eztabaidatu eta informazioa trukatu ondoren egin diren gogoetak eta interpretazio batzuk sistematizatu eta ordenatuko dira.

Bukatzeko, prozesu honek eragindako ondorioak eta gomendioak aurkeztuko ditugu. Dokumentu hau erabil dezakete garapen- eta migrazio-arloak landu nahi dituzten erakundeek, eta bi kontzeptu horien arteko lotura zein den eta bertan parte hartzen duten pertsonen zer garapen lortu nahi duten jakin nahi duten erakundeek.

Benetan eskertzen dugu jarduera parte-hartzaile honetan sartzea erabaki duten erakundeen gogoak, konfiantza eta pazientzia. Eta eskerrak eman nahi dizkiegu parte-hartzaile guztiei, azterketa hau aurrera eramateko denbora, gaitasunak eta ideiak eskaintzeagatik.

1. Metodologia, pausoz pauso

Giza garapena,
gogoetarako ikuspegia



1.1. Garapenaren ideia

Baldin eta ikerketa honen asmoa bada migratzaileek eta elkarrekin garapenaren ideiarekin inguruan dituzten diskurtsoetan eta ikuspegietan parte hartzea, beharrezkoa da garapena definitzea eta proposatzen dugun gogoeta eta eztabaidaren abiapuntua zehaztea.

Azkenaldian, garapenari buruzko hainbat paradigma sortu dira, ekonomiaren, politikaren eta gizartearen arloetako herrialdeen politikak eta programak bideratu dituztenak. Garapenaren ideia gizakien beharrak asetzearekin eta/edo pertsonen izan dezakegun bizi-kalitatearekin lotu ohi da. Baina, ideia simple horren ordez, garapenaren teoria ekonomikoak eboluzio luzea izan du, eta eztabaida handia sortu du, horrek planteatu izan dituen ikuspegiaren eraginez.

2. kapituluaren garapen kontzeptuaren bilakaerari helduko diogu laburki; hala ere, beharrezkotzat jotzen dugu hasieratik bertatik irakurleari azaltzea zein izan den erabili dugun giza garapenaren kontzeptua. Batez ere, kontzeptu zehatz batek bideratu dituelako azterketa honetan erabili den metodologiaren eraketa eta diseinua. Egokia iruditzen zaigu aurrez azaltzea gogoetaren atzean zer kontzeptu dauden eta jardura hau zer ideiak bultzatu duten.

Oinarritzat hartu dugun kontzeptua **Giza Garapena** izan da, nagusiki Amartya Sen-ek sortu duena. Ikuspegi horren arabera, garapena da pertsona orok askatasunez aukeratu duen bizitza bete izateko aukerak eta gaitasunak hedatzeko prozesua. Ikuspegi horrek dioenez, gizarte batean garapena egongo da baldin eta bertan bizi diren pertsona guztiek beren oinarritzko beharrak asetzen badituzte (elikadura, osasuna, hezkuntza, etab.), erabakitze ahalmena badute eta haien oinarritzko giza eskubideak errespetatzen badira (eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak).

NBGPK¹ 2009an egindako Giza Garapenari buruzko Txostenaren arabera, ulertu behar dugu *garapena* prozesu bat dela, pertsona orok askatasunez aukeratutako

¹ Nazio Batuen Garapenerako Programa, Giza Garapenari buruzko Txostena 2009, 8. or.

bizitza aurrera eramatea ahalbidetzen duena eta **giza mugikortasuna** askatasun horren ezinbesteko osagaia dela onartzen duena. Hau da, jatorrizko definizioari egungo testuinguruaren zati den funtsezko elementu bat eransten dio: “giza mugikortasuna”. Eta onartzen du alde batera uzten badira hala mugikortasunaren eskubidea nola horrek giza garapenarekin duen lotura, ezinezkoa dela ulertzea egungo munduak proposatzen dizkigun mekanismoak eta erronkak.

Gaitasunen teoriak dio gure bizimodua aukeratzea ahalbidetzen diguten oinarrizko askatasun gisa hartu behar ditugula gaitasunak, eta askatasun horiek islatzen direla pertsona batek egin eta baloratu ditzakeen gauzetan eta bere izaeran. Horiek horrela, bizitzaren dimentsio existentzialen eta materialen arteko harreman estua dago.

Eta azterketa honetan parte hartu duten migratzaileekin egindako elkarrizketa-eta gogoeta-jardueran, hori izan da *giza garapena* aztertzeke hartu dugun abiapuntua. Horretarako, abiapuntua zehazten lagundu diguten bi egiletan oinarritu gara, eta metodologia eraikitzeke haiek erabiltzen dituzten elementuak baliatu ditugu.

Paradigma honen adierazgarri nagusietako bat Martha Nussbaum da; Senen teorian sakondu du eta, besteak beste, oinarrizko giza gaitasunei buruzko hainbat kategoria gehitu ditu. Hau da, unibertsalak diren kategoriak, eta pertsona orok, pertsona izateagatik bakarrik, kategoria horiez baliatzeko eskubidea duena. Pertsonak xede gisa ikusten ditu, eta ez baliabide gisa; eta emakumeek garapenean duten funtzioa eta egoera argitara ematen du.

“Oinarrizko hamar giza gaitasunen” zerrenda, helburu politikoetarako eta pentsamolde konstituzionalaren oinarri gisa, erabiltzearen aldekoa da Nussbaum. Gaitasun bakoitzaren definizioa zehazten duen arren, haren ustez, pertsona bakoitzaren edo gizartearen testuinguru historiko-kulturalen mende egon daitezke gaitasun horien zehaztapenak. Gaitasun horiek sustatzeko, erakundeek babesa eta laguntza materiala behar dira, eta, halaber, gaitasunak garatzeko, aurrebaldintza materialak eta sozialak. Inolako zalantzarik gabe, gaitasun horiek indartzeko ezinbestekoa da gobernu-ekintza.

Oinarri hartuta munduko pertsona orok duela gutxieneko bizitza duina izateko eskubidea dioen baieztapena, Nussbaumek hortik abiatuta lan egitera bultzatzen gaitu, hausnar dezagun nola parteka ditzaketen nazioek, nazioarteko erakunde eta hitzarmenek, multinazionalak, gobernu kanpoko erakundeek eta pertsonak eskubide horiek bermatzera bideratutako betebeharrak. Hortaz,

erronka nagusia da beste mundu baten alde egitea, non pertsona guztiek hezkuntza, osasuna, osotasun fisikoa, partaidetza politikoa, aukeratze-eskubidea eta arrazoimen praktikoa izateko aukera duten. Gizakiak zuzentasunez tratatzen dituen eta ingurumena babesten duen mundua eraikitzeko erronka barneratu behar da aldi berean.

1. taula: Gaitasunak Martha Nussbaumen arabera	
Bizitza	Pertsona orok izatea ohiko iraupeneko bizitza izateko eskubidea.
Osasuna	Osasun-, elikadura- eta etxebizitza-baldintza egokiak izatea.
Osotasun fisikoa	Mugikortasun- eta segurtasun-askatasuna izatea.
Zentzumenak, irudimena eta pentsamoldea	Gaitasun horiek garatzea ahalbidetuko duen hezkuntza jasotzea, eta gustuak eta sinesmenak askatasunez adierazteko giroan bizitzea.
Emozioak	Maitatzeko eta esker onekoa izateko gai izatea, gizabanakoen elkartzeko modu guztietan.
Arrazoimen praktikoa	Ongiaren kontzeptua eta bizitza-plan bat sortzeko gai izatea.
Afiliazioa	Beste batzuekin bizitzeko, giza harremanak izateko, errespetuz tratatua izateko eta baztertua ez izateko gaitasuna.
Beste espezieak	Animaliak, landareak eta naturako gainerako espezieak errespetatzeko gai izatea.
Jolasa	Jolasteko eta barre egiteko gai izatea.
Ingurunearen kontrola	Partaidetza politikorako aukerak, jabetza-eskubideak eta lanerako eskubidea izatea.

Iturria: geuk egina, Martha Nussbaumen “Human Rights and Human Capabilities” (2007) artikuluan oinarrituta.

Gaitasun hauek “oinarrizkoak” edo unibertsalak diren arren, ez dugu ahaztu behar guztiek dutela dimentsio ideologikoen, erlijiosoen, ekonomikoen eta geopolitiko- en eragina, eta dimentsio horiek “garapenaren” kontzeptua osatzen laguntzen dutela, hau da, kontzeptuaren zehaztasun historikoa, geografikoa eta denboraz- koa -eta horrek eztabaidagarriagoa bihurtzen du kontzeptua-.

Azterketa honetan erreferentzia gisa hartu dugun bigarren egilea Manfred Max Neef izan da eta, zehazki, obra hau: “Desarrollo a escala humana” (1994). 90eko hamarkadako proposamena den arren, eta “beharrei” buruz hitz egiten badu ere, onartu beharra dago Max Neefek pertsonak hartzen dituela garapenaren protagonista gisa: “garapena pertsoneri dagokie, ez objektuei”². Egile horren arabera, ekonomia eta ondasun materialen inguruko garapenaren parametroak gizakien gai- netik nagusitu dira, eta baliabide huts bilakatu dira mendebaldeko herrialdeek bultzatutako garapenean. Horregatik, ikuspuntu ekonomizista duen garapenaren ikuspegi mugatuaz eta kontzeptuaz haraindi joan behar dugu, eta pertsonak bere osotasunean ikustea oztopatzen diguten mugak gainditu behar ditugu.

Max Neefek dioenez, garapen egokiena izango da pertsonen bizi-kalitatea hobez- tea ahalbidetzen duen hori. Zer ulertzen dugu bizi-kalitate gisa? Gizakien oina- rrizko premiak modu egokian asetzea -erantzuten du egileak -. Ikuspegi hori erai- kitzeko, gizakien premiak eta faktore asetzailen arteko bereizketan oinarritutako metodologia behar da. Arrazoibidea hau da: premiak amaikorrek dira, eta zehaztu egin daitezke. Gogoeta egiterakoan, kategoria existentzialen arabera (izan, eduki, egin eta egon) konbinatu behar ditugu oinarrizko giza beharrak. Egile honek dioe- nez, garapenaren arrazionaltasun ekonomikoa gainditzeko, beharrezkoa da giza beharren gogobetetze-maila aintzat hartzea, gizakiaren alderdi guztietan eragina baitu. Behar horiek islatzen dute “gabezia eta ahalmena” lehian ari direla etenga- be. Zehaztutako beharrak bakoitzaren arabekoak dira, baina baita gizartearen arabekoak ere. Max Neefek proposatutako beharren eta faktore asetzailen ma- trizeari esker, migratzaile-taldeek beren gizartearen errealitatea eta beren espe- rientziak erabil ditzakete garapenaren ideia osatzeko.

Laburbilduz, garapenari buruzko ideia hau bat dator giza garapenaren ikuspegia- rekin. Max Neefek egindako ekarpen garrantzitsuena da berak proposatzen duen kontzeptuaren eta praktikaren eraikuntza talde-ikuspegiarekin lotuta dagoela. Gaitasunen ikuspegiari egindako kritiketako bat da pertsonarengan jartzen duela ikuspuntua, baina alde batera uzten dituela talde-izaera eta gizabanakoaren gara- pena eta garapen soziala bermatzeko harekin izan beharreko harremanak. Horre- gatik, egile honek proposatutako metodologiak laguntzen du banakako ikuspe-

² Max Neef M.: 1994, Desarrollo a escala humana, Uruguay, 40. or.

gian ez ezik talde-ikuspegian ere arreta jartzen. Gogoetarako eta etorkizunerako aukerak eraikitzeke proposamen hori komunitateentzat pentsatuta dago, testuinguru eta orainaldi komunak dituzten eta, alderdi komun horiek kontuan hartuz, garapena zer den eta bide horretan aurrerapausoak nola eman zehazten dituzten pertsona-taldeentzat.

Max Neefek bere “Desarrollo a escala humana” obran sistematizatutako ariketari esker, kategoria batzuk definitzeko argibideak lortzen ditugu (kasu honetan, giza beharrak), izan, eduki eta egin kategoria existentzialekin elkartzen direnak. Horregatik, talde-gogoetarako ariketaren planteamendua egiteko baliagarria izan zaigu Max Neefen metodologia; horri esker osatu baikenuen giza garapenaren ikuspegia eta bideratu baikenituen azterketa honetan parte hartu duten elkarteen arteko eztabaida.

1.2. Protagonistak: Migratzaileen elkarteak aukeratzeko irizpideak

Hasiera batean, azterketa honen asmoa izan zen gogoeta egitea atzeritarrez osatutako EAEko elkarte askoren partaidetzarekin. Lehenik eta behin, hainbat jatorritako autonomia-erkidegoko elkarteekin harremanetan jartzea zen gure asmoa.

Azterketa eta analisisirako elementu gisa migratzaileen elkarteak aukeratu ziren. Badakigu elkarte horiek gero eta indar handiagoa dutela gizarte-elkarrizketan. Ikusten ari gara hainbat helburuetarako elkarteak sortzen ari direla, eta gero eta kide gehiago dituztela. Oro har, herritartasun bereko pertsonen osatutako elkarteak dira, baina badira ere hainbat jatorritako migratzailek osatutako elkarteak.

Ignacio Ellacuría Fundazioaren esperientzian oinarrituta, uste dugu talde horiek (baita gizabanakoek ere) garapenaren inguruko berezko pertzepzioak, diskurtsoak eta irudiak dituztela. Pertsona horiek migratzeko erabakia hartu zuten, neurri handi batean, bizi-baldintzak hobetzeko edo garatzeko aukerak izateko, jatorrizko herrialdeetan ukatu egiten baitzitzaizkien.

Migrazioa eta garapenaren arteko lotura konplexuak aztertzean, ez genion kopuruan oinarritutako estrategiari jarraitu, baizik eta esanahian sakontzeari eman zitzaion lehentasuna. Horregatik, erabaki genuen gogoetarako gune horietan elkarte askok parte ez hartzea, eta bost elkarte aukeratu genituen, komunitateko talde garrantzitsuen ordezkari zirenak eta hainbat jatorritako kideak zituztenak (herrialde eta kontinente ugaritakoak). Garapenaren inguruko gogoeta horretan, beharrezkoa iruditu zitzaigun bi alderdi bereiztea: jatorri-herrialdea, batetik, eta harrera-herrialdea, bestetik, garapena ezin baita modu abstraktuan sortu, baizik eta baldintza eta testuinguru jakin batzuen inguruko gogoetatik abiatu beharra

dago. Horregatik, egokitzen jo genuen herrialde beretik, baina eskualde desberdinetatik, zetozen -hots, jatorri, kultur jardunbide eta identitate-ezaugarri antzekoak zituzten - pertsonetara mugatzea gogoeta. Elkarte bereko kide zirenez (oro har, jatorri-herrialde bereko, edo herrialde bakoitzeko eskualde edo eremu bereko pertsonen osatutako elkarteak gehienak), gogoetak zehaztu zitzaizkiren eta ekimen komunak sortzea eragiten dieten elementuak bereiz zitzaizkiren.


Azkenik, partaidetzarako irizpide garrantzitsu bat izan zen elkarte horiek prest zeudela talde-ariketa honetan beren denbora eta baliabideak inbertitzeko. Bidea ez zen laburra eta proiektuaren epeak eta erritmoak konpromisoa eta iraunkortasuna eskatzen zuten; gainera, gune horiek antolatzekeo beharrezkoa zen elkarteko hainbat kidek parte hartzea, eta horrek denbora gehiago eta koordinazio-ahalegin handiagoa eskatu zigun.

Hala, azkenean bost elkarten parte hartu zuten prozesuan eta seigarren batek elkarriketen lehen fasean parte hartu zuen. Hauek dira elkarte protagonistak:

- *AVACO* Garapenari, kulturari eta adiskidetasunari laguntzeko euskal-angolar elkarte.
- *TERRANGA* Bizkaiko senegaldarren elkarte.
- *ONDA EUSKADI* Kultur Elkarte.
- *ASOCOLVAS* Euskal Herriko kolonbiarren elkarte.
- *MALEN ETXEA* Emakume migratzaileen elkarte.

Parte hartu zuten elkartei lan-gida bat eman zitzaizen, non pertsona horien eta parte hartzea zegokien gainerako pertsonen partaidetza zehazten zen. Elkarte horiekin batera, ALBOAN eta Ellacuría fundazioek lotura honen (migrazioa eta garapenarena) inguruko gogoeta-prozesuari ekin zioten; migratzaileen elkarten gogoetaz, gaiaren inguruko literatura berezituaz eta EAEko kooperazio- eta migrazio-arloetako eragile eta parte-hartzaileekin egindako elkarriketez elikatzen zen.

1. eskema: Lan-ibilbidea



Iturria: Norberak egina.

1.3. Metodologia pausoz pauso

Proposamen honetan, EAEn bizi diren atzerritar-taldeak eta -elkartek dira ikerketa- eta zabalkuntza-prozesuaren protagonistak. Era berean, protagonismo handia izan dute euskal lankidetzako eta migrazioaren alorreko beste eragile batzuek ere, bai gizartekoei bai gure autonomia-erkidegoko aginte-maila guztietakoei.

Garapenerako heziketaren, migrazioaren eta nazioarteko lankidetzaren arloan ekimen berritzaile bat aurkezteko aukera izan da proiektu honen abiapuntua.

- Ikerketa parte-hartzaile horretako subjektuak Hegoaldeko jendea da, batez ere. Baina horrek ez du baztertzen garapen-lankidetzan diharduten Iparraldeko eragileen esku-hartzea. Izan ere, funtsezkoak izango dira eragile horiek hausnarketa eta proposamenen eraketan.
- Zuzeneko elkarrekintzak ezarri ziren testuinguru eta gizarte- eta antolaketa-egoeren artean, eragile sozialei ihardetsi eta orokortu ditzaketen ekarpenak erdiesteko.
- Ikerkuntza eta herritarren sentsibilizazioa eta Iparra-Hegoa, Iparra-Iparra eta Hegoa-Hegoa erakundeen arteko lankidetzak alderdiak uztartzen ditu proiektuak.

Azterketa honen eraketan eta gauzatzean barne hartu dira emakumeak eta haien kezkak, arazoibideak eta eskaerak, bi ikuspegitik:

- Zeharkakoa, planteatutako jarduera guztietan emakumearen gaia migrazio-esperientziaren ardatz gisara hartuta. Migratzaile-taldeek jaioterriarekiko eta harrera-gizartearekiko dituzten harremanetan garrantzi handia dute emakumeek.
- Berariaz hartu dira aintzat emakumeek garapenari eta migrazioari buruz dituzten diskurtsoak eta irudiak. Zehazki, emakumez soilik osatutako Malen Etxea elkartearen esperientzietan oinarritu gara.

Metodologia parte-hartzailean oinarritutako datu-pilaketaren tresna nagusiak elkarrizketa sakonak eta foku-taldeak izan dira. Migrazio-, lankidetzeta- eta garapen-arloko adituei eta azterketaren protagonistak diren migratzaile-erakundeetako buruei elkarrizketa sakonak egitea pentsatu zen.

Elkarrizketa horien xedea hau izan zen: elkarrizketatuek beren erakundeei eta giza garapenari, migrazio-esperientziei eta baterako garapenari buruz duten ikuspegia arakatzea eta ulertzea.

Erakundeetako ordezkariak elkarrizketa horiek egin ondoren, lehen harreman horretatik eratorritako emaitzek -bibliografian oinarritutako egiaztapenak egin ondoren- eztabaida-taldeentzako proposamen metodologikoa egiteko balio izan zigten. Eztabaida-talde horietan erakundeetako kide askok hartu zuten parte, eta, haien bidez, erakunde bakoitza garapenaren definizioa egiten saiatu zen. Ondoren, garapenean oinarrituta, migrazio-esperientzien azterketa egin zen.

Tailerrak antolatzeke xedez foku-taldeak erabiltzearen teknika horrek eztabaida sustatu zuen: “Zertaz ari gara hitz egiten?”, “Zein da migratzaileok nahi dugun garapena?”, “Alderdi horri dagokionez, migratzaileak zer sustatu edo geldiarazi du?” izan ziren galderetako batzuk. Eztabaidan parte hartu zuten, halaber, ALBOANeko eta Ellacuria Fundazioko zenbait kidek. Partaide guztien iritzia adierazteko aukera bermatu zuten aurreikusitako teknikak.

Bi saiotan banatu ziren programatutako tailerrak. Lehen saioaren helburu nagusia garapenari buruzko hausnarketa egitea izan zen, Nussbaumek ezarritako giza garapenaren kategoriak eta Max Neefek proposatutako izate-, egite- eta edukitze-alderdiak oinarritzat hartuta.

**2. Taula: dinamikaren adibidea: Guk nahi dugun giza garapena.
Onda Euskadi erakundea**

	Izan	Eduki	Egin
Ongizatea Bizitzeko behar duguna: lana, etxebizitza eta paperak	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsonak • Langileak 	<ul style="list-style-type: none"> • Diru-sarrera • Osasun-sistema • Paperak • Prestakuntza-zentroak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasketak-prestakuntza • Gure erakundeak sendotzea • sindikatueta parte hartzea
Babesa-Segurtasuna Osasun-sistema, paperak, eskubideak	<ul style="list-style-type: none"> • Langileak • Etxekoandreak • Umeak, adin txikikoak, helduak 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza • Oinarrizko zerbitzuak • Eskubideen babesa • Hezkuntza • Lan-egonkortsuak • Azpiegiturak 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskubideei eta betebeharrei buruz informatzea • Gure lan-eskubideez baliatzea (autonomoak)
Bizikidetz Bestekin bizitzea eta harremanetan jardutea	<ul style="list-style-type: none"> • Anaia/arreba (anaitasuna) • Auzokoa • Solidario 	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketarako aukera • Harremanak • Kultura arteko eremuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ezkontzea, ezkontzeak komunitatea sortzen du • Elkartasun-ekintzak
Partaidetza Boto-eskubidea, elkarrizketa, anaitasunean bizitzea, ezagutza sortzea	<ul style="list-style-type: none"> • Anaia/arreba (anaitasuna) 	<ul style="list-style-type: none"> • Boto-eskubidea • Lankidetz • Diziplina • Elkarrizketa. • Zure hitza izatea 	<ul style="list-style-type: none"> • Harresiak haustea • Besteek ezagutza transmititzea, batez ere, erlijio eta hizkuntza arabiarrari buruzko ezagutza
Adiskidetasuna Autoestimua, elkartasuna, familia, laguntasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Familia • Lagunak • “Afektuak segurtasuna ematen dit” 	<ul style="list-style-type: none"> • “Ez dut imajinatzen nire anai-arrebarik eta lagunik gabeko bizitzarik. Gauza asko partekatzen ditut haiekin” 	<ul style="list-style-type: none"> • Harremanak • Elkarrekin • “Nahi izaten aurrea hartzea”
Nortasuna Partaide izatea, aitortzea, ezkontza	<ul style="list-style-type: none"> • Anaia (anaitasuna) 	<ul style="list-style-type: none"> • Harreman onak 	<ul style="list-style-type: none"> • “Ezkontzak pertsona eta komunitatea sendotu egiten ditu” • Elkarrizketa, zure hitza aintzat hartzea

Migratzaileentzat garapena osatzen edo definitzen duten elementuak ezagutzea izan zen lehen saioko helburua, ideien loturen bidez, giza garapenaren definiziora iristeko. Erakunde bakoitzak definizio bat egin zuen. Lehen saioa hiru bat ordukoa izan zen. Talde bakoitzetik sei kidek hartu zuten parte.

Oinarri hori eraiki ondoren, eta hura abiapuntutzat hartuta, migrazioak guzti horretan izandako eragina aztertzea izan zen hurrengo pausoa: Zerk egin du hobera, eta zerk ez, migrazio-prozesuagatik Migratzaileentzat garapena osatzen edo definitzen duten elementuak ezagutzea izan zen lehen saioko helburua, ideien loturen bidez, giza garapenaren definiziora iristeko. Erakunde bakoitzak definizio bat egin zuen. Lehen saioa hiru bat ordukoa izan zen. Talde bakoitzetik sei kidek hartu zuten parte.

Erakundeko kideen partaidetza, metodologiaren sakontzea eta adostasunean oinarritutako emaitzen lorpenerako datak eta orduak adosteko koordinazio-lan handia egin behar izan zen.

Lan hori banaka egin ondoren (erakunde bakoitzak bere aldetik), ikerketa-taldeak lortutako informazioa antolatzeari eta sistematizatzeari ekin zion, orokortu daitezkeen emaitzak atera, eta hauek gainerako erakundeekin kontrastatzeko. Horretarako, hirugarren eztabaidagune bat antolatu zen, emaitzak balioztatu eta haiei buruzko xehetasun batzuk emateko; ondoren, erakundeekin egindako landa-ikerketa bukatutzat eman zen.

Informazio hori esku artean genuela, migrazioaren eta garapenerako lankidetzaren arloko adituekin eta EAEko gobernu-erakunde nagusien ordezkariekin aldatzea bakarrik falta zitzaigun. Horretarako, aipatutako ordezkariak elkarriketatzeako erronda bat antolatu zen, migrazioari eta garapenari, sustatzen jardun ziren baterako garapen-ekimenei eta gure autonomia-erkidegoko erakundeekin ekin-tza puntualak egiteko aukerei buruz zuten iritzia jasotzeko. Era berean, ondorioak balioztatu eta aberastu egin ziren politikari, aditu, GKEetako ordezkari eta elkar-teetako kideekin egindako tailer batetan.

1.4. Parte hartu duten elkarten karakterizazioa

Ikusten duzuen bezala, erakunde horietan bi eremu geografiko handitako jendeak hartzen du parte: Afrikakoak eta Latinoamerikakoak. Bakeaz-ek³ argitaratutako ikerketa oinarri hartuta, Bizkaiko migratzaile-erakunde gehienak eremu horietatik

³ Unzueta Sesumaga, Amaia, Di Carlo Maria Giulia, Bakeaz (Octubre 2009-septiembre 2010) *Estudio-diagnóstico sobre las asociaciones de inmigrantes de origen extranjero en Bizkaia*.

etorriak dira: % 41,18, Afrikatik, eta % 23,53, Latinoamerikatik. Beraz, Bakeaz erakundeak egindako azterketaren arabera, Bizkaian erroldatutako erakundeetako % 75ek eremu horiek dituzte jatorri. Lehen aipatu dugun bezala, azterketa honetarako jatorri afrikarreko lau erakunderekin eta jatorri latinoamerikarreko erakunde batekin lan egin dugu, Malen Etxea erakunde Gipuzkoako lurralde historikoari dagokiola kontuan hartuta.

Erakunde horiek 2000. urtetik aurrera eratutzat ageri dira. Garai hartan, hain zuzen ere, atzerritar asko iritsi zen Euskal Autonomia Erkidegora. Azraf erakunde izan ezik (lehentxeago sortu zen, 1999an), gainerakoak 2000. urtetik aurrera eratu ziren: Asocolvas, 2000. urtean; Malen Etxea, 2003an; Avaco, 2006an; Onda Euskadi, 2007an. Terranga izan zen azkena eratu zen erakunde (2007an).

Erakunde horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeen Erregistro Ofizialean erregistratuta daude. Dinamika horizontala dutenez, kide guztiek dute batzarretan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea. Hala eta guztiz ere, erakunde guztiek dute Zuzendaritza Batzorde bat, lehendakariak, diruzainak eta idazkari batek, gutxienez, osatua. Egitura hori erakundeen estatutu-baldintzetako bat da.

Jatorri latinoamerikarreko bi erakundeek izan ezik (kide ugari dituzte), gainerakoek partaide gutxi dituzte. Oro har, pertsona gutxi batzuei egokitzen zaie lanik gehiena, haiek dute partaidetzarik biziena eta jarraitutasun handienekoa. Jarduera zehatzagoetan (jai- eta aisialdi-girokoak, gehienetan), partaide-kopurua asko handitzen da. Kontuan izan pertsona horiek, askotan, oinarrizko beharrak estaltzeko lain soilik izaten dutela. Kasu batzuetan, etxeko lanetan diharduten emakumeak hurbiltzen dira. Haietako askok barneko langile moduan jarduten dute, eta horrek asko murrizten du parte hartzeko aukera. Aipagarria da emakumeak ia erakunde guztietan daudela, eta, askotan, partaide gehienak emakumezkoak direla.

Kasuren batean, beste arazo bat nabarmentzen da: lidergo partekaturik eza erakundeetan. Liderrik egon badago, agian, baina oso pertsonalizatuta egoten da lidergoa; hori dela eta, pertsona jakin hori faltatzen denean, edo beste bati lekukoa pasatzeko garaia egokitu dela uste duenean, aldaketa ez da ontzat hartzen, arduratzen edo zeregina behar bezala ez egiteko beldurra egoten baita. Bestalde, emakumeen jarduna geroz eta garrantzitsuagoa da erakundeetan, eta horren adierazgarri da zuzendaritza batzordeetan duten ordezkartza.

Erakunde horiek sortzeko arrazoiei dagokienez, herrikideekin elkartzeko beharraz gain, harrera-herriko eta atzerriko pertsonen arteko bizikidetzak, migratzaileen eskubideen defentsa, onarpena, eta aurreiritziak eta estereotipoak hausteko nahia

aipatzen dira. Malen Etxearen kasuan, helburu nagusia emakumeen jabetzearen aldeko lana da, hazkuntza pertsonala erdiesteko eta bizitzako arlo guztietan garatu ahal izateko. Era berean, emakumeek emakume eta migratzaile izateagatik jasaten dituzten arazoak salatzeraz bideratzen dituzte ekintzak.

Garapenerako lankidetzak ere helburu izan da, inplizitua edo esplizitua. Azraf eta Avaco erakundeek zeregin hori erdietsi beharreko helburu gisara hartu zuten, hasieratik. Asocolvas-en kasuan, helburuen lehen adierazpenean ez zen jaso xede hori. Hala eta guztiz, Kolonbian egin diren garapenerako lankidetzak-proiektu batzuetan parte hartu izan du. 2010ean, estatutuak berriro ondoren, giza garapen jasagarriaren aldeko lana ere bere gain hartu du; horretarako, Hegoaldeko herrialdeetan baterako garapen-ekintzak egiteko asmoa dute.

Bestalde, baliabide material eta ekonomikoen aldetik oso mugatuta dabilta elkartek, oro har. Latinoamerikar jatorriko elkartek beren lokal propio bat dute egoitzatzat; gainerakoek, berriz, Ignacio Ellacuría Fundazioaren instalazioak erabiltzen dituzte. Hura dute egoitza soziala, eta han egiten dituzte bilerak eta jardueretako batzuk. Bistakoa da ez dela erraza lokal propioa izatea (ez alokairuan, ez jabetzan) elkartearen egoitzarako. Lehentxeago genioenez, elkarrekin bi badute lokala, baina gastuei aurre egiten nahikoa lan dute, eta, une honetan, ia ezinezkoa zaie. Bazkideek hileroko ordaintzen duten kuotaz gain, premia materialak eta ekonomikoak asetzeko bidea hau da: EAEko administrazio publikoek banatzen dituzten diru-laguntzetara aurkeztea. Administrazio bakoitzaren arabera izaten dira diru-laguntzetarako deialdiak, baina, berez, ez dago inongo arazorik elkartek haiei aurkezteko (garapenerako lankidetzak-proiektuetarako, elkarrekin bi urteko antzinatea -gutxienez- izatea eskatzen da). Proiektua formulatzeko arazo teknikoak gainditzean, proiektua aurkeztu egiten da, eta onartu egiten dute. Arazoak, ordea, beste alde batzuetatik datoz: esleitutako zenbatekoa argitaratzeko data, emakida eta zenbatekoaren sarrera. Kexa nagusia hau izaten da: diru-laguntzak esleitzen direnetik dirua ematen den arte hiru hilabete, gutxienez, igarotzen dira. Tarte horretan, elkartek bere gain hartu behar izaten dituzte kostuak; askotan, baina, ezinezkoa zaie.

Horregatik, elkarrekin asmo eta helburuetako zenbait oso interesgarriak iruditu arren, haiei asko proposamen hutsak dira, gauzatzeko behar duten finantziarioa lortu arte. Gaur egun, elkarrekin barruan bertan zenbait jarduerak egiten dituzte elkarrekin batzuk (Onda Euskadik eta Asocolvasek, adibidez); besteak beste, trebakuntza-tailerrak antolatzen dituzte: informatika-ikastaroak, baita arabierakoak ere (lehena aipatu dugunak), eta dantza-talde bat kolonbiar jatorrikoek. Asocolvasek, bestalde, hitzarmen bat du Ahislama elkarrekin lanbideratze-gaietarako,

eta mikroenpresak sortzen eta lana bilatzen laguntzen diote jendeari. Elkarteko kideentzat izaten dira, gehienbat, jarduera horiek; beste elkarte batzuek, ordea (Malen Etxeak, adibidez) kanpora begira ere egiten dute lanik, barnekoek gain: ikerketa-lanak, emakumearen ahalduntzea sustatzeko tailerrak, sentsibilizazio-tailerrak ikastetxeetan eta irratsaioetan.

Azpimarratzekoa da, bestalde, folkloreak alorrean elkarrekin egiten duten lana. Haien jatorrizko herrietako berezitasun kulturalak gizarteratzeko jarduerak (ikas-tekoak zein mantentzekoak) izaten dira, oro har. Elkarrizketetan esplizituki aipatu ez bagenuen ere gai hori, elkarrekin batzuek ekin diote alderdi soziokulturalaren gaiari. Alderdi horien testuingurua aztertzeko, haien aipamena egiten duten elkartei begiratuko diegu. Batetik, hor dugu Azraf elkarte, zeinak argi eta garbi proposatzen duen Euskal Herriko hizkuntzak ikasi egin behar direla. Era berean, garrantzia ematen diote jatorrizko hizkuntzak jakiteari edo zaintzeari, edo, hemen jaioa bada, haren aurrekoen “sustraiak” gordetzeari. Beste adibide bat Avaco dugu: tailerretan parte hartu duten gazteek eta hezkuntza-sisteman dihardutenek begi onez ikusten dute euskara gehitzea lehendik dakizkiten bi edo hiru hizkuntzei; gainerakoek, berriz, euskara jakitea komenigarria litzatekeela diote. Oso antzeko jarrera du Asocolvas elkarteak ere, eta horrek ere azpimarratu egiten du hemengo hizkuntza ikastearen garrantzia (euskara, kasu honetan, gaztelania baitute jatorrizko hizkuntza), jende helduari oso neketsua egiten zaiola eta oraingoz ez dutela lortu gogoratzen badu ere.

Sareko lanari dagokionez, oso positibotzat jotzen dute elkarrekin beste erakunde batzuekin jarduteko aukera: atzerritarren elkarteak, migratzaileei laguntzeko elkarteak edo taldeak, koordinakundeak eta administrazio publikoak. Lanean denbora gehien daramatenek lortu dituzte harreman estuenak, une edo proiektu jakin batzuetarako batik bat, eta guztiek bide horren alde egiten dute. Avacok, Asocolvasek, Azrafek (sareko partaideak guztiak ere) eta Malen Etxeak lotura estua dute Harresiak Apurtuz koordinakundearekin. Segur aski, Malen Etxeak egiten du sareko lan gehien: Urola Kosta koordinakundearekin lan egiten du, baita Gipuzkoako migratzaile-elkarrekin, Haurralde Fundazioarekin eta Zumarragako Adaltz elkartearekin ere. Avaco, berriz, Kongoren Batasunerako eta Garapenerako Federazioko partaide da, beste zenbait migratzaile-elkarerekin batera; Terranga, bestalde, Euskal Herriaren senegaldarren federazio bat sortzeko lanean ari da, beste zenbait senegaldar-elkarerekin batera.

Oro har, elkarte bakoitzak beren kasa dihardu, oraingoz. Gentes del Mundo (Munduko jendeak) proiektua azpimarratzekoa da, gai honi gagozkiola. Asocolvasek eta Terrangak gogotsu dihardute plataforma horretan. Bilboko udalak bultzatzen

du proiektua, une jakin batzuetan, eta aipatutako elkarten lankidetzak eskatzen du. Terrazas del Mundo (Munduko terrazak) proiektuko partaide ere bada Terranga. Erakunde publikoekiko edo administrazioekiko harremani dagokionez, denek izan dituzte harremanak haiekin, bakoitzak bere intentsitate- eta jarraitutasun-mailarekin. Alor instituzionalari dagokionez, berriz, Bilboko Udalak sortu berri du Immigrazioaren Euskal Kontseilua, Asocolvasek eta Onda Euskadi partaide dituela.

Bistakoa da elkarte bakoitzak bere erritmoa eta bilakaera dituela, bazkideak zer jatorritakoak diren eta Euskal Herrian zenbat denbora daramaten. Rostowen⁴ obra (zehazki, gizartearen sailkapena haien garapen ekonomikoaren mailaren arabera egiten duen zatia) eta Aierdi gogoratuz, “abiatzeko unean” dabilta elkarteak; horretarako, trebakuntza- eta finantza-baliabideak erabili behar dira, elkarte horiek beren jatorrizko herrialdeen garapena susta dezaten? Une horretan nabarmentzena izan zen irteera- eta iriste-testuinguruak lotzeko nazioz harandikoko ikuspegi baten beharra, haien bizitza, garapenari buruzko kontzeptua, haien kezkak, garapena eta garapen-elementuak interpretatzeko modua ulertzeko. Tailer horiek ere hiru bat orduko iraupena izan zuten, Asocolvasekoak izan ezik: hirugarren saio bat egin behar izan zuten eztabaida amaitzeko eta han sortutako aberttasuna jasotzeko.

Elkarteen izena

ASCOLVAS - Asociación de Colombianos y Colombianas en el País Vasco (Euskal herriko kolonbiarren elkarte)

Jatorrizko herrialdea

Kolonia.

Eraketa-data

1999an sortua.

Bazkide-kopurua

400 bazkide.

Helburuak

Helburu hauek ditu, besteak beste: Kolonbiako migratzaileen eskubideak aldarrikatzea, haiei Euskal Herria ezagut dezaten laguntzea, eta kolonbiar jatorriko jendearen integrazioa sustatzea, aholkularitza-lanen eta laguntzen bitartez, baita haien partaidetza eta bizikidetzak bultzatzea ere.

⁴ Rostow, Walt Whitman (1961), las etapas del crecimiento económico: Un manifiesto no-comunista. Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.

Elkartearen izena

AVACO - Asociación Vasco Angoleña de cooperación al desarrollo, la cultura y la amistad (Garapenari, kulturari eta adiskidetasunari laguntzeko euskal-angolar elkarte)

Jatorrizko herrialdea

Angola.

Eraketa-data

2006ko uztailaren 21ean eratu zen elkarte.

Bazkide-kopurua

Bost gizonezko ditu bazkide iraunkor; aldian behin, hamar emakume.

Helburuak

Gizon eta emakume gazteak dira. Familiak berriro elkartzeko prozesuen bitartez, elkartera emakumeak erakarri nahian ere ari dira. Helburuak hauek ditu, besteak beste: Angolaren garapen ekonomikoari eta sozialari laguntzea, herritarren bizi-kondizioak hobetuz, eta Angolako herriarekiko kultura-trukea eta adiskidetasuna sustatzea.

Elkartearen izena

MALEN ETXEA - Emakume migratzaileen elkarte

Jatorrizko herrialdea

Latinoamerikatik etorritako hainbat emakumek eratutako elkarte.

Eraketa-data

2003an sortu zen elkarte.

Bazkide-kopurua

60 emakume.

Helburuak

Hauek ditu helburuak, besteak beste: emakumeen ahalduntzea, hazkuntza pertsonala eta arazo komunen konponketa sustatzeko, eta politikan parte hartzeko eta eragiteko ahalmenak eta trebakuntza eskaintzea.

Elkartearen izena	ONDA EUSKADI Elkarte kulturala
Jatorrizko herrialdea	Magrebetik etorritako gizonezkoak eta emakumezkoak.
Eraketa-data	2006ko azaroaren 18an eratu zen elkarte.
Bazkide-kopurua	100 bazkide (45 emakume eta 55 gizon).
Helburuak	

Magrehtarrei euskal gizartean txertatzen laguntzea du helburuetako bat, baita haien kultura eta haiekiko bizikidetzaren sustatzea ere.

Elkartearen izena	TERRANGA – Bizkaiko senegaldarren elkarte
Jatorrizko herrialdea	Batik bat Senegaldik etorritako gizonezkoek osatzen duten elkarte.
Eraketa-data	2008an sortu zen elkarte.
Bazkide-kopurua	40 (gutxi gorabehera).
Helburuak	

Senegaldar jatorriko jendeari laguntzea, besteak beste.

2. Migrazioa eta garapena

Kontzeptuak, erronkak
eta ikuspuntuak



“Migrazioaren eta garapenaren arteko lokarrien balorazio aldakor hori lotuta dago bi gaien kontzeptualizazio okerrari. Alde batetik, jatorrizko herrialdeetako egoera hutsak bultzatutako eta noranzko bakarreko errealtate gisa ulertutako migrazioa, eta, bestetik, izaera unibertsaleko garapena, mendebaldeko gizarteen urratsei jarraituko liekeen fenomeno ekonomiko soiltzat ulertua. Lehenengo baieztapen horretatik ondoriozta daiteke bi kontzeptuen definizioan gehiago sakondu behar dela, eta, hasteko, zer migrazio- eta garapen-motaz dihardugun eztabaidatu behar dela. Era berean, espazioak eta denborak kontuan hartu behar dira migrazioek garapenean zer eragin duten hobeto jakiteko: nazioarteko eraginak, nazio mailakoak, eskualde mailakoak edo tokikoak diren, familiakoak edo bakarkakoak edota epe labur, ertain edo luzekoak”

(Lacomba 2004: 32).

2.1. Gaur egungo migrazioak: erronkak eta ikuspuntuak

Gaur egun, mendebaldeko gizarteetan, nazioarteko migrazio-mugimenduek arreta handia pizten dute eztabaida akademikoetan zein gobernuen gai-zerrendetan. Fenomeno horrek azaleratutako galderak eta gogoetak ugariak eta askotarikoak dira: migrazioa, hortaz, segurtasun nazionaleko arazo bat, kanpo-politikako tresna bat edo mendebaldeko gizarteetako aldaketa-faktore nagusietako bat bilakatzen da. Egia da populazio-mugimenduak beti gertatu direla, gizadiaren hasieratik, eta, mende hasieratik, nazioarteko migrazioa zenbakitan bikoiztu egin den arren, denbora-tarte berean munduko biztanleria laukoiztu egin dela.

Edonola ere, nazioarteko migrazio-mugimenduen aldaketa kuantitatiboez hitz egitea baino beharrezkoagoa da, neurri handi batean egungo globalizazio-prozesuak sortu eta bultzatutako aldaketa kualitatiboez hitz egitea. Eta, zalantzarik gabe, aldaketa horietako bat izan da migratzaileek gero eta aukera gehiago dituztela haien jatorriko gizarteekin komunikazio erraza izateko. Komunikazio- eta garrario-teknologiek ekarri dute bizitako eraldaketek jatorrizko gizarteetan eta helburu-gizarteetan arteko loturen dentsitatea, ugaritasuna eta garrantzia areagotzea.

Geografikoki banandutako pertsona-taldeen arteko giza harremanek sekula baino berehalakotasun handiagoa dute. Distantzia eta denbora ez dira, jada, giza antolaketaren mugarik garrantzitsuentzat jotzen⁵.

Iritzi hori ematen du Cancclini-k (1999) gaur egungo populazio-mugimenduen eta XIX. mendeko eta XX. mendearen lehenengo erdiko populazio-mugimenduen arteko aldeak aztertzen dituenean. Migrazio horiek, oraingoak ez bezala, behin betikoak ziren gehienetan, eta haustura bat, deskonexio bat, eragiten zuten migratzaileen eta gelditzen zirenen artean. Gaur egun, Cancllinik hiru migrazio-sistema hauek bereizten ditu: helmugako lekuan behin betiko geratzen den migrazioa edo populatze-migrazioa, lanaren ondoriozko behin-behineko migrazioa eta, azkenik, bien tartekoa izango litzakeen kokatze-migrazio aldakorra. Azken bi migrazio-sistemak dira azken hamarkadetan areagotu direnak. Bestalde, iraganarekin alderatuz, gaur egungo sistemek egoitza-baimen esporadikoagoak eta diskriminatzaileagoak dituzte, nazionalitatearen eta helmuga-herrialdearen beharrian ekonomikoen arabera. Era berean, bizi ditugun garaien berezko ezaugarri bati lotuta dago marjinaltasun ekonomiko hori: migratzaileak ez dira jada beharrezkotzat ikusten mendebaldeko gizarteotan. Oraingo migrazio-mugimenduek zer beritasun dakartzaten aztertzeko orduan, Massey *et. al.* (1998) lanean aipatzen dute iraganean gobernuak beharrezkotzat jotzen zutela migrazioa industrializiorako, eta, gaur egun, aurre egin beharreko arazo sozial eta politiko gisa ikusten eta erakusten dutela migrazioa iritzi publikoaren aurrean.

Era berean, Massey *et al.* (1998) lanaren iritiz, eta aldeak alde, gaur egungo migrazio-fluxuek badituzte antzinakoetatik bereizten dituzten ezaugarri komun batzuk: alde batetik, migratzaileak gehienetan jatorrizko herrialdeak ezaugarri hauek dituzte: kapital-eskaintza mugatukoak dira, lanpostuen sorkuntza-tasa txikikoak eta eskulan-erreserba handikoak. Hau da, desoreka handia dute eskulan eskuragarriaren eta eskulanaren eskariaren artean. Bestalde, oraingo herrialde hartzaileak, jaiotze-tasak oso baxuak eta biztanleria zaharritua dituztenez, langile-eskaintza mugatua dute. Aldi berean, kapitalean intentsiboak diren teknologiek eskari estratifikatua sortzen dute: bertako langile kualifikatuentzat, aukera asko; hezkuntza edo prestakuntza espezializaturik ez dutentzat, langabezia; eta langile migratzaileentzat, eskari segmentatua.

⁵ Gai hori Harveyk (1989) aipatzen du; haren ustez, globalizazioaren kontzeptua denboran eta espazioan aldakorra den agerpena da. Prozesu sozial eta ekonomikoaren bizkortzeak mundua "uzkurtu" egin du, eta, hortaz, denborak eta distantziak utzi egin diote giza antolaketaren oztopo nagusiak izateari. Iritzi berekoa da Giddens (1990) ere; hark aipatzen du bizitza sozialeko espazioak tokiko mugak gainditu dituela.

Aldi berean, langileen eskari jarraitua eta langabezia-maila handiak izaten dira, eta, gainera, gero eta ezinegon handiagoa dago migrazioak sortutako kultur-aniztasunagatik. Kontraesan horri aurre egiteko, gobernuek politika murriztaileak erabiltzen dituzte: langile migratzaileak lan-merkatuaren segmentu batera mugatzen dituzte, langileen mendeko senideen sarrera mugatzen dute, ahal den neurrian egonaldi iraunkorrak eragozten dituzte, eta baimendutako sarrera-kanalak erabiltzen ez dituztenak jaioterrira aberriratzen dituzte.

Azken hamarkadetan, ekonomia globalaz hitz egiten da, munduko sistemaren fase berri gisa. Castells-ek (1997) *ekonomia informazional* deitzea proposatzen du. Izan ere, informazio-teknologiaren iraultzaren ondorioz, kapitalismoak planeta osoan lan egin dezake modu bateratu eta berehalakoan. Baina ez dira globalizatu giza jardueren esfera guztiak. Alde horretatik, Castells-ek aipatzen du globalizazio kapitalista dualismo berri bat bilakatzen dela lan-munduan: alde batetik, mundu osoan eskari handia duen lan-indar mota bat dago, nazioen arteko mugek inposatutako inolako migrazio-araurik jarraitzen ez duena, eta, bestetik, kualifikaziorik gabeko lanerako indar-mota bat dago, estatu/nazioek mugatu eta araututakoa. Nahiz eta langile migratzaileak lan-merkatuaren osagai garrantzitsu bat diren herrialde askotan, horrek ez du esan nahi eskulana globala denik. Gertatzen ari dena da langile migratzaileek konexio gehiago dituztela lan egiten duten herrialdean eta gainerako munduan, ekoizpen-fluxu globalen, diruaren (bidalketak), informazioaren eta kulturaren bidez (Castells 1997:168).

Ikerlan horri jarraituz, aipatu behar da jatorria eta helmuga lotzen dituzten senidetasan-, adiskidetasun- eta erkidetasun-lokarrietan oinarrituta daudela interkonexio horiek, eta, egitura koherente bat eskaintzen dietela populazio migratzaileei. Nazioarteko migrazioak eskaintzaren eta eskariaren legeen arabera erabaki ekonomiko soilen emaitza gisa ulertzen dituzten postulatuen aurrean, migrazioak gizarte- eta familia-prozesu konplexu gisa agertzen zaizkigu⁶. Norbanakoak sareetan txertatzeak azaltzen du, hain zuzen ere, migrazioen jarraibide kontzentratua⁷-geografikoa zein lanekoa- eta migrazio-fluxuen izaera iraunkorra (Portes eta Bø-

⁶ Ikus Malgesini (1998); Malgesini eta Giménez (1997). Ikus, era berean, Boyd (1996) eta Pedone (2006).

⁷ Jarraibide kontzentratu deitzen diogu egozpen-faktoreak herrialde jakin batzuetara mugatzen direlako, eta, zehatzago, herrialde horietako eremu edo eskualde jakin batzuetara; ez ordea, pareko txirotasun-mailako beste herrialde batzuetara. Era berean, horrela deitzen zaie migrazio-mugimenduak herrialde jakin batzuetara bideratzen direlako, eta, herrialde horietan, eremu edo eskualde eta lan-esparru jakin batzuetara. Gizabanakoei dagokienez, adierazten da zergatik migratzen duten banako jakin batzuek edo biztanleen zati txiki batek soilik, biztanle guztiak baldin badaude erakarpen-eta egozte-faktore berdinen pean.

röcz 1998). Migrazio-kate eta -sareen analisiak jatorriaren eta helmugaren arteko loturan eta artikulazioan jartzen du enfasia, eta, horrela, migrazio-taldeen bizitza antolatzen duen sistemaren bi mutur gisa ulertzen ditu.

Ikuspegi hori erabiltzeak aukera ematen digu hurbilketa estatiko eta sinplifikatzaileak gainditzeko. Izan ere, migrazio-sareen ikuspegi analitikoak aukera ematen digu baldintza globalak eta lokalak elkarrekin konektatzeko eta migrazio-mugimenduak prozesu sozial gisa aurkezteko. Eta ez ditu migrazio-sareak fluxu ekonomiko soiltzat hartzen, neoliberalismoak edo marxismo ortodoxoaren zati batek egiten den moduan. Halako analisisetan, subjektu migratzailearen esperientziak, biografiak eta ibilbideak balioa hartzen dute, eta subjektu hori **eragile aktiboa** bilakatzeko da; gaur egungo ekonomia globalaren testuinguru mikro- eta makro-egiturazkoetan mugitzeko migrazio-estrategiak finkatzen dituena, hain zuzen ere.

Aipatzekoa da interkonexio horiek potentzial handia dutela *nazioz haraindiko eremuak* sortzeko. Migratzaileen bizitza-eremuak eta proiektuak ez dira espazio bakar batera mugatzen; orain, “transmigratzaile” deritzenen espazio sozialek hainbat eremu geografiko hartzen dituzte (Pries 1999). Gaur egun, beren jatorrizko herriak eta gizarte hartzaileak konektatu eta biltzen dituzten sare, jarduera, bizimodu eta ideologiak garatzen dituzte migratzaileek.

Jatorrizko gizarteak eta finkatzen direnak lotzen dituzten giza harreman horiek sortzen eta mantentzen dituen prozesuari deitzen zaio *migrazio transnazionala* (Basch *et. al.* 1994; Glick Shiller *et. al.* 1992). Orain *transmigratzaile* deritzenen eguneroko bizitzan, hortaz, nazioarteko mugak gainditzen dituzten hainbat interkonexio iraunkorrek hartzen dute parte, eta sortutako migrazio-espazio edo -zirkuitu horiei zenbaitetik *komunitate transnazional* deitzen diete. Rouseren (1993) arabera, *komunitate transnazional* hori harrera-gizarteko erakunde politiko eta ekonomikoetan zein eguneroko arauetan txertatzen da, baina, aldi berean, konexioak mantentzen ditu, erakundeak sortzen ditu, transakzioak egiten ditu eta harrera-gizarteko tokiko eta nazio-mailako gertakizunetan eragina du. Sozializazio-mekanismoak hobetzearen ondorioz, *migrazio-kultura* bat sortzen da, hots, migrazio-jarduera erregulatzen duten arau-, balio- eta zigor-sistema bat, eta horrek dagozkien migrazio-zirkuitu transnazonaletan moldatzeko aukera ematen die migratzaileei (Durand 1994).

Baina, migrazio-mugimenduen izaera transnazionalak zer eragin du politikan? Lehenik eta behin, estatu mailako politikek desfase handia dute migrazioaren egoerarekiko. Izan ere, migrazio-politikek migrazio-fluxu berrien **izaera transnazionala** kontuan hartu behar lukete. Egun, fluxu-kontrolaz, migratzaileen integrazio sozia-

laz eta garapenerako lankidetzaz arduratzen dira gehienbat. Europako Batasuneko migrazio-politikarik gehienak, ordea, migrazio-teoria klasikoetan oinarrituta egiten dira. Europako Batasuneko estatu gehienak mugak kontrolatzen saiatzen dira (lurreko sarbideak, aireportuak, eta kontsulatuak jatorrizko herrialdeetan). Bada, gobernuek migrazio-fluxuak kontrolatzeko izugarriko arazoak izaten dituzte fluxu horiek hasita direnean. Estatuak migrazio-fenomenoa erabaki indibidualen ondorioztat hartzen jarraitzen dute; hori dela eta, migrazio-prozesuak antzinako lotura kolonialetatik edo egungo lotura neokolonialetatik askatu egiten dituzte. Herrialde igoerlea subjektu pasibotzat hartzen dute eta, izatez, ez dute inola ere kontuan hartzen herrialde hartzaileetako estatuak eta enpresen nazioarteko jarduerak kapitalen zirkulazioa sortzeaz gainera pertsonen zirkulazioa eragiten duten lotura ekonomikoak sortzen ere laguntzen dutela. Portes eta Böröczek azaldu duten moduan, migrazio-fluxuak eskualde jakin batzuetan kontzentratzearen arrazoia herrialde igoerleak eta hartzaileen arteko iraganeko harreman ekonomiko eta politikoen historian legoke⁸. Antzeko iritzia du Sassenek (2001) ere, herrialde igoerleak eta hartzaileak lotzen dituzten mekanismoak aztertzean. Aditu horren arabera, iragan kolonialaren eta gaur egungo neokolonialismoaren loturen bidez lan egiten dute mekanismo horiek, hots, ekonomiaren internazionalizazioak eta langileen errekrutatze antolatutako loturen bidez⁹.

Gainera, kontuan hartu behar da migrazio-sare horren sorkuntza, neurri batean, gobernuen kontrolpetik at gertatzen dela eta hasi ondoren berezko dinamika hartzen duela. Modernizazioaren paradigman oinarrituta, herrialdeen arteko soldata-aldeen bidez azaldu izan dira migrazio-fluxuak baina, aipatu dugunez, ideia hori ez da nahikoa migrazio-mugimenduak behar bezala azaltzeko. Mugimendu horietan eragina izan nahi duen politika orok, harrera-herrialdearen antolaketa ekonomikoan gertatutako aldaketek gainera, kontuan hartu beharko ditu estatu mailako dinamikak baldintzatzen eta gaingitzen dituzten mundu mailako eraldaketak ere.

Bestalde, integrazio sozialaren arloko politikak ere antzeko zailtasunei aurre egin beharko diete. Izan ere, bere bitzta estatu/nazio bi edo gehiagotan aldi berean

⁸ Harreman politiko eta ekonomikoen aurreko historia izan daiteke migrazio-prozesu bat sortzeko abio-baldintzetako bat. Aipatutako ideia horren adibideak dira herrialde kolonizatzaileen eta antzinako kolonien arteko migrazioak, hala nola, Senegal, Algeria eta Tunisia Frantziarekin; Latinoamerika eta Magreb Espainiarekin; eskualde Afro-karibearra Ingalaterrarekin; Angola eta Mozambike Portugalekin.

⁹ Sassen-ek hirurogeita hamarreko hamarkadan Estatu Batuetara izandako migrazioak aztertzen ditu eta, aipatzen duenez, garai berean Estatu Batuek hedapen ekonomiko eta militar handia izan zuten Asian eta Karibeko herrialdeetan.

eraikitzen duen populazio baten ezaugarriei egin beharko die aurre, eta horrek, arazoak sortuko dizkie erreferentzia-puntu nagusitzat eredu estatu-zentrikoa erabiltzen jarraitzen duten ereduak. Azken batean, estatuak kontuan hartzen ez dituzten bitartean gertatzen ari diren eraldaketak -ez bakarrik migrazio-ereduetan, baizik eta, nagusiki, estatuak eta estatuen arteko sistemak berak izan behar duten jokatubidean-, migrazio-politikak mugatuta egongo dira eta ez dira eraginkorrak izango migrazio-fluxuak kudeatzeko.

Baina migrazio-arloan gobernuek garatzen eta ezartzen saiatzen diren koiunturazko politikez haratago, hausnartzea merezi duen oinarritzko kontraesan bat agertzen da. Izan ere, gaur egungo migrazio-fluxuek zalantzan jartzen dute **herritartasun**-konzeptu modernoa bera, baita estatu-nazioari lotutako erakunde juridiko-politikoak ere. Sistema ekonomiko global berriaren sorrerak mugak gaintzen dituen fluxuak eta komunikazio globalak ditu ezaugarri, eta eraldatzen ari da subiranotasunaren eta lurraldetasunaren arteko lotura eskusiboan oinarritutako estatu-eredua. Ekonomia globalaren joera berriek kapitalen zirkulazio askeari bidea irekitzen dioten desarautzea eta legedi berria ekarri dituzte Aldi berean, Europako Batasunean ikusten denez, beren subiranotasunaren zati bat nazioz gaintzeko erakundeei uzten ari dira estatuak, bakoitzaren burujabetzaren kaltetan, nolabait. Hala ere, desarautze hori ez da estatuaren eskumen-esparru guztietan gertatzen; aitzitik, zenbait esparru estrategikotan estatua indartu egiten da. Sassenek (2001) baieztatzen duenez, ordena global berriak *desnazionalizazio* eta *bernazionalizazio* egoera bereziak ekarri ditu. Egoera hori garbi ikusten da migrazioaren kasuan: estatu-nazioek, eskumenak galdu beharrean, beren zentraltasunari eutsi egiten diote, mugak itxiz eta diskurtso politikoa *bimazionalizatuz*.

Egungo migrazio-prozesuek herritartasun-eredu nazionalaren kontraesanak azaleratzen dituzte; partaidetza kulturalari buruzko lurralde-irizpideetan ainguratutako ereduarenak alegia. Nazio mailako herritartasunak herritartasun-eredu unibertsalago baten aurrean zentzua galtzen duen garai bat islatzen du egungo esperientziak. Eredu berri horrek eskubide indibidualei buruzko ikuspegi *ez-lurraldetarra* du, hots, herritartasun-eredu *postnazional* edo *transnazionala* da Herritartasunaren mugen inguruan Soysalek (1994) egindako analisisan, herritartasun nazionalarekin alderatuz, herritartasun-eredu postnazional horren ezaugarriak hauek dira: estatu-nazioen mugetan oinarritutako lurralde-eredu klasikoaren dimentsioaren eta lurraldearen eta partaidetzaren arteko ezinbesteko loturaren aurrean (Ingalaterrako herritarrak baino ez dira ingeles nazioaren eskubideen eta pribilegioen jabe) *“fluid boundaries of membership”* ideia nagusitzen da, hau da, autoritate-egituretan eta bizitza politiko publikoan parte hartzeko eskubidea eta betebeharra herritar guztiei ematen dien herritartasuna, baina kontuan hartzen ez dituen pertsona horrek

usadioak, erlijioa eta abar nabarmendu beharrea, harrera-gizarteetako sistema politikoen instituzioak lehenesten dira. Bestalde, partaidetza-printzipio eratzailerak giza eskubideetan oinarritzen da. Hortaz, estatu-nazioaren aurrean herritartasun-eredu berri horren zilegitasun-iturria nazioarteko komunitatea da.

Migrazio-mugimendu berrien izaera transnazionalak (hots, gizarte bi edo gehiagotako partaide izatea aldi berean) zalantzan jartzen du erkidego politiko bakarreko partaidetza eskusiboko herritartasun-konzeptu tradizionalaren oinarria. Bauböck (1994, 1996) soziologoak ikertu ditu migrazio-fenomenoa aztertzeko ikuspegi transnazionala erabiltzeak izango lukeen eragina herrialde hartzaileetako herritartasunean. Lehenik eta behin, harrera-herrialdeko herritartasuna lortzea eskubide indibidualtzat hartu behar litzateke eta ez luke eragin behar aurreko herritartasuna galtzerik. Beraz, herritartasun anizkoitza legezkoa izango litzateke herritartasun transnazional berri horretan. Bigarrenik, transnazionaltasun kontzeptua nazionalismo zibikotik haratago doa eta, alde horretatik, komunitate migratzaileei zenbait kultura-eskubide aitortzeaz gain¹⁰, arazoa da helburu-gizarteetako kultura publikoa aldatu behar dela.

2.2. Migrazioa eta garapena

2.2.1. Migrazioa garapenean

Migrazioaren gaiarekin gertatzen denaren antzera -eztabaida eta interpretazio ugariaren xede -, garapenaren kontzeptua ere eredu teoriko nagusiek mugatuta dago. Aditu askok azpimarratzen dutenez (Marín Sánchez, 2005; Gómez Gil, 2005), garapenaren kontzeptua eta hizkuntza ez dira neutralak, eta ezaugarri sozial eta historikoen eraikuntzak baino ez dira. Hain zuzen, garapenaren kontzeptua lehenengo aldiz 1949an aipatu zuen Estatu Batuetako presidente zen Trumanek. Ondoren, gerra hotzaren garaian, “Lehenengo Munduan” (Mendebaldeko herrialde kapitalistak), “Bigarren Munduan” (herrialde sozialistak) eta “Hirugarren Munduan” (gainerako herrialdeak) banatu zen mundua. 1977tik aurrera, nazioartearen garapenerako *Brandt Batzordea* sortu zenean, “Iparraldea”-ren eta “Hegoaldea”-ren ideia hedatu zen munduko aberastasun-banaketa desorekatuaz aritzeko.

lbilbide historiko horretan guztian, garapenaren kontzeptua aldatuz joan da eta, horrela, indarrean zeuden teoria zabalagoak teoria berriagoez ordezkatu edo zu-

¹⁰ Komunitate migratzaileen inguruko kultura-eskubideen gaiaren azterketa sakonagoa nahi izanez gero, ikus Kymlicka, W., 1996, *Ciudadanía Multicultural*, Bartzelona, Paidós arg.

zendu ahala, garapenaren kontzeptua ere ñabardurak hartuz joan da. Hortaz, modernizazioaren teorien pean, garapenaren kontzeptua lineala zen eta, ondorioz, bila-kaera logikoa zen gizarterik atzeratuenak herrialde garatuen eraginpean sartzeko mugimendua. Garapenean arrakasta izatea hau zen: gizarte horiek merkatu-ekonomiara biltzea, denboraren poderioz. Azpigarapenaren arrazoiak gizarte tradizionalen berezko faktoreek eraginak ziren, eta arrakasta lortzeko aukera bakarra hau zen: *“etika kapitalistari dagozkion printzipioak txertatzea: kalkulua, arrazionaltasuna, aszetismoa eta... demokrazia”* (Molina eta Valenzuela, 2006:128). Ikuspuntu horretatik, azpigarapena atzean utzi eta garapenerantz jauzi egiteko aukera gisa ikusten ziren migrazioak.

Hala ere, 1970eko hamarkadatik aurrera eta, batez ere, teoria marxisten eraginez, modernizazioaren ikuspegi kritiko bat garatu zen. Ikuspegi horrek dependentsiazaren nozioak garbi erakusten eta garapen kapitalistak eragindako desberdintasunak azpimarratzen ditu eta, era berean, munduko biztanleen zati handi bat azpigarapenera bultzatzen duten baldintzapen ekonomiko, sozial eta kulturalak ere nabarmentzen ditu. Azpigarapenetik garapenerako eboluzio lineala baieztatzen zuen modernizazioaren aurrean, kontuan hartzen da fenomeno horiek bereiziak ez ezik elkarri oso lotuak daudela. Beraz, kapitalismoaren ezaugarrietako bat da hedatzen eta sartzten diren eskualdeekiko mendekotasun- eta dependentsia-harremana erabiltzen duten zentro batzuk egotea. Ikuspegi horretatik, migrazioak ez dira, jada, balizko garapen-faktoretzat hartzen, baizik eta errenta eta gainbalioa erauzteko mekanismo gisa, hots, zerebroen ihes edo drainatzearen bidez garapena betiketoz duen pobretze-prozesua.

Modernizazioaren ikuspegitik garapena eta BPGaren arteko parekatze bat egiten zen sasoi hartan; 1970eko hamarkadatik aurrera, gero eta garbiago ikusi zen BPGaren hazkundeak ez dakarrela beti berekin, nahitaez, pobrezia-aren murrizketarik. Hamarkada hartan sustatutako beharrianen ikuspegiak hau azpimarratzen zuen: bizitza duina izateko besteko bizi-maila minimo bat (elikagaiak, jantziak, etxebizitza) bermatu beharra. Era berean, biztanlerik gehienei zerbitzu publikoetarako sarbidea -hezkuntza, osasuna, garraioa, saneamendua - bermatzearen alde egiten zuen. Bestalde, pertsonen bizitzari eragiten dioten erabakietan parte hartzeko eskubideen aldeko jarrera berreskuratu zen. Kontua da ikuspuntu horrek mundu-krisi larriei aurre egin behar ziela, batez ere garapen bidean zeuden herrialdeetan. Krisi horiek eragindako mugimendu global berriek zenbait egilek “kontrairaultza neoliberala” deritzotena sorrarazi zuten. Hitzarmen global berri batek -“Washingtoneko ituna”- definitu zuen ekonomien eta garapen ekonomiko eta sozialerako programen ibilbidea.

Itun horrek bertan behera utzi zuen ongizate sozialaz arduratzen diren estatu indartsuen ideia eta, aldiz, sakondu egin zuen irekitze komertzial eta finantzarioa, alde batetik, eta desarautzea eta kapital pribatuaren sustapena, bestetik. Hain zuzen ere, bi ideia horiek bihurtu ziren herrialdeen -batez ere “garabidean“ daudenen - politika ekonomikoen ardatzak. Testuinguru horretan sortu ziren garapenaren kontzeptuaren inguruko proposamen berriak, nahiz eta oraindik ez zuten ekonomia globalaren esparrua eta *status quo*-a, eta ez zuten herrialdeen arteko elkarrekiko mendekotasun handiagoa zalantzan jartzen.

Mugimendu sozialak eta ikuspuntu alternatiboenak “garapen okerraz” hitz egiten hasi ziren, hau da, herrialde txirotuen ekintza soiletik haratago, garapen ezaren arazoak arakutzen eta elkarrekin erlazionatzen hasi ziren. Adibidez, desberdintasunaren arazoa, ekitaterik gabeko hazkuntza, ingurumenari egindako erasoak edo “intentsitate txikiko” demokrazien gaiak azpimarratzen ziren. Hau da, berreskuratu egin zen ideia hau: herrialde baten arazoek, barne arazoak izateaz gainera, kanpo-arazoak ere badituzte, gainerako herrialdeekiko botere-harremanen ondorioz (Tortosa 2008:5). “Garapen okerra” terminoa honegatik sortu zen: hainbat herrialdetan aspalditik daudela “globalizatuta” eta orokortuta pertsonen gaitzak ohartu zirelako eta, hortaz, ez dela “garatu gabeko” deritzen herrialdeen bezko fenomeno bat, baizik eta herrialdeen eta pertsonen arteko desberdintasun sakonek mundu osoan eragiten dutena.

Garapen kontzeptuaren bilakaeraren ibilbidea aztertzen jarraituz, ikusten da 1990eko hamarkadan garapenari buruzko ikuspuntu berriak agertu zirela. Ikuspegi horiek pertsonen bizitzarentzako eta gizarteentzako ardatzak diren arazoak azaleratu zituzten. Ikuspegi haietako bat “garapen jasangarria” da, eta 1987an agertu zen, Nazio Batuek aurkeztutako “Gure Etorkizun Komuna” izeneko Brundtland txostenean. Arazoaren mamia mantentze-gaitasuna da. Giza beharrianak asetzearen ideia azaltzen du, baina bi murrizketarekin: muga ekologikoak eta muga moralak. Mugarik gabeko hazkundearen ezinezkotasunaz hitz egiten hasten da, kontuan harturik etorkizuneko belaunaldien bizitza bermatzeko beharrezkoa den oreka ekologikoa.

Hamarkada horretan garapenari buruzko teoria berri bat sortu zuen Amartya Sen ekonomialariak. Teoria hori bilakatu zen mendearen amaierari eta milurteko berriari begiratzeko paradigma berria. Senek proposatzen du pertsonak direla bai *garapenaren* azken helburua, bai helburu hori lortzeko bitartekoa. Ikuspegi horren arabera, garapena da pertsonak libreaki aukeratutako bizitza bete izateko aukeren eta gaitasunen hedapen-prozesua.

Hain zuzen ere, aukeratutako eta bizitzea merezi duen bizitza aurrera eramateko giza gaitasunen hedapena oinarritzat duen garapen horren ikusmoldeari jarraituz, aldarrika dezakegu garapenaren paradigma ekonomizista gainditu egin behar dela eta, zentzu zabalean ulertutako bizi-kalitatearen garapenaren eta, batez ere, askatasunaren aldeko garapenaren alde egin behar dela. Hots, “garapena”, funtsean, aukeratutako bizitza hori gauzatzeko askatasuna da. Proposamen horrek arreta jartzen du askatasunez aukeratzeko gaitasuna eta ahalmena kendu zaizkien pertsona pobretuek askatasuna erabiltzeko duten eskubidean. NBGPren Giza Garapenari buruzko 2009ko txostenaren arabera¹¹, garapenaren ideiak aitortu behar du “giza mugikortasuna” askatasun horren ezinbesteko osagai bat dela, hau da, mugikortasunaren edo migrazioaren alderdia ere askatasuna gauzatzeko ezinbesteko osagaitzat hartzen du.

Migrazioaren eta garapenaren artean NBGPk egindako uztardura hori lotuta dago giza garapena gaitasunen hedapen gisa dakusan kontzeptuari. Erakunde horren 2009ko urteko txostenaren ardatza hau da: politikak nola izan daitezke eraginkorragoak pertsonen garapena hobetzeko?. Txostenak dio gobernuek barne-mugimenduei eta mugaz gaindikoei jarritako murrizketak gutxitu egin behar litzuketela, pertsonen aukerak eta askatasuna areagotzeko. NBGPren ekarpenek atzera botatzen dute harrera-herrialderik gehienetan migratzaileak “arazotzat” ikusteko joera. Migrazioa ez litzateke arazotzat hartu behar, eta politikak ez lirateke kontrol-neurri zentzatzailletara mugatu behar. Aitzitik, politikak baliagarri izan behar lukete pertsonen askatasuna zabaltzeko bideak irekitzeko, giza eskubideen errespetuaz arduratzeko, migrazioaren transakzio-kostuak murrizteko edo nazioaren garapen-estrategietan migrazioa ere kontuan hartzeko. Egungo testuinguruan, migrazioa elementu zentrala dela dio, “garatutako” herrialdeen garapenerako zein garatze bidean daudenentzako. Agian, ekarpenik interesgarrienetako bat hau da pertsona batek bizilekuz aldatzeko gaitasunaren aldeko apustu irmoa. Txostenak dio bizileku-aldaketa oso eraginkorra izan daitekeela pertsonaren diru-sarrerak eta osasun- eta hezkuntza-aukerak handiagotzeko, baina, aldi berean, aitortzen du garapenerako mugikortasunaren balioa ez dela esparru horietara mugatzen, baizik eta “bizilekua hautatzeko aukera giza askatasunaren oinarritzako alderdi” gisa hartu behar dela.

Horrenbestez, garapenaren eta migrazio-mugimenduen arteko konexioak etengabe eztabaidatu eta berrikusten dira. Zenbat eta migrazio handiagoa garapen handiagoa aurreikusten zuen formula klasikoaren aurrean, garapena bera dela migrazio handiagoa eragiten duelako ideia indartu egin da. Gaur egun, migrazioak

¹¹ Nazio Batuen Garapen Programa, Giza Garapenaren 2009ko Txostena, 8. or.

garapenari lagun diezaioketen faktore garrantzitsua direlako ideiak indarrean dirau, batez ere kontuan hartzen badugu jatorrizko herrialdeen garapen ekonomikoan lagungarri garrantzitsuak direla migratzaileen diru-bidalketak. Hala ere, hurrengo atalean sakonago aztertuko dugunez, ikuspegi hori soilik ekonomizista da eta produktibitateari baino gehiago diruaren zirkulazioari ematen dio garrantzia (Salazar). Halaber, beste ikerlan batzuen arabera, jatorrizko herrialdeen garapenari egindako ekarpena marjinala da eta migratzaileen ekarpenak handiagoak dira harrera-ekonomientzat. Delgado *et al.*-k (2009) baieztatzen dutenez, migrazioaren eta garapenaren arteko loturari buruzko egungo ikusmolde nagusiek nazioarteko migrazioek jatorrizko lekuei eta herrialdeei egindako ekarpena azpimarratzen dute, baina, tesi horiek ez dituzte kontuan hartzen migrazioen zergatiak eta migrazioek garapenari egindako ekarpenik handienak -hein handi batean- harrera-herrialdeetako ekonomientzat izan direla¹².

Bestalde, jotzen da eskualde igorleen garapena izango dela, hain zuzen ere, balizko migratzaileak herrialdetik irteteko joeratik geldiaraziko dituen, epe luzean. Horri jarraituz, migrazioa prebenitzeko tresna gisa garapenerako lankidetzaren proposatzen duen diskurtso bat sortu da. Garapenerako laguntza- eta lankidetzaren politiketara aditzera ematen duten txirotasun/migrazio/garapen erlazio ezagunak ez du isla garbirik berariazko kasuetan. Gaur egun, nahiko garbi dago migratzen dutenak ez direla pobreenak eta, aldi berean, Europaranzko edo Estatu Batuetaranzko migrazio-fluxu nagusiak ez datozela herrialderik txiroenetatik. Alde horretatik, Gómez Gilek (2005) aipatzen duen moduan, migratzaileak etxea uztera bultzatzen dituzten itxaropenak eta gogoak ezin dira bete Mendebaldeak proposatutako garapen- eta lankidetzaren aukeren bidez. Agian hain begi-bistakoak izan ez arren, lana bilatzetik haratago migrazioa sustatzen duten hainbat elementu daude: etorkizun-aukerarik ez izatea, eskubiderik ez izatea eta aitortzea, berdintasunezko traturik ez izatea eta abar. Bestalde, migrazioa prozesu nagusiki sozializatzen hartzen badugu, ikusiko dugu hainbat familiak, diru-sarreraren minimoak izan arren, diru-sarrerak dibertsifikatu egiten dituztela familiako kide bat kanpora bidalita.

Nyberg-Sorensen (2002) eta beste hainbat egilek aipatzen dutenez, sarritan, garapen-laguntzek “erakuste-efektua” bat sortzen eta migrazio handiagoa eragin dezakete, hau da, beita erakargarri bilaka daitezke, jatorrizko herrian geldiarazteko mekanismo bat izan beharrean. Ekoizpenean eta kontsumismoan oinarritutako eredu horrek, irtenbidea ez izateaz gain, baliabide naturalak xahutzea, hondaki-

¹² Gai horretan sakontzeko, ikus: “*Seis tesis para desmitificar el nexo entre migración y desarrollo*”, Delgado Wise Raúl, *et al.*, 2009.

nak areagotzea, kutsadura handiagotzea, harremanak merkatu-gai bilakatzea eta banaketa soziala eragin ditzake. Jakina, ez da proposatzen garapenerako lankidetzeta eta laguntzak albo batera uzterik, baina bai lankidetzeta hori ez aurkeztea migrazio-fluxuak geldiarazteko neurri nagusi gisa, eta, horren ordean, haren jatorriko helburua berreskuratzea, hots, pertsona guztien giza garapena sustatzea eta dagokien askatasunen eta gaitasunen garapena bultzatzea. Izan ere, egiaztatu dugu hainbat erakundek -estatu mailakoak zein autonomikoak - lankidetzeta erabili nahi dutela migrazio-fluxu horiek “geldiarazteko”, dela “zenbat eta lankidetzeta handiagoa, orduan eta migrazio txikiagoa” eslogan inozoari jarraituz, dela lankidetzarako funtsak mugak kontrolatzera bideratzearen bidez. Arrisku handia dago garapenerako laguntzak jatorrizko edo zirkulazioko herrialdeekin truke-txanpon gisa eta migrazio-politikak eta muga-kontrolak gogortzeko erabiltzeko, jatorrizko helburuak -giza garapena bultzatzea eta txirotasunaren kontra borrokatzea - sustatzeko erabili ordean¹³.

Beharrezkoa da, hortaz, **migrazioaren eta garapenaren kontzeptuak lantzeko ikuspegi berri bat**: mendekotasun-harremanak aztertzen dira, baina *mendekotasuna* ez da hartzen mundu mailako lan-zirkulazioaren eta -sistemaren alorreko truke desorekatu baten emaitzatzat, baizik eta, bereziki, ekoizpen- eta erreproduzio-estrategia ez-kapitalistaren ugalketa gisa, bai jatorrizko lekuetan bai helmugako gizarteetan. Migrazio-fluxuak ez dira eskulan-aldaketa hutsa egiten den noranzko bakarreko fenomenoak. Migrazio-fluxuen prozesu konplexu hori dibertsifikatu egiten da, merkatu kapitalistan txertaketa- eta artikulazio-modu berriak garatuz eta sortuz. Hortik aurrera, Giménezek (2006) dioten moduan, migrazioaren eta migratzailearen ikuspegi positiboago bat sortzen hasten da, hots, norabide anitzeko estrategia eta lotura horiek dira, hain zuzen ere, garapenean zuzeneko eragina izan dezaketenak, jatorrizko lekuen garapenean ez –ezik, baita helmuga-gizarteetan ere.

2.2.2. Diru-bidalketak eta inmigrazio mugimenduak: garapenerako aukera?

Migrazioaren eta garapenaren arteko loturei buruz idatzitako ikerlanetan, asko aztertu den gaia dira jatorria eta helmuga uztartzen dituen diru-bidalketak edo -transferentziak. Bestalde, ikerketa-eremutik kanpora, diru-bidalketak eta haien kontrola beste hainbat erakunderentzat giltzarri bilakatu dira, esaterako: hainbat herrialderentzat diru-bidalketak bilakatu dira bere dibisa-sarrera nagusi; bestalde,

¹³ Espainiako lankidetzeta-politikaren eta migrazio-fluxuen arteko loturari buruzko informazio sakonagoa nahi bada, ikus: “*Políticas de control migratorio y de cooperación al desarrollo entre España y África Occidental durante la ejecución del primer Plan África*” txostena, 2011. Alboan-Entreculturas arg., Bilbo.

jatorrizko zein harrera-herrialdeetan ere, banku eta aurrezki-kutxentzat eta diru-transferentzien eragileentzat (lokutorioak, dendak, tabernak, etab.) garrantzizkoak bilakatu dira.

Hasieran zentzurik ohikoenean, migratzaileek helmugako herrialdetik jatorriko herrialdera egindako diru-sarrerak dira bidalketak. Alde horretatik, diru-bidalaketak egiteko bitartekoaren arabera “bidalketa ofizialak” (bankuen, aurrezki-kutxen, posta-bulegoen eta antzeko kanal formalen bidez egindakoak) eta “bidalketa informalak” (senideen, lagunen edo ohitura kultural jakin batzuen bidez egindakoak) bereizi behar dira.

Gómez Gilen arabera (2008), oro har hitz eginda, diru-bidalketak kapital-fluxu egonkorragoak eta jarraituagoak dira atzerriko inbertsioak -adibidez- baino. Bestalde, ez daude nazioarteko programen arauetara lotuta eta, gainera, ez dira interesak ordainduz itzuli behar. Hortaz, aditu honen arabera, migrazioak zuzeneko garapen-faktore bilakatzen dira.

Aipatutako hausnarketa horrek bidalketen alderdi ekonomikoa baino ez du aztertzen, eta osatu gabe gelditzen da. Izan ere, bidalketak, besteak beste, hau dira:

“urrunduta dauden pertsonen eta familien arteko lotura sozialak eta elkartasuna migrazioen bidez gauzatzen duen elementu bat; herrialde batzuk beste batzuekin lotzen dituen dirua periodikoki bidaltzen duten etorkinen bidez” (2008:108).

Edozein jarduera ekonomikoren alderdi sozial eta kulturaletan arreta jarrita, bidalketa zer den zehazteko Giménez *et al.*-ren (2006) definizioak osatu egiten du aurrekoa, eta arlo ekonomiko hutsari begiratzen diogunean albo batera uzten ditugun beste alderdi batzuetara hurbiltzen gaitu. Giménez *et al.*-ek honela definitzen dituzte bidalketak:

“Jatorrizko herrialdera edo herrialdetik migratzaileek bidaltzen edo jasotzen dituzten transferentzia material zein ez-material guztiak. Transferentzia horiek hainbat motatakoak izan daitezke, hala nola dirua, produktuak, teknologia edo ideiak eta balioak” (2006:23).

Ikuspegi hori zabalagoa eta integratzaileagoa da, eta bidalketen esanahi sozial eta kulturalera hurbiltzeko bidea ematen digu. Jatorriaren eta helmugaren arteko lotura eta konexio-modu nagusi gisa bidalketak hartzea, hortaz, garrantzi handikoa da ikuspegi horretatik. Jatorriko herrialdeen testuinguru historikoak garrantzi berezia dute bidalketek zer esan nahi duten eta komunitate jakin batzuetan zer eginkizun duten

ulertzeko. Jatorriko herrialdeen migrazio-historiaren denbora-sakontasunak, era be-rean, tokiko ekonomien eta ekonomia globalen arteko konexioa ere erakusten digu.

Jatorria eta helmuga uztartzen dituen ikuspegi hori da, hain zuzen ere, ikuspuntu “transnazional” gisa definitu duguna, eta, migratzaileek bidalketen inguruan ga-ratzen dituzten jarduerak ulertzeko garrantzitsua da. Alde horretatik, lurzoruak edo etxeak eta ibilgailuak erosteko diru-bidalketak erabiltzea edo harrera-herrial-deetatik familia-ospakizunak diruz laguntzea, esaterako, migratzaileak jatorriko komunitatearekin dituen partaidetza-loturak berritzeko eta mantentzeko meka-nismotzat hartu behar dira. Diru-bidalketa horiek etxeak, autoak eta opari gares-tiak erosteko edo ospakizunak diruz laguntzeko erabiltzea da, bestalde, aitortza eta ospe soziala lortzeko bide nagusia. Jatorriko herrialdeetan, pertsona bakoit-zak estatus sozial bat du eta estatus hori etengabeen mantendu eta berriztu be-har da. Estatus hori da, bestalde, migratzaileen familiak bereizten dituen atera-zerik izan ez duten familietatik (Goldring).

Bidalketen (hots, transferitutakoaren) edukiak aztertzen direnean, Giménez *et al*-k (2006) bereizi egiten dituzte giza kapitalaren transferentziak eta kapital sozialare-nak. Proposamen horrek garrantzi handia du gure proiektu honen helburuarentzat. Izan ere: Lehenik eta behin, migrazioaren eta garapenaren arteko balizko konexioe-tara berriz itzularazten gaituelako eta, bigarrenik, normalean aztertzen ez diren al-derdiak ere lantzen dituelako. “Giza kapitala” terminoarekin, liburuaren egileek mi-gratzaileek harrera-herrialdeetan hartutako trebetasunak, ezagutza, prestakuntza eta abar adierazten dituzte, baita jatorrizko gizarteetara transferi daitezkeenak ere, migratzailea itzulita zein itzuli gabe. Bourdieuren kapital sozialaren definizioa oina-rri hartuta, ikertzeko alor garrantzitsu gisa agertzen zaigu “kapital soziala”:

“testuinguru sozioekonomiko, kultural eta politiko anitzetan pertsonen arteko harremanak eta lotura sozialak eraikitzeke eta elikatzeko pertsonen jasotako gaitasuna. Hortaz, azertu beharrekoak dira, besteak beste, migratzaileek kanpoan hartutako hizkuntza-gaitasunak, hainbat kulturatako jendearekin el-karreragiteko eta lan egiteko gaitasuna, eta kanpoko arau, ohitura eta balioen ezagutza” (2006:31-32).

Azkenik, bidalketei dagokienez, eztabaida akademikoa sortu da bidalketen eragin positiboetara eta negatiboetara buruz, eta bidalketa horiek garapenarekiko pizgarri izan litezkeen. Alderdi negatibo gisa, azpimarratu da diru-bidalketak jasotzen dituzten herrialdeek arrisku handiak hartzen dituztela, kanpoko kapitalarekiko gero eta mendekotasun handiagoa dutelako. Bidalketei emandako erabilerari buruz aipa-tzen den beste alderdi negatibo bat da diru hori etxeetan kontsumitzeko bidal-

teza. Izan ere, kontsumo hori sarritan irrazionaltzat edo xahuketatzat jotzen da. Bestalde, diru-bidalketa horiek kontsumo hutserako erabiliz gero, jatorriko herrialdean inflazio-prozesuak eta ondasunen inportazioa gehitzea eragin ditzake. Eragin horretaz gainera, desberdintze eta bereizketa sozioekonomikoko prozesu oso handiak gerta daitezke jatorrizko herrialdeetan.

Ikuspuntu baikorrago batetik, jatorriko herrietan bidalitako diruarekin egiten dena irrazionala ez izateaz gainera, tokiko merkatuen bizkortze ekonomikoa ere eragin dezakeela aipatzen da, herrialdeko ondasunak kontsumitzen baitira. Abadek (2004) aipatzen du arazoa ez dela bidalketa horiek kontsumorako edo, alderantziz, inbertsiorako erabiltzen diren, baizik eta egindako kontsumoa tokiko produktuak erosteko egindakoa den edo inportatutako ondasunen kontsumo nabarmen baten aurrean gauden. Beste alde batetik, aurrerago aztertuko dugunez, jatorriko herrietan garapen-proiektuak diruz laguntzeko bidalketak, migratzaileen komunitate askorentzako elementu nagusi bilakatzeaz gainera, nazioarteko beste hainbat erakunderentzako ere elementu garrantzitsu bihurtu dira, hala nola Munduko Bankuarentzat eta Garapenerako Banku Inter-amerikararentzat. Abadek (2004) azpimarratzen duenez, gai horretan ahalegin berezia egin behar da bidalitako diruarekin familiek egitea erabaki dutena errespetatzearen eta bidalketetako dirua aurrezpena eta produkzioarako inbertsioa sustatzen duten jardueretarako erabiltzearen arteko adostasuna sustatzen.

2.2.3. Baterako garapena: migrazioaren eta garapenaren arteko lotura berria?

Baterako garapenaren kontzeptuak berez dituen anbiguotasunak azterlan honen hasieratik aipatu ditugun arren, ezin dugu albo batera utzi, kontzeptu horrek erakundeen, GKEen, migratzaile-elkarteen eta abarren artean zabalkunde eta erabilerazabala baitu, eta aztertu beharra dugu. Era berean, aitortu behar da gaur egun baterako garapenarekin erlazioz gauden planteamendu eta jardueraz askok potentzial handia dutela eta aurrerapausoak direla.

Aurrerago esan dugunez, egile askok aipatzen dute kontzeptu nolabait anbiguo baten aurrean gaudela. Baterako garapenaren kontzeptuari askotariko esanahiak eman zaizkio. Horrela, oro har, baterako garapena terminoa erabiltzen da, migratzaileen jatorriko eskualdeetako tokiko garapena sustatzeko asmoz, herrialde hartzaileetatik zuzendu eta diruz laguntzen diren proiektu eta programak izendatzeko. Halako proiektuetan, migratzaileen elkarteek proiektuetan parte hartzea bultzatzen da. Baterako garapenaren esanahi zehatz horrez gainera, Abadek esanahi zabalago bat proposatzen du, hots: *“immigrazio-politikak eta*

garapenerako lankidetza-politikak sustatzeko eta bateragarri bilakatzeko baliagarri izan behar duen printzipioa” (2004). Esan dezakegu baterako garapena bi fenomeno hauen bidegurutzean dagoela: alde batetik, iparra-hegoa desberdintasun gero eta handiagoa eta nazioarteko lankidetzaren eragin itxuraz txikia, eta, bestetik, egungo migrazioak. Bi gai horiek, oro har, beti aparte landu izan dira, inolako konexiorik gabe.

Baterako garapenaren sorrera hirurogeita hamarreko hamarkadan koka litekeen arren¹⁴, Sami Naïr-ek 1997an egindako proposamena erabiltzen da liburuetan, erreferentzia gisa. Lehenengo eta behin, proposamen horrek **migrazioak eta garapenerako lankidetza** uztartzen ditu, eta pertsona migratzaileak aurkezten ditu garapenerako lankidetza-programen eragile nagusi gisa. Giménez *et al.* (2006:42-43) lanaren egileek berrikuntza gisa azpimarratzen dituzte Sami Naïr-ek proposatutako ereduaren helburu diren bi printzipioak: *erantzukizun partekatua* eta *elkartasuna*. Erantzukizun partekatuaen ideiak onartu egiten du migrazio-fluxuak ez direla jatorrizko herrialdeek sortutakoak, eta fluxu horien erantzukizuna ez dela eskusiboki jatorrizko herrialdeena. Ideia horretatik sortu dira migrazio-fluxuen baterako kudeaketarako politikak. Politika horiek estatuen arteko baterako garapenerako hainbat hitzarmen eta akordiotan garatu dira. Elkartasunak, bere aldetik, bi gizarteentzako -jatorrikoa eta helmugakoa - aberastasun-aukera gisa hartzen du migrazioa, garapenarekin uztartzen den heinean.

Dena den, eta printzipio horiek laudagarriak izan arren, ezin da ukatu hitz horien atzean migrazio-fluxuak kontrolatzeko asmo garbiak ezkututzen direla:

“migrazioak garapen-bektore bilakatzeko filosofia orokorraren azpian, migrazioak kontrolatzeko, migrazioen hazkuntza saihesteko eta lan horretan herrialde igorleak konprometitzeko asmo garbia ezkututzen da” (Gómez Gil 2008: 41).

Alde horretatik, Europara migratzaileen sarrera geldiaraztera eta mugatzera bideratutako lankidetza gisa aurkezten da, sarritan, baterako garapena. Gainera, lankidetza horrek baldintzak ditu: jatorrizko herrialdeek mugak kontrolatzeko lanean, mafien kontrako borrokan eta abarretan lan egin eta parte hartu behar dute. Kasu horretan, hortaz, erantzukizun partekatua kontrol-ikuspegitik baino ez da ulertzen. Bestalde, migratzaileak edo migratzaile-elkarteak garapenaren eragile nagusi bilakatzeak berarekin dakar derrigortasunaren ideia, eta, ondorioz, mi-

¹⁴ Gai horretan sakontzeko, ikus Gómez Gil (2008). Aipatu beharrekoa da laurogeita hamarreko hamarkadan Lovainako Unibertsitateko (Belgika) mintegi batean egindako *“Les assises du codéveloppement”* proposamena.

gratzaileen egoera mugikorra kontuan hartuta, dagozkien jatorrizko herrialdeen garapenerako lankidetzaproiektuetan parte hartzeko berehalako erantzukizuna hartzen dute (Royo 2008); hots, migratzailearen itzuleraren ideia berarekin dakarren erantzukizunaz ari gara. Azken batean, badirudi migrazioa geldiarazteko tresna bilakatzen dela baterako garapena. Izan ere, jatorrizko herrialdeen garapenarekin bultzatu nahi da balizko migratzaileek irteteko arrazoirik ez izatea (Abad 2004; Lucas 2002). Aurretik esan dugun arren, ezin dugu esan gabe utzi baterako garapenarekin ikuspegi horrek bere baitan duen ideia: zenbat eta handiagoa garapena, orduan eta txikiagoa migrazioa.

1999an, Europar Batasunaren migrazio-politikak baterako garapenaren kontzeptua erabili zuen Tampereko Europako Kontseiluan. Hitz horren aipamena egiten da jatorrizko herrialdeekiko lankidetzaharremanen eta Europar Batasunaren migrazio- eta asilo-politiken garapenaren arloan barruan. Tamperetik aurrera, eta, hein handi batean, eredu frantsesaren itzalpean, baterako garapena terminoa Partido Popularraren gobernuak 2001-2004 urteetarako onartutako GRECO programan (Programa Global de Regulación y Coordinación de la Extranjería y la Inmigración en España) agertu zen lehenengo aldiz Espainian. Hala ere, programa hori ez zen inoiz indarrean jarri, eta 2004an indargabetu egin zen, sozialistekin etorri zen gobernu-aldaketarekin batera.

Hortik aurrera, eta Atzerri Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioaren zuzendaritzapean, kontzeptu hori garapenerako lankidetzatresna ofizial garrantzitsuetan erabili da, hala nola: Espainiar Lankidetzarako Plan Zuzendarian eta ministerio horrek landutako baterako garapenaren inguruko akordioan.

Esparru autonomikoari dagokionez, baterako garapena hainbat formatan gauzatu da. Migratzaile-taldeak jasotzeko tradizioz handieneko autonomia-erkidegoetan -Valentzia, Katalunia edo Madril -, migratzaile-elkarteak lankidetzagarapenerako ekimenetara lotzen dituzten programa eta politikak sustatzen hasi ziren. EAERI dagokionez, 2002an onartu zen lehenengo Immigrazioaren Euskal Plana. Plan horretan, baterako garapena jarraibide gisa aipatzen zen, eta, kontzeptu hori garatzen ez zen arren, dagoeneko ikusten zen gai hori sustatzeko intentzioa.

2007-2009 aldirako onartutako Immigrazioaren II. Euskal Planak ere baterako garapenari eskainitako berariazko atal bat du baina ez dio lehenengo Planak baino eduki gehiagorik eskaintzen. Era berean, baterako garapena arin aipatzen da Eusko Jaurlaritzaren 2005-2008ko Garapenerako Lankidetz Plan Zuzentzailean eta Garapen-Lankidetzarako Plan zuzentzailean 2008-2011, baina oraindik ez da ildo hori lantzeko ekintza zehatzik finkatu.

Tokiko erakundeen esparruan, Administrazio Publikoetatik garatutako ekimenak aurki ditzakegu. Horren adibide bat da Bilboko Udalaren Lankidetzarako II. Plan Zuzentzailea. Plan horretan, baterako garapena jasotzen da jatorrizko herrialdeetara lotutako migratzaile-elkarteek gidatutako garapen-prozesuak sustatzeko ekimen gisa. Aurrekoa ekintza-tresna batean gauzatzen da, elkarteen proiektuak, prestakuntza eta aholkularitza diruz laguntzeko berariazko deialdi bat jasotzen duena.

Lankidetzaren eta immigrazioaren esparruan ekimen berritzaileak sustatzen ari den beste udal bat Gasteizkoa da. Udal horren 2010-2013ko Plan Zuzentzailean jarraibide bat jasotzen da hiriko migratzaile-elkartekin lotutako lankidetzaproiektuak sustatzeko. Plan horretan saihestu egin da baterako garapena kontzeptua erabiltzea, eta planaren helburua da elkarteetan bertan sortutako garapen-ekimenak laguntzea eta elkarte horiek hiriaren lankidetzera-eragile bilakatzea. Jarraibide horren ideia nagusia da ekintza horiek elkartasuna sustatzeko adierazpide gisa erabiltzea; elkartasuna elkarte-esperientzia gisa eta tokiko garapenaren sostengu-adierazpide gisa ulertuta.

EAEko beste zenbait udal ere ari dira migratzaile-elkarteak lankidetzadeialdieta-
ra aurkeztera laguntzen eta bultzatzen. Zenbait kasutan orientabide garbirik ez duten arren, aitortu behar da halako ekimenek izan dezaketen potentziala. Administrazioei, elkarteei eta, oro har, lankidetzaren munduari erronkak mahaigaineratzen dizkieten esperientzia hasiberriak dira.

Hori esanda, eta aurrerago esan dugun moduan, gure ustea da baterako garapenaren kontzeptua oraindik sortze-bidean dagoela eta esanahi ugarikoa dela. Izan ere, baterako garapenaren babespean oso ezaugarri desberdinetako ekintza instituzionalak eta saiakuntzak egiten dira gobernu-esparruetatik eta gizarte zibiletik. Asmo eta etorkizun handiko planteamenduak ditu, baina, arlo praktikoan, haren jardue-
ra-aukerak oso mugatuta daude. Aurreko orrietan aipatu dugunari jarraituz, baterako garapenaren balizko potentzialtasunak erakutsi eta gauzatzeko oinarritzko elementu bat badago, eta elementu horren funtsezko garrantzian bat datoz egile desberdinak (Gómez Gil 2005; Giménez et. al. 2006; Abad 2004; Atienza 2004). Hau da elementu hori: **migratzaileen protagonismoa eta partaidetza aktiboa.**

3. Helmuga puntuak

Elkarrizketatik eta hausnarketa amankomunetik ateratako emaitzak



Kapitulu honetan, ekarpen guztien aniztasuna integratzen saiatu gara ; izan ere, ekarpen bakoitzean ahalegina egiten da parte-hartzaile bakoitzak eta haien elkar- teek migrazio-esperientzien garapenari buruz duten iritzia eta migrazioarekiko duten harremana adierazteko. Ikerlan honetan, lehentasuna eman zaio eztabaida- ri eta taldeko hausnarketari, egiaz “garapentzat” zer hartzen den eta “garapena- ren” bidez zer lortu nahi den. Garapen hori lortzeko tresnei buruz eztabaidatu da, eta, horrez gain, pertsona migratzaileen kolektiboek laguntzeko ekintzak sustatze- ko nolako mekanismoak sortu eta/edo zuzendu behar diren ere eztabaidatu da.

Azaldu den bezala, talde fokalen lehen faseak galdera honi heldu zion batez ere: **zer garapen nahi dugu guk, pertsona migratzaileok?** Erantzunak zabalak eta askotarikoak izan ziren; hala ere, denak egokitu ziren lantegiek metodologikoki proposatu zituzten erreferentziarako eremuaren barruan. Horri esker, proposatutako ahalmenen kategoria bakoitza oinarri hartuta ordenatu ziren emaitzak.

Elkarrekin egindako topaketen helburu nagusia hau izan da: guztion artean he- men eta gure jatorrizko herrialdeetan eraiki nahi dugun garapenari buruzko ikus- puntuei buruz hitz egitea. Beharrezkoa da azpimarratzea hemen aurkeztuko diren erantzunek ñabardura ugari dituztela. Parte-hartzaile bakoitzaren biografiaren oi- narrizko ezaugarriek hausnarketa baldintzatzen dute. Taldeka egindako jarduketek abstrakzio-ariketa bat izan nahi zuten, baina, horrez gain, norberaren esperientzia- tik abiatutako ikuspuntuak ere jaso nahi zituzten. Jatorriaren, sexuaren, adinaren, erlijioaren eta kultura-identitatearen arabera zehazten den testuinguru batean ko- katzen dira esperientzia horiek. Era berean, ezin ditugu aipatu gabe utzi migrazio- prozesuaren alderdi nagusiak, hala nola helmuga-herrialdeko administrazio-bal- dintzak, lan-egoera eta helmuga-herrialdean zenbat denbora egongo diren.

3.1. Zer hartzen dugu garapentzat?

Migrazioaren eta garapenaren artean dagoen lotura askoz zabalagoa eta konple- xuagoa da lotura hori aztertzean erabili den ekonomia-arrazionaltasunak ager- tzen duen baino. Guk lortu nahi dugun giza garapenak askoz dimentsio zabalago- ak ditu, bizirauteko edo nolabaiteko “ongizatea” lortzeko beharra baino

haratagokoak. Gure ustez, lortu nahi dugun garapena prozesu bat da, behar materialak betetzeaz gain, duintasunarekin eta bizitzaren zentzuarekin zerikusia duten giza behar sakonagoak betetzea inplikatzeko duena.

Martha Nussbaumek giza garapenean identifikatu dituen kategorietan oinarrituta proposatzen dugun matrizea tresna baliagarria izan da elkarte parte-hartzaileekin landa-lana egiteko.

Oinarrizko giza ahalmenak talde hauetan banatu ziren: ongizatea, babesa eta segurtasuna, bizikidetzeta, parte-hartzea, afektua eta identitatea. Parte-hartzaileek esan duten bezala, ahalmen horien artean lotura estua, sakona, sare-formakoa eta, horrenbestez, erlazionala dago. Hori dela eta, hemen aurkeztutako emaitzak analisi-kategorien arabera ordenatuta daude. Horri esker, garapenari buruzko hausnarketan, irakurketa zabalagoa eta osoagoa egin ahal izango dugu gero.

Ongizatea

Ongizatezat hartzen da duintasunez bizitzeko aukera izatea. Taldeko hausnarketan, “ongizatea”ri dagokionez zer garen, zer daukagun eta zer egiten dugun bereizi nahi izan dugunean, egia da erantzunek gai material objektiboak aipatzen zituztela, hala nola lana, etxebizitza edo herrialdean egoera legalean egotea. Hala ere, elementu askoz ere subjektiboago batzuk ere agertu ziren, jakitearekin, izatearekin edo nolabaiteko ongizatea izateko aukera ematen duten bizi-jarrerekin lotutakoak. Ildo horretan, elkarteetako batek nabarmentzen du nahiak, helburuak edo ametsak banaka zein taldean izateko gai direnean dutela pertsonek ongizatea.

Zenbait elkartek lana hartzen zuten ongizatearen elementu gaketzat. Pertsona batzuen ustez, lana duintasunarekin lotuta dago; hau da, edozein lanek eta edozein baldintzetan ez du aukera ematen bizitza on bat izateko. Atzerritarrei herrialdean duten administrazio-egoerak eragiten dizkien zailtasunak ere etengabe aipatu ziren. Zenbaitetan, eztabaidaren arreta gai honetara bideratu zen: administrazio-irregulartasun horrek “legez kontrako” bihurtzen ote zituen, ala lana lortzeko aukerak baldintzatzen dituen gertaera bat baino ez den, batere eragin gabe beren buruaren aurrean eta gizartearen aurrean duten “izanari”.

Ongizateari buruzko hausnarketan, krisiaren mehatxua etengabe aipatu da. Zehazki, lan-baldintzen ezegonkortasuna eta lan-gabezia dela eta, krisia eragin larria izaten ari da pertsona migratzaileengan. Egoiliar-egoera lanaren mende ez duten pertsonek ere diote krisiak bereziki eragiten diela pertsona migratzaileei. Esate baterako, etxe-zerbitzuan dabiltzan emakumeek ikusten dute bertako emakumeak

ari direla lan hori eskatzen, eta, orain, lana bilatzeko zailtasun handiagoak dituztela. Emakume musulmanek esaten dute lanean diskriminatu egiten dituztela beloa erabiltzeagatik. Arazo hori ageria da haientzat krisia izan nahiz ez izan. Marokoar jatorriko gizonen ustez, lana bilatzeko zailtasun handienak beraiek dituzte. Eraikuntzan lan egiten zuten gizonek ez dute krisi-garaian irtenbiderik ikusten, eta badakite lan-postuen eskaintza txikia izanda aukerak murriztu egiten direla.

Lanaren inguruan, identitateari lotutako ideia ugari agertu ziren. Pertsona migratzaile askori ez dizkiete beren espezialitateak eta egiaztagiriak aintzat hartzen, eta hori arazo bat da. Pertsona migratzaileen ustez, arazo hori, hizkuntzaren oztopoa eta beste kontu kultural batzuk direla eta, gutxiago irabazten dute espezializazio bera duten bertakoek baino, edo bigarren mailakotzat hartzen dituzte lanpostu bat edo iguera bat lortzeko garaian.

Etxebizitzari dagokionez, etxe bat errentan hartzeko aukera aipatzen dute, edo hemen eta/edo jatorrizko herrialdean jabetza-eskubideak izateko aukera. Zalan-tzarik gabe, helburu-herrialdean denbora gehiago daramaten eta legezko egoera eta lan-egoera egonkortzea lortu duten pertsonak soilik azter dezakete etxebizitza bat erosteko aukera.

Merkataritza-jarduera transnazionaleri dagokienez, senegaldarrek egin dute ekarpena, eta bi parte-hartzailek banaka eta erdi-taldeka egin dituzten merkataritza-praktikak ere kontatu dituzte. Jarduera hori diru-sarrerak sortzeko aukera gisa nabarmendu da, eta, horrenbestez, haientzat eta familientzat ongizatea lortzeko aukera gisa.

Ongizatearen alderdi subjektiboari dagokionez, hiru elkarte bat datoz honetan: beharrezkoa da jarrera positiboa izatea, gizakiaren duintasunarekiko errespetua izatea, lanerako prest egoteko jarrera izatea, trebatzeko eta prestatzeko jarrera izatea. Bi elkartetan azpimarratu zuten komunitate-eginbeharrak bete beharra ongizatea lortzeko.

Gehiegi sakondu ez zen arren, eztabaidan hau ere aipatu zen: gizartean beharrezkoa da gobernuek pertsonen oinarrizko eskubideak babestuko dituzten politika publikoak egitea, gizartearen babesa izatea, lan-eskubideak zaintzea eta, Estatuaren funtzio gisa, herritarrei osasuna eta hezkuntza eskaintzea.

Babesa eta segurtasuna

Babesaren eta segurtasunaren kategoriari dagokionez, galdera hau azaldu zen lehenik: zer da babesa eta segurtasuna eta zein da hura lortzeko biderik hobena? Elkarrekin, funtsean, ideia hauekin lotzen zuten babesa eta segurtasuna: osasun-

sistema, agiriak izatea (legezko administrazio-egoera), eskubideak (lanekoak) eta etxebizitza. Etxebizitza oraingo bizitzarekin lotzeaz gain, jatorrizko herrialdean ere etxebizitza izateko aukerarekin lotzen zuten.

Idea horien inguruan, elkarteek zenbait elementu sakondu zituzten, eta hiru titulu handitan antola daitezke:

- Ingurumenaren babesa eta segurtasuna hondamendi natural bat edo giza-kiak eragindako hondamendi bat (kutsadura, klima-aldaketa, baso-soiltzea, lurzoruaren ustiapena) gertatzen denean behar den babesa da. Bi pertsonak aipatu dute segurtasun-mota hori. Jende askok bizi dituen urrakortasun-baldintzak identifikatzen dituzte bi pertsona horiek. Halako baldintzen eraginez, jendea jatorrizko lekutik alde egiten du, herrialdearen barruan edo kanpora migratuz.
- Elkarteek balorazio altua ematen diote osasun publikoaren babes-sistemari. Kasu jakin batzuk kenduta -arrazismoa eta diskriminazioa aipatu duten kasuak -, pertsona guztiek onartu dute osasun-arretan zerbitzu ona jaso dutela. Era berean, gaixotasunak prebenitzeko osasun-politikek balioespen altua jaso dute.

Emakume musulmanen ustez, ez dute jasotzen eskatutako arreta espezializatua, osasun-zerbitzuak elikadurarekin eta erlijio-adierazpenarekin lotzen baitituzte. Emakume musulmanen arreta ginekologikoari dagokionez, gizonen ez baizik emakumeek artatzearen egokitasunaz eztabaidatu da. Emakumeek berek diote baldintza hori, segurtasunaren kategoriaren baitan, benetan bizikidetzaren ezaugarri bat izan beharko litzatekeela; hau da, emakume musulmanen espezifikotasuna kontuan hartuko beharko litzatekeela, mediku-zerbitzu jakin bat behar baitute.

Laburbilduz, migrazioaren eta osasunaren arteko lotura konplexua da. Pertsona migratzaileen osasuna lekualdatzearen eta ondoko birkokatzearen aurretik izandako banakako aurrekarien arabera da (NBGP 2009, 63). Pertsona gehienek diote osasun ona dutela, migratu baino lehen gaixo zegoen pertsona batek izan ezik, tratamendu etengabea behar duena. Emakume batzuek antzeman dute osasunean hasieran dituzten abantailak desagertuz doazela denboran zehar, hein handi batean lan-baldintzak eta bizitza-ohiturak osasun onarekin lehian daudelako. Halaber, familiarik banantzeak eta gizarte-sareek, bai eta lan-segurtasunarekiko ziurgabetasunak ere eragina dute.

- Bizitzako segurtasun- eta egonkortasun-sentimenduari dagokionez, Afrika-ko pertsona batzuek diote gauzak ez direla jatorrizko herrialdetik alde egin

baino lehen pentsatzen zuten bezalakoak. Bestalde, etorkizunaren inguruan beldurra dago. Bestetik, nolabaiteko poza ere sentitzen dute lekuz eta etxez aldatzean orain arte lortu dutenagatik. Migrazio-esperientziak segurtasun-eta babes-itxaropenak bete ote dituen esateko orduan ez dago adostasunik elkarteen artean.

Bukatzeko, pertsona guztiek diote bakea -barnekoa nahiz kanpoko- garatzea ezinbestekoa dela. Pertsonak estatuaren eta/edo talde armatuen indarkeriatik salbu egoteko eskubidea dute. Bestetik, adierazten dute jatorrizko herrialdeetan demokrazia eraginkorrik ez izatea oztopo bat dela pertsona askoren segurtasun eta osotasun fisikorako, eta giza garapenerako. Nikaragua, Txile, Argentina, Kolonbia, Senegal eta Angolako egoera politikoa aipatu da.

Lantegietan, ongizatearen eta segurtasunaren kategoriak lotu ziren. Jakina, ekonomia-segurtasuna edo laneko egonkortasuna lotuta daude nolabaiteko segurtasunaz eta lasaitasunaz bizitzeko sentipenarekin eta aukerarekin. Lana berriz ere elementu nagusi gisa ageri da. Beste ikerketa askotan esan den bezala, emakumeek berresten dute lan -merkatuan zainketa-jardueretan, etxe-zerbitzuetan eta lan-baldintza informal eta ezegonkorretan soilik topatu ohi dituztela lan egiteko aukerak. Baldintza horiek, lana izanda ere, ez diete segurtasun-bermerik ematen, ez eta segurtasun-sentipenik ere. Emakume batzuek defendatzen dute lan-eskubideak zein diren jakin behar dela eta eskatu egin behar direla. Elkarte batek zenbait ikerketa egin ditu etxe-zerbitzuetan lan egin eta agiririk ez duten emakume migratzaileen egoerari buruz, eta emakume horien alde egiten du borroka. Kasu horretan, emakumeen beharrak identifikatzean eta asetzean datza elkarte horren esku-hartzea, haien bizi-baldintzak eta, horrenbestez, babes hoberetako.

Eskubideen ikuspuntua indarrez ageri da. Elkarte guztiek diote garapena lortzeko ezinbestekoa dela pertsona guztiek eskubideak izatea eta gizarte berrian dituzten erantzukizunak onartzea. Bost elkarteak eskubideen inguruan jarduten dira, eta elkarteetako batek eginbeharretan sakontzen du.

Elkarte parte-hartzaileen arabera, hauek dira segurtasun-babes hori lortzeko moduak: informaziorako eskubidea izatea, eskubideak eta lan-betebeharrak zein diren jakitea, eta hizkuntza eta parte hartzeko mekanismoak jakitea. Ikuspuntu subjektiboan, emakumeen ustez, garrantzitsua da “pertsona berreraikitzea”, hau da, migratzeak berekin dakarren guztiaren eta ondorioztatzen dituen uko pertsonalen ondoren bizitzako esparru guztietan pertsona berreraikitzea.

Zehazki, elkarte batek planteatzen du beharrezkoa dela erakunde- eta politika-bitartekoak izatea informaziogune gisa erabiltzeko eta “irtenbideak planteatzen dituen

erreferente” izateko: bakarrik utziko ez zaituena eta, behar duzunean, babestu eta lagunduko zaituena”.

Bizikidetzaz

Zenbait balio -hala nola berdintasuna, demokrazia, elkartasuna, askatasuna eta erlijioan askatasunez jardutea- giza garapenaren elementu nagusiak direla pentsatzeak lagundu egin gaitzake. Bizikidetzaren kategoria horrek eramaten gaitu beste pertsona batzuekin eta beste pertsona batzuentzat bizitzea nola egin daitekeen hausnartzera. Beste gizakiekiko kezka eta konpromisoa nola onartu eta adieraz dezakegun hainbat gizarte- eta familia-elkarreraginetan.

Gai horri buruz, elkarteek aniztasuna eta aukera-berdintasuna sustatzen duen gizarte-ordena bat iradokitzen dute: pertsona guztien eta bakoitzaren abileziak garatzeko eskubidea bermatuko duen erregimen bat -abilezia horiek solidarioak, errespetuzkoak, moldagarriak eta aktiboak izateko baldintzapean-, denon ongizatea bermatzeko betebeharra zainduko duena .

Gizarte- eta kultura-aniztasunari buruzko eztabaida behin eta berriz aipatu zen. Elkarteen arabera, aniztasun horrek kultura-alderdiei behatzera eta testuinguru batean hainbat ikuspuntu izateko aukerara eramaten gaitu. Iradoki zuten beharrezkoa dela adierazpen-askatasuna eta erlijio-askatasuna errespetatzea bizikidetzaz hobetzeko. Pertsona musulmanek diote beren erlijioan jarduteko zailtasunak dituztela, eta, erlijioagatik eta itxura fisikoagatik, diskriminazio-egoerak hauteman dituztela. Ildo horri jarraiki, Ignacio Ramonetek “Los inmigrantes, chivos expiatorios de la crisis”¹⁵ artikuluan adierazi du Europako herrialde askok pertsona musulmanen “praktika kulturalak” mugatzea erabaki dutela, eta, orain, gizartearen “demokraziaren aurkako ahalmena” “islamofobiaren” termometroaren bidez neurtzen dela European.

Bistakoa da migratzaile gehienak diskriminatuak sentitzen direla komunikabideek, zenbait politikok eta gizartearen zati batek migratzailea tratatzen duten moduagatik. Jakin badakite mezu horiek ez direla lagungarriak bizikidetzaz harmonikorako baldintzak sortzeko. Atzeritar jatorriko lau pertsonatatik batek diskriminazio-egoerak hautematen ditu EAEn (% 27)¹⁶. Zenbatekoak ez dira asko aldatzen diskriminazio pertsonaleko (% 22) edo herrialde bereko pertsonen lotutako (% 26) egoerei buruz galdetzen bada.

¹⁵ Ramonet, I. “Los inmigrantes, chivos expiatorios de la crisis”, Le Monde Diplomatique espainieraz (2011ko urtarrila), 2011.

¹⁶ Ikuspegi (2010). Salud, bienestar y Convivencia. Panorámica de la inmigración 37, 2010eko abendua.

Parte hartzeko jardueretan berretsi egiten dira datu horiek. Elkarteak osatzen dituzten pertsona gehienek hauteman dute arrazismoa piztu egin dela zenbait girotan. Gainera, badakite biztanleriaren talde batzuek gaizki begiratzen dietela eta krisiak tentsio hori areagotu egiten duela.

Norbere erlijioa onartuz etniagatik edo jatorriagatik norberak dituen kultura-osa-gaiak berariazko egoera batzuen aurrean jarrera-mota bat edo bestea hartzera bideratzen ditu pertsonak; esate baterako, “xenofobia jasatera”. Ildo horri jarraiki, nerabe batek esan du, bere ustez, eskola-curriculumean sartu behar liratekeela xenofobia eta kulturartekotasunean heztea, *Herriartasunerako Hezkuntza* irakasgaien, eta migrazioari buruzko aurreiritziak eta ideiak modu irekian landu beharko liratekeela.

Pertsona gehienak zerbait egiteko prest daude “noranzko biko egokitzapena” errazteko, eta beste pertsona batzuekin harremanak izatearen eta harreman hori lortzeko elkarreraginerako tokiak bilatzearen alde daude. Beste pertsona batzuek, berriz, aipatzen dute zaila dela elkartetik edo gertuko esparrutik kanpoko pertsonekin gertuko harremanak egitea, eta elkarteen artean lankidetzat gutxi egiten dela kulturarteko bizikidetzat lortzen lagunduko duten ekimenak sustatzeko.

Pertsona guztiek dute berdintasunaren gaiarekiko kezka. Elkarteen ustez, berdintasuna hainbat modutara har daiteke, batez ere hiru zentzutan: eskubide- (edo aukera-) berdintasuna, genero-berdintasuna eta politika-berdintasuna.

Malen etxeak adierazi du etxeko lanetan emakume migratzaileen soldatetan eta baldintzetan dagoen desberdintasuna dela emakumeen zaugarritasunaren adierazlerik fidagarriena (diskriminazio hirukoitza); lanean gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasunaren eta emakumeen artean dagoenaren adierazlea ere bada. Hori dela eta, elkarte horrek bidezko lan-harremanak sustatzen dituzten ekintzak bideratzen ditu. Nabaria da emakume migratzaile horiek ondo ezagutzen dutela beren gizarte-ingurunea eta ingurune profesionala, eta emakume izateagatik zigortuta sentitzen direla.

Bestetik, emakume horiek badakite krisi-garai hauetan gizonen eta emakumeen lan-merkatuko posizioak aldatu egin direla. Izan ere, emakumeek beren posizioari eusten diote lanean, eta, batzuetan, hobetu ere egin dira, gizonekin alderatuz gero. Izan ere, gizonen egungo ekonomia-krisiak gehiago kaltetu dituen sektoretan lan egiten dute, edo lan egiten zuten.

Elkarteak ados daude askatasuna eta berdintasuna bilatzeak elkartasuna eskatzen duela berekoikeria baino gehiago. Izan ere, ezin da ezer garrantzitsua lortu

besteen laguntza desinteresaturik gabe. Lankidetzari esker egin daitezke proiektuak. Afrikar jatorriko pertsonak bereziki azpimarratzen dituzte uste horiek.

Laburbilduz, berdintasun-eskubideak, elkartasuna praktikatzeko, arauak errespetatzeko eta gizarte- eta kultura-aniztasuna aitortzeko bizikidetzaren ahalbidetzen dute.

Parte-hartzea

Elkarte guztiek aitortzen dute parte-hartzea beharrezkoa dela, betiere bizikidetzarekin, ongizatearekin eta nortasunarekin lotuta. Elkarrekin batzuen ustez, batez ere latinoamerikarren ustez, parte-hartzea garapeneraren eragilea da. Norbere bizitzaren zuzentzen duten politika-eremuetan eraginkortasunez parte hartu ahal izatea oinarritzkoa da.

Parte-hartzea ulertzeko modu desberdinak adierazi dira. Parte-hartzaile gehienek jatorrizko herrialdeetako elkarteetan esperientzia izan zuten, elkarrekin batzuen ustez, parte-hartzea garapeneraren bidez hartzen da. Politikan eta gizartearen parte hartzeko eskubidea izatea oinarritzoko eskubideak babesten direlako adierazgarria da; adierazpen-askatasuna eta elkarrekin batzuen ustez, parte-hartzea askatasuna dira eskubide horietako batzuk.

Bestetik, pertsona batzuek diote hemen elkarrekin bat sortzea nahiko erraza dela, eta jatorrizko herrialdeetan ez dituzten diru-laguntzak eta babesak dituztela. Elkarrekin batzuen artean koordinatzeko eta informazioa trukatzeko espazioak balioesten dituzte. Gainera, oso modu positiboan nabarmentzen da beste erakunde batzuek elkarrekin batzuen ustez, parte-hartzea (zerbitzu-mota horiek diru-irabazi asmorik gabeko elkarteek ematen dituzte). Dimentsio horren adierazpena -partaidetza - elkarrekin batzuen ustez, parte-hartzea kide izanda bideratzen eta sendotzen da.

Garapenera proiektuekin lotuta eta kultura-, folklore- eta jai-alderdiez haratagoko jarduerekin lotuta beren agenda propioak sortzeko ahalmenak dagokienez, elkarrekin batzuen ustez, parte-hartzea gabeziak dituztela.

Beste elementu bat da elkarrekin batzuen barruan emakumeek bideratuta egiten den lana. Esate baterako: elkarrekin batzuen ustez, parte-hartzea (ez da espezifikoki emakumeen) emakumeen talde bat sortu da haien eskubideak sustatzeko eta defendatzeko. Talde berri horiek elkarrekin batzuen ustez, parte-hartzea emakumeen bidez, emakumeek berariazko espazio bat eskuratzen dute.

Hauek dira, besteak beste, emakume batzuen behar praktikoko batzuk: lan-ordutegiak kontuan hartzen dituzten jarduerak egitea; izan ere, gizonek denbora liberatua dute elkarrekin batzuen ustez, parte-hartzea emakumeek hauek eskatzen dituzte:

elkarrizketarako eta euskarri psikologikorako toki bat, hemengo eta jatorrizko herrialdeko etxeko hornitzaile direla aintzakotzat hartzea, eta elkartean ardura handiagoa izatea.

Interes estrategikoekin lotuta, emakumeek beste hauek eskatzen dituzte: lan-bizitza eta bizitza pertsonala aldi berean egiteko aukera emango dieten lanak izatea, gizonak seme-alabez eta emakumez arduratuko diren bizitza-proiektuak garatzea, erantzukizun partekatua izatea eta gizonarekiko independentzia emozionala lortzea, eta emakumearen ahalduntzea eta barne-berdintasuna xedez dituzten elkar-teak lortzea. Gizonei dagokienez, haien migratzaile-elkar-teek pertsonal liberatuaren beharra kontuan hartzeko planak eskatzen dituzte, elkar-teak eraginkorragoak izan daitezen.

Parte-hartze formalari dagokionez, pertsona gaitu batzuek oso ondo balioesten dute migratzaileak direla aitortzea, eta, ondorioz, udaleko adostasunetan, mintegi-etan, forumetan, unibertsitateko hitzaldietan eta Udalekin eta Ikerketa Zentroekin lotutako lankidetzeta-proiektuetan parte hartzeko ahalmena aitortzea. Gai horren ildotik, partaidetza-esperientzia luzeko emakume batzuek adierazi dute espazio instituzionalizatu-etan migratzaileen parte-hartzea sinbolikoa baino ez dela, eta erabakiak hartzean duten eragina garrantzirik gabekoa dela.

Emakume musulman batzuek diote parte hartzeko ahalmenak eta berdintasuna irabazi dituztela. Era berean, ahalmen gehiago lortu dituzten arren, ziurtatzen dute ez direla erabat lasai bizi beren kultura-ezaugarriak direla-eta gizartetik jasotzen dituzten estereotipoengatik eta zalantzan jartze iraunkorragatik. Beharrak zehazteko eta behar horiek asetzeko modua diseinatzeko aukera bat eskatzen dute.

Hasierako diskurtsoan, oso ondo baloratu da parte-hartze politikoaren adierazpen bat, hain zuzen, boto-eskubidea. Elkarte batek boto-eskubidearen jarduera politikoa aipatu du. Elkarte horretan, pertsona bat dago alderdi politiko batean, eta boto-eskubide hori aldarrikatzen du. Beste batek dio ez dela garrantzitsua, eta azken bat axolagabe ageri da. Beste elkarte batean, ez dute lehentasun- zat hartzen, eta gainerako elkar-teek ez dute gai- an sakontzen.

Afektua

Emakumeek gehiago aztertu eta argitu dute garapenaren dimentsio hori. Emakumeek diote oso zaila dela distantziara ama izatea. Hemendik seme-alaben hazkuntzan laguntzea eta familia-harremanari bizirik eustea.

Afektuari buruzko hausnarketak hiru puntutan jartzen du arreta: pertsonala, erlazionala-familiakoa eta gizartekoa.

Pertsonalari buruz hainbat ideia atera ziren garapenean zaindu behar den dimentsio gisa, hala nola “norberarekiko afektua”, zainketa pertsonala eta autoestimua. Askok hitz egin zen orain bizi zaren tokian onartua izatearen eta harrera jasotzearen edo ongietorria izatearen pertzepzioari buruz.

Familiari buruz elkarteek zioten “familiarik gabe ez dagoela garapenik”, baina orobat aitortu zuten egun migratzaile izateagatik zailtasunak zituztela familia berri biltzeko edo haiengandik gertu bizitzeko.

Garapenaren kategoria hori balio pertsonalekin eta gizarte-baloreekin lotzen dute, hain zuzen ere, elkartasunezko, enpatiazko eta pertsonen onespenezko harremanak sortzeko aukera ematen dutenekin. “Lagundua izatearen” giza beharra eta maite dituzunekin bizitzeko eskubidea izatea aintzakotzat hartu zituzten.

Esparru sozialean, migratzeagatik babes gabe geratu den barne-eremu pertsonal hori betetzen elkarteek egiten duten lana aintzat hartzeko premia eta gizarte-sareak indartzeko beharra aipatu zen.

Identitatea

Esan daiteke migratzaileen identitateak estatu-nazio batekin baino gehiagorekin lotuta eratzen direla. Identitatea pertsona guztiengan eratzen ari den zerbait da.

Bestetik, identitateak afektibitatearekin du zerikusia, zerbaiten kide izateko sentimenduekin eta bizikidetzarekin. Gai politikoekin ere lotura du, baina baita denborarekin eta espazioarekin ere. Norberaren identitatea aipatzen dute, eta, horrekin batera, gehiengoarekiko eta beste talde batzuekiko sortzen den identitatea ere aipatzen dute. Berdintasuna, elkarrizketa, errespetua eta senidetasuna aipatu dituzte, beste zenbait balioen artean.

Pertsona gehienak sozialki integratuta daude, edo hala uste dute gutxienez, baina jatorrian ere beren identifikazioari eutsi nahi diote. Elkarte horien ustez, identitateari buruz hitz egiteak “nor garen jakitea” esan nahi du, eta orain hemen bizitzeagatik hori guztia aldatzen ari dela jakitea. Balio berriak eta kode berriak onartzean eta berenganatzean haien identitatea aldatzen ari dela ohartzen dira.

Musulmanak erlijio-identitatean oinarritzen dira eta gizarte-harremanetan anaitasunak duen zentzuan. Ezkontzak pertsona, komunitatea eta identitatea sendotzen duela adierazten dute.

Elkarte bereko bi pertsonak jarrera hau dute identitateari dagokionez:

- “Emigratzen duzunean, harrera-herrialdeko kultura-identitatea onartuz zoaz, ez asimilatuena edo akulturatuena. Jatorrizko identitateko zenbait gauza galduz zoaz. Denboraren joanean, harrera-kulturako balioak hartzen dituzu.”
- “Nortasun global baterantz goaz. Duela zortzi urte hona iritsi nintzenean ez zen horrelakoa, dena uniformeagoa zen. Orain, kaleetan, metroan, ikusten duzu euskal komunitatea nortasun global baten bidean dagoela. Hori bai, guk gure sustraiei, gure kulturari eutsi nahi diogu”.

Pertsona batek nazionala izateko beharrari buruz hitz egiten du, espainiar nazionalitatea izanda soilik izan baitaiteke “eskubidedun pertsona”.

Hizkuntza ere identitatearen oso dimentsio garrantzitsua izan zen parte-hartzaileentzat. Latinoamerikatik datorren gaztelaniaren adierazpideei eta aberastasunari eusteko premia aipatu zen, bai eta, beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzten kasuan, hizkuntza berria ikasteko premia. Elkarreetako pertsonak badakite hizkuntza eta gu garenaren adierazkortasuna hizkuntzan oinarritzen dela. “Hizkuntza galtzea, pobretzea edo “egokitzeagatik” ordezkatzeta ez da garapenaren ezaugarri bat, baizik eta gure bizitza eta harrera-gizartea aberasten duen identitatea galtzea.

Pertsona batzuek berdintasuna aintzat hartzeari buruz hitz egiten dute, “denok berdinak garelako”. Hala ere, sinesmenen, kultuen eta hizkuntzen aniztasuna errespetatzeko beharra aitortu eta defendatzen dute.

3.2. Garapenaren definizioak

Garapenari buruzko lehenengo talde-gogoetaren ondoren elkarteek emaitza gisa ateratako definizioak aurkeztuko ditugu atal honetan labur-labur. Parte hartu zuen elkarteko kideek gaitasun-matrizea eraiki eta garapena zer den adostetik sortu ziren definizio horiek.

Definizioan agian txertatu gabe gelditu diren baina elkarte bakoitzeko tailerraren dinamika markatu zuten eztabaidaren funtsezko elementuak ere nabarmendu ditugu.

ASOCOLVAS

Definizioa: Bizitza duina lortzeko, elkarri lotutako eta gizakia banakako eta gizarte gisa aintzat hartzean oinarritutako elementu-multzo bat da garapena. Enfasi berezia duintasunean jartzen dugu. “Ongizate osoa dagoenean, bizitza duina dut”.

Gogoetaren funtsezko elementuak:

- Ongizatea eta bizitza duina
- Hezkuntza
- Genero-politikak sartzea
- Hiritar arduratsuak
- Itzultzea
- Bidalketak

AVACO

Definizioa: Behar diren zerbitzuak (hezkuntza, ura...) izatea da garapena. Bizimodu hobea izateko oinarritzko gauza horiek edukitzea da garapena.

Garapenak emakumeak barne hartu behar ditu: emakumeek hezkuntza, osasuna, ura eta azpiegiturak behar dituzte.

Gogoetaren funtsezko elementuak:

- Oinarritzko zerbitzuak: hezkuntza, osasuna eta saneamendua.
- Emakumea, garapenaren subjektu garrantzitsu gisa.
- Laguntza.
- Harrera-gizartean hiritartasunerako hezkuntza ematea, arrazakeria eta xenofobia -pertsonek askok pairatzen dituzte- gaingaitzeko.

MALEN-ETXEA

Definizioa: Ongizatea, babesa, segurtasuna, elkarbizitza eta parte-hartzea ahalbidetuko duten bitarteko sozialak izatea da giza garapena. Lanarekin, gogoekin, jomugekin, autoestimuarekin, lotura pertsonalekin eta abarrekin gizaki guztiei hobetzeko aukera emango dieten bitartekoak.

Gogoetaren funtsezko elementuak:

- Demokrazia.
- Sistema patriarkala, berdintasunik eza.
- Emakume migratzaileen autonomia ekonomikoa.
- Parte-hartzea / Eragina: parte-hartzearen eta emaitzak lortzearen arteko zuzeneko lotura esan nahi du.
- Garapenaren dimentsio subjektiboa.
- Itzultzea.

ONDA EUSKADI

Definizioa: Pertsonak gizartean parte hartu ahal izateko bizimodu egonkorra, segurua eta bizikidetzazkoa eramateko besteko baliabide moralak eta materialak dituztenean gertatzen da garapena.

Gogoetaren funtsezko elementuak:

- Herritartasuna.
- Lan duina.
- Aukera-berdintasuna gizonentzat eta emakumeentzat.
- Hezkuntza.
- Txertatzea: “euskar herritarrak”.
- Gizarteratzea.

TERRANGA

Definizioa: Heztea, pobrezia eta ustelkeria erauztea, parte hartzea, osasun-zerbitzuak izatea eta giza eskubideak errespetatzea da garapena. Horretarako, gizartean mobilizatu behar gara, parte hartu, ikasi eta jendearen pentsamoldea aldatu behar dugu, gure herrialdeak dituen bitartekoak ongi baliatzen jakiteko.

Gogoetaren funtsezko elementuak:

- Hezkuntza.
- Eskubideak eta eginbeharrak.
- Nork bere kulturarekiko, hizkuntzarekiko, erlijioarekiko harrotasuna.
- Lana.
- Elkartasun-sareak.

Pertsona bakoitzaren historia pertsonalarekin, bakoitzak bizi duen prozesuarekin eta unearekin, du lotura garapenaren ideiak eta jomuga dugun garapenak. Administrazio-egoera irregularrean daudenek edo “paperak” lortzeko zailtasun handiak eta egoera samingarriak bizi izan dituztenek “legezkotasunarekin” lotzen dute beti garapena. Harrera-herrialdean denbora gehiago daramatenek eta finkatuta daudenek, ordea, eskubideak eta betebeharrak, sareak sortzea... dituzte gogoetaren. Bestela esanda, bizirauteko oinarrizko baldintzak lortu dituzte, eta egoerak aukera ematen die begirada garapenera zabaltzeko.

Gogoeta mugatu duen elementu bat izan da itzultzearen edo harrera-herrialdean finkatzearen ideia. Elkarre beraren barruan, badaude migrazio-proiektua behin-behinekotzat jotzen dutenak, jakina, eta, horren ondorioz, ezin dute beren gogoeta jatorrizko herrialdetik eta hara itzultzeko itxaropenetatik at egin. Finkatuta dauden eta bizi-proiektua eremu berrian kokatzen duten beste pertsona batzuek, ostera, kezka desberdina dute jatorrizko komunitateekiko, eta haien diskurtsoaren zati nagusiak hemengo eta oraingo zer-nolako guztia du ardatz. Jatorria eta familiarekiko eta komunitatearekiko lotura afektiboak eta elkartasun-loturak sekula ahantzi gabe, honetan jartzen dute arreta: garapen hobea nola lortu hemen, orain eta egungo baldintzetan beretzat eta beren elkarreentzat.

Jatorrizko herrialdea da garapenaren ikuspegi hori asko mugatzen duen beste elementu bat. Adibidez, mugimendu iraultzaileak edo gizarte-aldaketako mugimen-

duak bizi berri dituzten herrialde latinoamerikarretatik datozen emakumeek demokrazian, parte-hartzean eta intzidentzia politikoa guztiz oinarritutako diskurtsoa dute. Aurretiazko haien esperientziak garapenaren ideia definitzen du, eta hortik abiatuta interpretatzen dute zer den garapena harrera-herrialdean. Era berean, emakumeak dira genero-desberdintasuna etengabe nabarmentzen dutenak; jabetzen dira bizi izan duten eta oraindik ere pairatzen duten desberdintasunaz, baina, halaber, irizten diote hemen bertan emakumeak direla, haien herrialdeetan eta hemen, gizarte-politika publikorik eza eta gobernuen axolagabekeria estali edo ezkutatu dutenak.

Jatorrizko herrialdearekin lotuta, kasu interesgarri bat Onda Euskadi elkartearena da; izan ere, han bizi den egoera politikoa dela eta, erabaki dute haien jatorrizko herrialdean ez zentratzea eztabaia. Elkartearen gogoetak Euskadiko gaurko egoera du ardatz; txertatzea, elkarbizitza eta herritartasuna dira garapen-ideiaren funtsa elkarte horrentzat. Elkarte gisa duen helburu nagusietako bat da hona iristen den jendeari laguntza ematea, eta gizarteratzen laguntzeko euskal gizartearen haien presentzia sozialki lantzea.

Gatazkan dauden herrialdeetatik datozenek segurtasuna, bakea eta elkarbizitza ona aipatzen dituzte funtsezko elementutzat. Elkarte batzuek, jatorri afrikarrekoek zehazki, toki nabarmena ematen diote estatuari garapenari buruzko hausnarketan, jendearen ongizaterako oinarrizko baldintzen sustatzaile eta bermatzaile gisa estatuak duen paperari, alegia.

Atentzioa ematen duen beste bereizgarri bat da elkarte bakar batek ere ez die-la funtsezko garrantzirik ematen diru-bidalketei garapenaren zati gisa. Batez ere familien menpekotasun ekonomikoarekin lotutako kezka gisa agertzen da, hau da, nola lagundu dezaketen hemendik diru-bidalketak hobeto erabiltzen, ekimen emankorrak sustatzen eta hezkuntzan inbertitzen. Elkarte batek dioenez, “migrazioak eta garapena loturari dagokionez, diru-bidalketak eztabaiden ardatz bihurtzeak baditu bere arriskuak. Arriskua da estatu-erantzukizuna eta erantzukizun publikoa ekimen pribatuekin ordeztea, ekimenak kolektibizatzea-gatik ere”.

Definizio guztiek alderdi ekonomikoez haraindiko elementuak barne hartzen dituzte. Tailerretako eztabaidak aukera eman zien haien bizi-prozesuei berriro heltzeko, eta bizi diren gizartearen garapenean lagundu beharra baloratzeko. Elkarte guztiek dituzte, bakoitzak bere ahalmenekin, elkartekideen baldintzak hobetzen laguntzeko jarduerak eta orientabideak, hemen eta haien jatorrizko herrialdeetan.

3.3. Horretatik, zer ulertzen dugu giza garapen gisa? Zer hobetu du, eta zer zer oztopatu migrazioak

Jomuga dugun garapenari buruzko eztabaidan, jendeak ezin du une bakar batez ere alde batera utzi jatorrizko herrialdearekiko lotura eta bere “migratzaile” izaerak mugatutako hemengo eta egungo zer-nolako guztia. Beren familiarekin komunikazio iraunkorra izateak eta jatorrizko herrialdeko gizarte-sareei eustekak garapenaren hausnarketa jatorrizko herrialdetik bereizezina izatea dakarte eta, batzuetan, harre-ra-herrialdearekin etengabe konparatzea. Bigarren kapituluan esan dugun bezala, nazioz gairikiko gizarte-esparru horrek erakunde politiko eta ekonomiko berriak eratzen ditu, eta harrera-gizartearen eguneroko arauetan eragiten du. Ongizateaz, segurtasunaz edo bizikidetzaz duten pentsamoldeari ere eragiten dio, eta, neurri handi batean, garapenaz duten ideia mugatzen du. Era berean, migrazio-prozesuan hobetu dutenari eta okertu dutenari buruzko ziurtapenetan eragiten du.

Bigarren kapituluan esan den moduan, migratzaileek jarduera edo harreman iraunkorrak bi estatu-naziotan edo gehiagotan izatetik sortzen da nazioz gairikiko ikuspegia. Horrela bada, migratzaileen bizitzaren arloak eta proiektuak ez dira kokatzen jada eremu bakar batean, eta mugetan zeharreko interkonexio anitz eta etengabekoen mende daude. Nazioz gairikiko begiradak hau onartzea dakar: interkonexio horretatik aldi berean errealitate desberdinetakoak izatearen onurak eta desabantailak lortzen direla. Pertsona migratzaile horiek garapenaren protagonistak dira, eta beren helburu, denbora, lehentasun eta estrategia propioak definitzen dituzte hemen eta han.

Oro har, hauek dira migrazioarekin gehien indartu direla baloratzen den garapenaren dimentsioak: **ongizatea eta babesa/segurtasuna**. Baliabide ekonomikoak sortzeko gaitasuna, ongizatearekin lotuta, funtsezkoa da giza premiak asetzeko eta bizi-kalitate hobea izateko. Ongizatearekin lotuta, elkarte guztiek aipatzen duten elementu bat da bizitzeko oinarritzko baldintzen bermatzaile gisa zein pertsona guztientzako osasun- eta hezkuntza-zerbitzuen hornitzaile gisa estatuak jokatzen duen papera. Pertzepzio horiek bat datoz guztiz beste ikerlan batzuek populazio migratzaile atzerritarren “kultura-bitasuneko gizarteratzea” edo bi esparruetan oinarritutako gizarteratzea deitu dutenarekin: hau da, batetik, aintzat hartzen da harrera-herrialdeak zerbitzu publikoen eta burokratikoaren alorrean eskaintzen duen babesa, eta, bestetik, herriminez bizi dira, eta etsipenez oroitzen dituzte jatorrizko komunitatean utzitako harremanak eta afektuak. Askotan bannandutzat edo kontrajarritzat jotzen diren bi logika batu, eta bateragarri egin nahi ditu kultura-bitasunak, bataren eta bestearen onena hartuz.

Ongizatea	
Zer hobetu dugu?	
Adostasunak	Desadostasunak
<ul style="list-style-type: none"> • Baliabide ekonomikoak sortzea. • Guztiok gutxieneko ondasun material batzuk izatea bermatzen duen estatua aintzatestea. • Gutxieneko estaldurako eredia (osasuna/hezkuntza). • Hazkunde pertsonala: ausardia, askatasuna. • Seme-alabei hezkuntza bermatzeko aukera. 	<ul style="list-style-type: none"> • Erakundeekiko errespetua, sinesgarritasuna, justizia banatzea. • Gobernuen gardentasuna aurrekontuak erabiltzeari dagokionez (ustelkeria gutxiago). • Konkistatutako herritar-eskubideak, betebeharrak ere ezartzen dituztenak.
Dimentsio honetako zer alderdi okertu ditugu?	
Adostasunak	Desadostasunak
<ul style="list-style-type: none"> • Kualifikazio txikiko lanak, jendearen prestakuntzarekin bat ez datozenak. • “Etorkin” izaerak gizarteko eta laneko mugikortasuna baldintzatzen ditu. 	

Ongizatearen dimentsioari dagokionez, elkarte batzuek ziurtatzen zuten hobera egin dutela jatorrikoarekin alderatuta, herritarren eskubideen errespetua bermatzen duen, gobernu ez hain ustela duen eta erakundeak sinesgarri eta egonkorrak dituen estatu batean egoteagatik. Nolanahi ere, elkarrekin kide guztiak ez zetozen bat pertzepzio horrekin; jatorri afrikarreko kideak dituzten elkarrekin sutsuago defendatu dute jatorri latinoamerikarreko kideak dituztenek baino. Afrikako estatu batzuen (adibidez, Angola eta Senegal) “instituzionaltasun-maila” txikiarekin alderatzearen ondorioz iruditzen zaie, antza, dimentsio horretan “hobetu egin dutela” herrialde horietatik datozenei. Latinoamerikatik eta Afrikatik datozenen pertzepzio desberdinaren eta afrikarren balorazio hobearren atzean, afrikarrekin alderatuta latinoamerikarrek duten segurtasun juridikoa ezkututzen da, dudarik gabe. Pertsona latinoamerikarrei afrikarrei baino gutxiago kostatzen zaie, nolabait, “normalizatzea”; afrikarrek bigarren ibilbide bat, lehenengoena baino luzeagoa, egin behar dute. Babes-estatus batera iristean, lortutako emaitzarekin kritikoagoak dira iristeko zailtasun gutxiago izan dituztenak; ibilbide luzeagoak egin

behar dituztenek edo emaitzara iritsi ez direnek, ordea, balio handiagoa ematen diote prozesuari. Latinoamerikako populazioak abantaila du, nolabait ere, Afrikako populazioarekin alderatuta.

Babesa eta segurtasuna dimentsioari dagokionez, osasun-sistema publiko, eraginkor eta doakoak aintzatespen handia du. Talde guztiek nabarmendu dituzte jatorrizko herrialdeetako osasun-sistema publikoen gabeziak, eta iristen direnetik bertatik oinarrizko zerbitzuak eta zerbitzu espezializatuak eskaintzen dizkien sistema bat izatearen onurak. Labur esanda, “ziurtasun” printzipioa, oinarrikotzat har dezakeguna, balioesten da. Gizarteratzeko prozesua aurrera doan heinean, gero eta balio txikiagoa ematen zaio ziurtasun horri.

Oro har, gatazkan dauden hiri eta/edo komunitateetatik datozenek segurtasuna hobetu dutela hautematen dute, egoera administratiboa dela-eta zertxobait arduratuta bizi diren arren. Babes fisikoak edo segurtasun fisikoak, dela etxean, dela kalean, dela auzoan, kezka eragiten die elkarteei, eta balioetsi egiten dute Euskal Herrian segurtasuna izatea. Denek nahi dute etxeetan eta kaleetan segurtasuna izatea. Administrazio-egoerak sortzen dien kezkak neutralizatu egiten du, batzuetan, lehengo babes- eta ziurtasun-maila hori. Bi babes-maila desberdin dira, jakina, baina argi dago, halaber, bigarrenak lehenengoaren pertzepzioari eragiten diola. Ez dira nahasi behar segurtasun juridikorik eza eta segurtasun sozialik eza, baina kontuan izan behar dugu elkarren arteko interakzio konplexua dutela. Alde horretatik, babesa/segurtasuna gehien baloratzen den dimentsioetako bat bada ere, pertsona guztiak bat datoz ageriko mehatxu handiak daudela iritziarekin (adibidez, toki batetik bestera modu askean joateko zailtasuna, “paper” falta dela eta). Askok diote polizien kontrolak jasan behar izaten dituztela, beren hazpegiak direla eta, kaleetan edo garraio publikoa erabiltzean.

Babesa-segurtasuna	
Zer hobetu dugu?	
Adostasunak	Desadostasunak
<ul style="list-style-type: none"> Osasun-sistema publikoa. Segurtasuna, bortizkeriarik eza, oro har. Etxeko eta kaleko segurtasuna. Administrazioaren hutsuneei erantzuteko gaitasuna (etxebizitza, kate ekonomikoak, seme-alaben zaintza). 	<ul style="list-style-type: none"> Segurtasuna, etxebizitza bat eskuratzeari dagokionez. Egonkortasuna, aurrezteko gaitasunari dagokionez: diru-bidalketak eta etxebizitzarako inbertsioa. Aniztasuna aintzat hartuko duen osasun-zerbitzua. Soldataren atzera-egitea krisialdian.
Dimentsio honetako zer alderdi okertu ditugu?	
Adostasunak	Desadostasunak
<ul style="list-style-type: none"> “Paperak” ez izateagatiko segurtasunik ezaren sentsazioa. Joan-etorriak egiteko / Mugitzekeo segurtasuna. 	

Gizonak eta emakumeak seguru sentitzen dira kaleetan; pertsona batek dio herri-tarren segurtasuna polizia-presentzia handiari esker lortzen dela Euskadin, eta egunerokotasunean ez direla “kaleko” bortizkeriaren kezkaekin bizi, haien jatorrizko herrialdeetako askotan ez bezala. Jatorrizko herrialdeetako indarkeria eta segurtasunik ezaren pertzepzioak, sarritan, lotura zuzena du segurtasuna bermatuko duen estatu bat ez izatearekin, eta estatuak herritarrekiko ardura eskasa duela jartzen du agerian.

Segurtasunaren eta babesaren egituraketaren beste plano batean, elkar-teen beren paperarekin egiten dugu topo. Atentzioa ematen duen beste kontu bat da elkar-teen migrazioaren esperientziatik abiatuta “hobetu” duten elementu gisa aipatzen dutela gizarte-sare berrietako eta elkar-teen partaide izatea (elkar-teen babesle edo segurtasun-hornitzaile gisa jokatzeko dute, kasu horretan). Migratzaile asko ahultasun-egoeran daude, eta elkar-teen, gizarte-sareak, partekatze- eta laguntza-eremuek jokatzeko duten paperak konpentsatzen du egoera hori. Elkar-teen diote estatuak eta administrazioak betetzen ez duten hutsunea betetzen dutela askotan aterpea emateko mekanismoekin, kate ekonomikoekin eta abarrekin, eta horrek nolabaiteko segurtasuna ematen diela ahulenei. Zerbitzu publikoen

maila formalenak estaltzen ez dituen zenbait hutsune betetzen dituzte elkarteek gizarte-mekanismoen bidez.

Bat datoz esatean onura eztabaida ezinetako bat **bizikidetzarena** dela, batez ere kultura-trukeari dagokionez. Beste gizarte baten ezaugarri kulturalak ezagutzea, kode berriak, bizimoduak eta hizkuntza ere ikastea (gaztelaniadun ez direnengzat). Elkarbizitzan, balio handia ematen diete helmugan sortutako sare berri horiei. Herrialde bereko taldeak, baita beste batzuetakoak ere, elkarbizitza armo-niatsurako gune bihurtzen dira.

Bizikidetzaren	
Zer hobetu?	
Adostasunak	Desadostasunak
<ul style="list-style-type: none"> • Beste kultura bat, beste kode, bizimodu, hizkuntza batzuk ezagutzea. • Gizarte-sare berria sortzea (herrialde bereko elkarteekin, taldeekin). Elkartasun-loturak. • Aniztasunaren aintzatespena. • Berdintasun handiagoko harremanak gizonen eta emakumeen artean. 	
Dimentsio honetako zer alderdi okertu ditugu?	
Adostasunak	Desadostasunak
<ul style="list-style-type: none"> • Ez da erraza konfiantza- eta hurbiltasun-harremanak ezartzea bertako jende batekin. • Elkarrenganako aintzatespenean oinarritutako harremanak. • Gizarte-sarea galtzea. Familia zabalarekiko, auzokoekiko lagunartearekiko harremana. • Herritar izaera. • Gizarteak migratzaileari dion beldurra, bizimodua mehatxatzen duen eta lana kentzen duen norbait dela uste baitu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Migratzaile-taldearen arteko loturarik eza. • Bizi zaren tokian desberdin ikusten zaituztela sentitzea. • Aniztasunarentzako tolerantzia.

Generoaren dimentsioari dagokionez, berdintasun handiagoa ikusten dute elkar-
teek harrera-gizarteko gizonen eta emakumeen arteko harremanetan: gizonak eta
emakumeak ekoizpen-lanetan parte hartzen dute, baina zeregina badago orain-
dik ugaltze-lanari dagokionez. Emakume batzuek familia barruko adierazpen-
askatasunari buruz hitz egiten dute. Klase ertain handiagoa duen gizarte batean
bizitzea balioesten dute beste batzuek; izan ere, hemen ez da hain agerikoa Lati-
noamerikako gizarte-mailaketa handia. Emakume batzuek diote Euskadin bizitze-
ak berdintasun handiagoko harremanak izaten lagundu diela diote, eta zehaztu
dute “harreman idealak” ez direla baina, gutxienez, emakumea babesten duten
arauak eta hizkera “politikoki zuzena” daudela eta horrelako giro batean bizitzeak
berdintasunerantz joaten laguntzen duela.

Zaila da bizikidetzaren dimentsioa analizatzea, positibotzat jotzen diren elemen-
tuak badauden arren migrazio-prozesuekin asko murrizten den lehenengo gaita-
sunetako bat baita. Jendeak dio ez dela erraza konfiantzazko eta gertuko harre-
manak ezartzea bertako jende-talde batzuekin. Jende asko ez da bera
denarengatik onartua edo baloratua sentitzen. Egoerak okerrera egiten du, gaine-
ra, galdu egin baitituzte gizarte-sareak eta harremanak familia zabalarekin, auzo-
koekin eta hango inguruarekin (jatorrizko herrialdean, haien babesa zuten). Era
berean, elkarrekin bat datoz esatean zaila dela “elkarbizitza” gizarte autoktonoan
migratzaileekiko sortu den beldurrarekin. Krisialdiak eta gobernu eta komunikabi-
de batzuen arduragabetasunak adierazi dute migratzaileek jartzen dituztela arris-
kuan lana eta osasun-sistemen edo bizimoduaren iraunkortasuna, haiek direla
egoera honen errudun.

Dimentsio honetan azaleratzen hasten den elementu bat herritar izaerarena da.
Azterlan honetan parte hartu dutenentzat, herritartasunak eta haren onarpenak
bizikidetzaren baldintzatzen dute, gizarte osoarengatik eta, batez ere, migratzaileari
estatus horrek ematen dion segurtasun pertsonalarengatik.

Garapenerako oinarrizko gaitasun bat **parte-hartzea** da. Elkartekide izatearen es-
perientzia migrazio-esperientziaren elementu positibo bat da. Askok bizi izan
dute esperientzia hori jatorrizko herrialdean, baina sareetan -eta, kasu batzuetan,
federazioetan- parte hartuz “gizarte-eragile berri” bihurtu izana balioesten dute.
Parte-hartzeari buruz balorazio desberdinak sortu dira; elkarre batzuek, adibidez,
hobekuntzat jotzen dute gobernu-istantzietatik jasotako laguntza; beste ba-
tzuek, ordea, ez. Parte-hartzea aldagaiak eztabaida sakona eragin zuen erabaki-
guneetako elkarrekin parte-hartzea “formala” edo “erreala” ote den aztertzean.
Elkarre batzuentzat, parte-hartzea marjinala da, eta ez dira ahotsa eta eragiteko
ahalmena duten gizarte-eragileak. Presentzia publikoa bazterrekoa da, eta “mi-

gratzaileentzat diseinatutako” gune batzuetara, beste gune publiko zabalago batzuetan txertatu gabeko guneetara, zokoratzen da parte-hartzea.

Parte-hartzea	
Zer hobetu dugu?	
Adostasunak	Desadostasunak
<ul style="list-style-type: none"> • Asoziazionismoaren esperientzia. • Elkartzea, “gizarte-eragile berri” bihurtzeko. Sareetan eta federazioetan parte-hartzea. • Talde gisa ikusgai egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte hartzeko laguntza, gobernu- instantzia batzuetatik. • Sistema demokratikoa izatea. • Badugu elkarteetan presentzia publikoa izateko besteko parte-hartzerik ala parte-hartzea txikiegia da?
Dimentsio honetako zer alderdi okertu ditugu?	
Adostasunak	Desadostasunak
<ul style="list-style-type: none"> • Herritar izaera. (Botoa) • Segurtasuna, parte hartzean. • “Demokrazian” parte hartzeko aukera-berdintasuna -boto- eskubidea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartze politikoa eta komunitarioa (kolektibo batzuek irizten diote toki bat irabazia dutela Euskadin). • “Etorikin” izaerak gizarteko eta laneko mugikortasuna baldintzatzen ditu.

Parte-hartzearen inguruan sortu zen beste eztabaida bat izan zen sistema gutxi-asko demokratikoan bizi ote diren, eta horrek zer esan nahi duen. Elkarrekin batzuentzat, Espainiako estatuan bizitzeak ez dakar hobekuntzarik demokraziari dagokionez; gogor kritikatzeko dituzte gizartea kontrolatzeko sistemak eta herritarrek parte hartzeko gunerik eza. Beste elkarte batzuek, zehazki Afrikatik datozenek, berriz, balioetsi egiten dute Espainiako sistema demokratikoa; horrek aukera ematen du jendeak gehiago eta hobeto parte hartzeko. Parte-hartzeari dagokionez, berriro agertzen da latinoamerikarren eta afrikarren pertzepzio-desberdintasuna. Batez ere, jatorrizko herrialdean parte-hartze handia izan duten kultura politiko aberatseko pertsonak dira parte-hartzearen kalitatea kritikatzeko dutenak; nolabaiteko “elitea” osatzen dute Euskal Herriko elkartegintzaren esperientziaren barruan, prestakuntzari, diskurtsoari eta aurretiazko eta egungo parte-hartze politikoaren esperientzia aintzat hartuta.

Azkenik, bat datoz boto-eskubiderik ez izatea gaitzestean. Elkarrekin batentzat, botoa ematerik ez izateak esan nahi du herrialde hau “elkarrekin” eraikitzen at uzten dituztela. Botoak erantzukizun partekatua bultzatzen du, eta badago bere gizarte-eremu berriaren garapenean eta etorkizunean erantzukizunak partekatu nahi dituenik.

Afektuari dagokionez, gehienek uste dute dimentsio hori okertu egiten dutela, eta berreraiki egin behar dituztela; hau da, kode berriak ikasi eta kultur eredu berriak ezagutu behar dituztela. Maila pertsonalean, aitortu dute migrazioaren esperientziak autoestimua sendotzen, norberaren ausardiaz jabetzen eta bizipenak hazten laguntzen duela. Halaber, onartu dute eremu afektiboak beste pertsona batzuek, helmugako herrialdean eraikitzen diren harreman berriek, betetzen dituztela.

Afektuaren dimentsio honetan, emakumeak dira gehien sakondu dutenak. Emakumeentzat, dimentsio horrek “okertzea” adierazten du; batez ere, amatasunaren ikuspegitik. Batzuek diote beren bizitza-proiektua “atzeratu” egin dela migratzeagatik eta seme-alaben hezkuntzarako baliabide nahiko lortzeko ahaleginagatik, baina oso garesti ordaindu dutela. Emakume batzuen historiak oso samingarriak dira, eta, haiek diotenez, bakardadea eta familia ondoan ez izatea dira aurre egiten zailenak migratzean. Beste batzuek diote migrazioa lorpen bat izan dela, harrera-herrialdean bizitzen jarraitzeko oztopo handiak gainditu behar izan baitituzte. Migrazioak aintzatespena, erabaki-ahalmena eta beste era bateko rol-banaketa ere ekarri ditu beren familia- eta komunitate-taldearen barruan. Emakume musulmanek parte-hartzeaz eta gizarte-harremanez hitz egiten dute. Gizon batzuentzat ere familia- eta komunitate-talde barruko aintzatespena eta autonomo gisa lan egiteko askatasuna ekarri die migrazioak. Autonomia, ahalduntzea eta gogobetetasuna emakumeek eta gizonek baloratzen dituzten hiru faktore dira.

Afektua	
Zer hobetu dugu?	
Adostasunak	Desadostasunak
<ul style="list-style-type: none"> • Autoestimu eta ausardia handiagoa. • “Afektu-eremuak” beste pertsona batzuekin eta harreman berriekin betetzen dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Familiaren aintzatespena. • Emakume batzuentzat, autoestimu eta askatasun handiagoak.
Dimentsio honetako zer alderdi okertu ditugu?	
Adostasunak	Desadostasunak
<ul style="list-style-type: none"> • Maitasuna eta familia-harremana. • Seme-alabak jatorrizko herrialdeetan dituzten emakumeek bizitzaren ardaztat dute gai hori. Beren familiarekin bizitzeko, seme-alabak hazten ikusteko eta haiei laguntzeko aukera. • Seme-alabak zaintzeko eskubidea eta betebeharra. • Garapen pertsonalari uko egitea, “bizitza propioa geroratzea”, familiaren biziraupenaren arabera. • Familia berriro elkartzeko zailtasuna. • Hutsune afektiboak – segurtasun afektiboa. 	

Amaitzeko, ariketa honetan parte hartu duten pertsonen **nortasunari** dagokionez, diote hobetu egin dituztela beren buruarekiko berrespena eta jatorriaren eta historia pertsonal eta kolektiboaren berrespena. Bestalde, bat datoz “migratzaile” estatusen iraunkor egoteak dakarkien aintzatespen pertsonal eta profesional eskasaren pertzepzioarekin. Duten kualifikazio-maila baino maila txikiagoko lan batean ari dira gehienak, baina diote “ia ezinezkoa” dela duten esperientziara eta prestakuntzara egokitutako enplegu bat lortzea.

“Desberdinak direla” oso barneratuta dute; desberdinak, larruazalaren kolorearen-gatik, beste hizkuntza batean hitz egiteagatik edo beste erlijio batekoak izateaga-

tik. Eztabaidak sortu dira erlijio-nortasunari buruz, eta elkarteren batek adierazi du erlijio-nortasunak ibilgetu egiten duela ekintzarako eta eskubideen aldarrikapenerako. Beste elkarte batzuentzat, islamaren jarraitzaileentzat zehazki, erlijioak deitu, elkartu eta mobilizatu egiten ditu. Desberdina izatearen jabetze horretatik, beren buruari nongoak diren galdetzer pasatu dira batzuk. Inposatutako “etorkin” nortasunak gizartereko eta laneko mugikortasuna baldintzatzen ditu. Horregatik, bere buruari galdera hau egiten diote batzuek: noiz arte izango gara etorkinak? Haien iritziz, ez-nortasun edo etengabe eztabaidatutako eta zehaztugabeko nortasun horrek gaitasunen eta lorpenen aintzatespena eragozten du, eta zaila da sailkapen horretatik ateratzea, lan eta garapen pertsonaleko aukerak zabaltzeko.

Nortasun-joko horretan, parte-hartzaile batzuek adierazi dute haien nortasuna ez dela lehengoa, eta *etxera* itzultzean ere ez dituztela berdin ikusten, eta ez direla berdin egokitzen. Jatorrian ez dira lehen bezala egokitzen, eta oraindik ez dira gutiz hemengoak. Deserrotze-sentimenduak eragin handia du harrera-herrialdeko bizitzan ez ezik, itzultzeko aukeretan ere. Migratzailearen zalantzazko leialtasun bikoitzaren betiko gaia da; “*izaki marjinalaren*” irudia, zeina bi gizarteren marjinetan egonda ez baita ez batekoa, ez bestekoa, ezta gizarte horietako kide aktibotzat jotzen badute ere.

Azken finean, migrazioak oztopatu egiten du afektuei, elkarbizitzari, nortasunari eta parte-hartzeari dagokien guztia. Gehienek ikusten dituzte dimentsio horiek beren garapenerako elementu gisa, eta hona etortzean murriztu egin direla. Baina, oztopo izan arren, aukera ere bada, oztopoa behin-behinekoa baita denboran luzatzen den eta gizarte hartzailean irauteko borondatea duten migrazio-prozesu orotan. Oztopo horiek, askotan, migratzaile-kopuru zehaztugabe bati proiektu biografiko luzean etsiaraztea ekartzen dute, agerian edo inplizituki, fluxuak kudeatzeari begira, eta, horregatik, behin-behineko estatus batean edukitzen dituzte.

Emakume gehienek -batez ere, seme-alabak jatorrizko herrialdean dituztenek- adierazi dute ongizatean eta osasunean lortutakoak luzera begira ez diela merezi afektu, gizarte eta harremanetan okertutakoaren aldean. Familia-muina hemen duten gizonek seme-alaben heziketa hobetu egin dutela onartzen dute; horrek, haien iritziz, okertutakoa berdintzen du, eta gustura daude. Familia han duten gizon eta emakumeek familia berriro elkartzeko baliabide eta erraztasun gehiago eskatzen dituzte. Pentsatzekoa da berriro elkartzeko prozesua burutuz gero, hobe-tutako eta okertutako alderdien arteko erlazioa orekatu egingo litzatekeela.

Nortasuna	
Zer hobetu dugu?	
Adostasunak	Desadostasunak
<ul style="list-style-type: none"> • Nortasun propioa berrestea. • Zer garen baloratzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeek parte-hartzea eta autoestimua hobetu dituzte.
Dimentsio honetako zer alderdi okertu ditugu?	
Adostasunak	Desadostasunak
<ul style="list-style-type: none"> • Aintzatespen pertsonala eta profesionala. • Kultura-aniztasuna errespetatzea: beste hizkuntza bat, beste erlijio bat eta beste ohitura batzuk. 	<ul style="list-style-type: none"> • Nortasun erlijiosoak parte-hartze eta mugikortasun soziala ibilgetzen ditu.

3.4. Zer nahi dugu gure jatorrizko herrialdearen garapenerako, eta zer ekarpen egin dezakegu?

Bai gizonak bai emakumeek uste dute haien jaioterrian ez direla betetzen ongizate-, babes- eta segurtasun-alderdiak. Era berean, argi dute elementu hauek ezinbestekoak direla haien herrialderako edo komunitaterako nahi duten garapena lortzeko: aldaketa politikoa eta osasun, hezkuntza eta gisako zerbitzuen hornidura.

Aldaketa politiko eta ekonomikoa. Denek uste dute elkarteek haien herrialdeetako aldaketarekin konprometitutako gobernu-sistema bat eskatzen dutela. Pertsonak lehenesten dituen gobernu bat, “pertsonengan pentsatzen duena, eta pertsonen nola lagundu”. Pertsonak interes ekonomikoen aurretik jartzen dituen gobernuak. Gizartearen kezka nagusiez arduratzen den gobernuak: langabezia, emigrazioa, desberdintasun sozialak eta txirotasuna. “Segurtasuna eta egonkortasuna bermatzeaz gain, gizarte-babesa bermatzen duen gobernuak”.

Alabaina, klase politikoarekiko mesfidantza handia dago oraindik. Gehiengoak uste du agintariak ezgaiak, ez-eraginkorrak, ustelak edo autoritarioak direla, eta aberasten eta herria zapaltzen jardun direla. Elkarte baten iritziz, merkataritza-harreman neokolonialen menpean dagoelako ezin du aurrera egin haien herriak.

Kalitatezko hezkuntza, jende gehiagorengana iritsiko dena. Pentsatzera, hauen nartzera eta ekitera bultzatzen duen hezkuntza. “Ekonomikoki aurrera egiten laguntzeaz gain, gure komunitatearen garapen-proiektuetan eta gure arteko elkar-

tasun-proiektuetan parte hartzera bultzatzen duen hezkuntza.” Elkarte batek, esate baterako, gazteen hezkuntza eta aisia hobetzeko lan-proiektu komunitario bat darabil buruan, etorkizuneko belaunaldien garapena helburutzat hartuta.

Gizarte-politika publikoak, ugaltze-lanaren baldintzak hobetzeko. Komunitate txiroetan, ugaltze-lanak eskulan handia eta denbora asko eskatzen du. Gehiengotan, emakumeen eta neskatuen gain dago arduraren hori. Elkarte baten ametsa da garapen-proiektu bat gauzatzea emakume horien zama arintzeko eta haien garapena sustatzeko. Horrekin batera, **genero-politika aktiboak** ezartzeko eskatzen diete gobernuei. Giza garapenerako eta garapen sozialerako, ezinbestekoa da berdintasunaren eta genero-indarkeriaren neurria kontuan hartzea.

Etxebizitza, lana eta soldatak. Kapitulu honetan esan den bezala, etxebizitza, lana eta soldata duina garapenaren ideari lotuta daude. Pertsonen bizi duina eta aurrezteko nolabaiteko aukera eskaintzen dieten lanpostu bat izan nahi dute haien jaioterrietan. “Nire herrialdean 600 euroko soldata izango banu, ez nintzateke hemen egongo”. Zenbait senegaldarrek “Lurrera itzultzea” izeneko garapen-planean parte hartzen dute. Plan horren xedea da emigratu duten gizonezko senegaldar gazteak nekazaritzara itzularaztea; horretarako, lursailak, etxebizitza, lana eta soldata bermatzen zaizkie.

Herritarren kontzientzia-hartzea. Zenbait elkarteren ustez, gizarteak ez badu hartzen eskubide eta betebeharren kontzientzia, ezinezkoa izango da herrialdeak garatzea. Beharrezkotzat jotzen dute herritarra izatearen, botoa ematearen eta komunitatearen bizitza politiko eta sozialean parte hartzearen esanahiari buruzko kontzientzia sustatzea. “Jende xumeari helarazi behar zaio haien botoa ez dagoela salgai”. “Pertsonen kontzientzia hartu behar dute beren buruari laguntzeko eta gobernuari baldintza hobek eskatzeko”.

Elkarteen iritiz, haien jaioterriarekiko harremanarekin lotutako hainbat ekarpen egin ditzakete; adibidez, igorpenetatik (governuek transferentzia horiekin sortzen dituzten zergak) edo garapenerako lankidetzatik eratorritako funtsak zaintzera bultzatzea familiak.

Igorpenek dakarten mendekotasun ekonomikoa eteteko, familien bizi-kalitatea hobetu eta diru-sarrerak sortuko dituzten ekoizpen-proiektuetan inbertitzeko aukera ere ikusten dute.

Emakume latinoamerikarren ustez, haien ekarpena hiru alderditan oinarritu daiteke: generoaren ikuspegia barne hartzen duen heziketa eta gizon-emakumeen arteko desberdintasunak jorratzen dituzten politiken diseinua eskatzea; emakumei

familiako lan-kargarekin eta familiaren zaintzarekin laguntzeko ekimenak sustatzea; baterako garapenerako proiektuak gauzatzea, jaioterriko familiarekiko hurbiltasunari eusteko.

Elkarteak zenbait proiektu garatzen ari dira haien jaioterriko komunitateekin. Bartzuek eragin handiagoa dute; beste batzuk, ostera, hasiberriak dira. Alabaina, bost elkarteetatik lauk asmo sendoa dute haien herrialdeekiko loturak eratzeko eta, modu apalean bada ere, tokiko garapenari ekarpenak egiteko.

Argi dago tarte handia dagoela jaioterrirako nahi dutenaren eta garapen horretan parte hartzeko aukera errealean artean. Elkarrekin antolatuzera bultzatzen dituzten “nahiak” edo motibazioak benetako gaitasunekin konparatzean, arrail handia ikusten dugu. Guarnizo-ri (2003) jarraiki, argi dago emigratzaileen elkarteetan nahia jatorrizko komunitateetako tokiko garapenean parte hartzea dela. Ahalegin handia egiten dute nortasunari eusteko eta emigratzaileen arteko eta jatorriko komunitatearekiko elkartasuna eratzeko. Hori bai, garapenarekin lotutako ekimenean murgildu nahi duen orok ez du gaitasun (indibidual edo kolektibo) hori. Hori dela eta, bereizi egin behar dira jaioterriaren garapenerako jardunetan murgiltzeko gaitasuna eta nahia (Al-Ali eta Koser, 2002).

Gaitasuna, besteak beste, emigratzaile-taldeek eskura dituzten baliabideekin eta haiek erabiltzeko duten trebeziarekin lotuta dago. Garapen-proiektuetan murgiltzeko nahian hainbat faktorek eragiten dute: egoera juridiko-administratiboak, egoitza-denborak, lan-egoerak, jaioterriko eta harrera-herrialdeko genero-egiturak eta abar. Eskema soil horren bidez, emigratzaileek eta haien elkarteek jaioterriko garapen komunitarioan parte hartzeko duten motibazioa edo motibazio-eza eragiten duten faktoreak uler ditzakegu. Esperientziak erakusten du emigratzaile-taldeak eta haiek gauzatzen dituzten jarduera-motak aldatu egiten direla denboraren poderioz (Moctezuma, 2005). Hori dela eta, elkarte horietako kideak murgilduta dauden ekimenak aztertzean, ondoriozta dezakegu geroz eta garrantzitsuagoa dela elkarteak sendotzeko lana egitea, jaioterriaren garapenean parte hartzeko duten nahia eta gaitasuna gero eta gertuago egon daitezen.

Jarraian, laburbilduta aurkezten dira lau elkarte partaide gauzatzen ari diren proiektuak:

AVACO - Garapenari, kulturari eta adiskidetasunari laguntzeko euskal-angolar elkarteak

Emakume gazte eta helduak alfabetatzeko proiektua eta Luandako APCC elkartearekin emakumeentzako nekazal kooperatiba bat eratzeko proiektua. Bi proiektu horietarako diru-laguntza eskatu dute; baina, momentuz, ez dute lortu.

Ur-saneamendurako proiektua, Maquela Do Zombo herrixkan. Diru-laguntza 2011n aurkeztuko da.

ASOCOLVAS - Euskal Herriko kolonbiarren elkarteak

Musika-prestakuntzarako eta musika-taldeen eraketarako proiektua, gizarte-bazterketaren mehatxuarekin dauden gazteei zuzendua. Parte hartzen dute: Lúdicas Escuela de Música y Teatro, Kolonbian. Diru-laguntzaren urtea: 2010, Bizkaiko Foru Aldundia.

MALEN ETXEA - Emakume emigratzaileen elkarteak

Abian: Jantokia Nikaraguan, 150 ume.

Idea:

Ekoizpen-proiektua Txilen. Txileko gobernuak berriki emandako lurrak dituzten emakumeak.

Emakume emigratzaileen familientzako ziber-kafetegi bat eraikitzeko proiektua.

TERRANGA – Bizkaiko senegaldarren elkarteak

Tailerretako partaide batzuk jaioterriko ekoizpen-proiektu bati lotuta daude; “Lurrera itzultzea” proiektuari, hain zuzen ere. Maabaalé elkarteak hartzen du parte. Credit Agricole banku frantsesak finantzatzen du proiektua. Espainiako koordinatzailea Ministerioarekin, Enbaxadarekin eta elkarteekin bildu da jada.

3.5. Zer nahi dugu gure harrera-komunitatearen garapenerako, eta zer ekarpen egin dezakegu?

Elkarteen ustez, erakundeek eta gizarteak emigratzaileekiko interesa izatea da garapenerako lehen baldintzetako bat. Garatzeko eta harrera-gizarteari ekarpenak egiteko eskubide eta aukera berdinak dituzten **pertsonak** direla aitortzeko borondate politikoa. Eskaera sakonena eskubide eta betebeharrak dituen herritartasunaren aitortpena da.

Alderdi ekonomikoari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da egiturazko erreformak egitea ekonomia leheneratzeko, zaurgarriak diren taldeetan (emigratzaileak, pensiodunak, mendekotasuna duten pertsonak eta abar) egin beharreko inbertsioak ez murrizteko eta, batez ere, lanpostu duin eta ordaindua jasotzeko aukera izateko.

Bizikidetasunari dagokionez, beharrezkotzat jotzen dute harrera-gizartearen eta emigratzaile-taldeen arteko konfiantza lortzea. Gure bizi-estiloa arriskuan jartzen duen emigratzailearekiko beldurrari aurre egiteko, beharrezkoa da pertsonaren balioa berreskuratzea eta pertsona tokiko biztanleengana hurbiltzea. Horretarako, dibertsitatearen aldeko eta kultura arteko bizikidetzak kudeatzearen aldeko politikak diseinatzea gomendatzen dute. Horretarako tresnak dira kultura artekotasunean¹⁷ oinarritutako hezkuntza, sensibilizazioa eta prestakuntza. Dibertsitateari eta bizikidetasunaren kudeaketari buruzko ikuspegi politikoagoa izatea eskatzen du horrek.

Elkarteen lanari dagokionez, nortasun ezberdineko baina helburu bereko taldeen arteko komunikazio-zubi izan behar dutela adierazi dute. Helburu garrantzitsuena da harrera-gizartearen eta atzeritarren arteko bizikidetzak hobetzea.

Oinarritzotzat jotzen dute elkarteen presentzia publikoa indartzea, atzerriko pertsonen taldeak ikusaraztea eta horiek partaidetzarako eremu publiko “normalizatuetan” txertatzea. Emigratzaileei laguntzeko sareak sortzea, arreta berezia eskainiz pertsona zaurgarrienei, hala nola emakumeei.

Garapeneko edo baterako garapeneko proiektuetan murgiltzeko aukerari dagokionez, elkarteek aukera gisara ikusten dute hemengo eta jaioterriko tokiko gobernuarekin loturak ezartzea. Garrantzitsutzat jotzen dute, halaber, haien jaioterrira zuzendutako garapen-lankidetzara eta baterako garapenera bideratutako funtsen “zaindari sozial” gisara jardutea.

¹⁷ “Kultura arteko” terminoa erabilia, dibertsitate-kudeaketaren aurreko proposamenek kulturari buruz eskainitakoa baino kontzeptu dinamikoagoa lortzen dugu. Kultura artekotasunaren ideia harremanean eta elkarrekintzan oinarritzen da, sinkretismoan eta elkarrekintza soziokulturaleko prozesuetan. Eztabaida-prozesuan dagoen termino horrek herritartasunaren ideia barne hartzen du: herritartasun komuna, berezia eta postnazionala. – www.centroellacuria.org



Ondorioak



Gure azken gogoetak lau atal hauetan antolatu ditugu: emigratioari eta garapenari buruz dugun ikuspegia, politika publikoak eta lan-planak, emigratzaileak garapenerako lankidetzarekin lotzea eta elkarleen partaidetza garapenerako lankidetzaprosesuetan.

Emigratioari eta garapenari buruzko gure ikuspegia

Migratio-prozesuen eta garapenaren arteko loturaren ikuspegia zabaltzeko, beharrezkoa da alderdi ekonomikoarekin edo itzulera ideiarekin soilik lotutako ikuspuntu erredukzionistetatik haratago joatea. *Garapenak pertsona eta haren gaitasunen sustapena izan behar ditu ardatz.*

Emigratzaileek nahi duten garapenaren dimentsioa guztiz gizatiarra da, eta dimentsio horretan eragin handia du migratio-prozesuak. Lan honek agerian uzten du beharrezkoa dela migratioaren eta garapenaren arteko loturari buruzko begirada *giza garapenerako baldintzen benetako bilaketara zuzentzea*. Emigratzaileek harrera-herrialdean bizi duten errealitatea eragozpena da haien gaitasunak zabaltzeko eta haien eskubideak egikaritzeko.

Garapenari buruzko hausnarketa partekatua bidez, hobeto ikus dezakegu zeintzuk diren emigratzailean kontuan hartu eta garatu beharreko gaitasunak. Horretarako, kontuan izan behar dira emigratzailearen izatea, bizitza duinerako izan behar dituen gutxiengo baldintzak, pertsona horrek egin ditzakeen jarduerak eta harrera-gizartean egoteko, bizikide izateko eta parte hartzeko duen eskubidea. *Berriro hausnartu behar dugu helburutzat dugun garapen horri buruz*, emigratzaileen partaidetzarekin eta kontuan hartuta “han eta hemen” duten eragin bikoitza eta harrera-gizarteak eta haren erakundeek garapen horretan duten erantzukizuna. “Langile/emigratzaile” estatus eskusiboa eta bazterketa- eta esplotazio-baldintzak gainditzen ez diren bitartean, emigratzaileak ezin dira gara-

pen-eragile gisara hartu. Ez da erreala garapenari egiten dioten ekarpenari buruz hitz egitea, gizaki moduan haien eskubideak aitortu arte.

Migrazio-mugimendu berrien transnazionaltasunak, hau da, aldi berean bi gizarte edo gehiagoren parte izateak, *zalantzan jartzen ditu herritartasunaren kontzeptu tradizionalaren oinarrizko premisak (komunitate politiko edo lurralde bakarrekoa izatea)*. Migrazioaren eta garapenaren arteko loturak herritarra izatearen esanahia ikuspegi zabalagoaz aztertzeraz behartzen gaitu, eta komunitate bateko eskubide osoko kideei esleitutako estatusen oinarritutako ikuspegi klasikotik haratago joanarazten digu. Ikuspegi hori, eskubideen arloraz zabaltzeaz gain, guk nahi dugun garapena eraikitzeko beharrezkoak diren erantzukizunen onarpenaren arloraz ere zabaltzea behar da. Emigratzaileek bizikidetzarekin, partaidetzarekin eta diskriminazio-ezarekin lotutako gaitasunak garatzeko topatzen dituzten zailtasunak gainditzeko, beharrezkoa da herritartasuna beste ikuspuntu batetik behatzea eta harrera-gizartean haren erabilera ahalbidetzea.

Herritartasuna eztabaidaren erdian kokatu behar da; bestela, ezinezkoa dirudi emigratzaileen giza garapenerako baldintzak sortzea. *Emigratzaileen eta haien taldeen gaitasunak sendotzeak azaleratzen ari diren herritartasun-mota desberdina onartzea dakar*. Migrazio-mugimenduek pentsarazten digute herritartasuna lortzeko ez dela nahikoa egoera administratibo arautua izatea, hori ezinbestekoa bada ere. “Dimentsio tekniko formalaz gain, dimentsio soziala kontuan hartzen duen herritartasuna da, lurralde jakin batean bizi diren guztiei eskubide zibil, sozial eta politiko guztiak bermatzeko gai dena. Herritartasuna nazionalitatean (jaiotza edo naturalizazio bidez lortutakoan) ez ainguratzea da gakoa; izan ere, nortasun horrek agerian uzten du proposamen liberalak sustrai etnokulturalak gainditzeko duen ezintasuna. Herritartasunak sustraietara itzuli behar du, eta egoitzan oinarritu behar du” (De Lucas, 2003: 81).

Politikak eta lan-planak

Emigratzaileen gaitasunen sustapenera bideratutako garapen-politika batek migrazioaren eta garapenaren arteko harreman ekonomikoa gainditu beharko luke, *garapenak gizatasun osoa barne hartzen baitu*.

Emigratzaileen eta emigratzaile-taldeen transnazionaltasun-kondizioa ulertzen badugu, *haien garapenaren aldeko politiken diseinuak ikuspegi zatikatu eta bertikalak gainditu behar ditu*, eta politikak ikuspegi zabalago batetik diseinatzen ikasi behar du, integrazio soziala, kultura arteko bizikidetzaz eta emigratzaileen benetako parte-hartzea sustatzeko.

Harrera-herrialdeko erakundeek giza garapenaren dimentsioak aitortu behar dituzte; alabaina, aitortza hori ez da soilik formala izan behar, gaitasun horiek gauzatzeko aukera bermatzen duten *politika partikular eta unibertsalak* diseinatu behar dira.

Garapenaren erronkari aurre egiteko, *tokiko edo erkidegoko administrazioetako politikek koherenteagoak* izan behar dute. Politika horiek eskatzen duten konplexutasunari eta osotasunari erantzuteko, emigratzaileen ikuspegia txertatu behar da. Beharrezkoa da politika horiek elkarren artean koherenteak izatea eta ezberdintasun-egoeran dagoen kolektibo bateko kideen giza garapenerako ezinbestekoak diren baldintzetara bideratzea.

Kolektibo hori eta baztertze-arriskuan dauden beste batzuk artatzeko, beharrezkoa da *gobernaldaren ezberdinen arteko politikak koordinatzea eta osagarritasuna eta erantzukizun partekatua lehenestea*. Horretaz gain, beharrezkoa da *erakunde sozialek eta emigratzaile-taldeek* haiei zuzenean eragiten dieten arloetan erabakitzeko aukera izatea. Oinperatzerik eta men-egiterik gabeko partaidetza eskatzen dugu, emigratzaileen behar eta gaitasunak barne hartzen dituzten tresna eraginkorren bilaketa helburutzat duen partaidetza. Politiken diseinu, egikaritze, ebaluazio, kontrol, atzerailadura eta birformulazioan erantzukizun partekatua garatzea da gakoa.

Emigratzaileen garapenera bideratutako politikek *kolektibo horrekiko ardazketa eta arreta, batetik, eta gainerako politiken zeharkakotasuna, bestetik, orekatu behar dituzte*. Arriskua zeharkako ikuspegiaren interpretazio okerrean dago, edo politika partikularren eragin mugatuan. Erronka, berriz, emigratzaileen beharrak politika publikoetan eraginkortasunez txertatzeko intzidentzia-gaitasunean eta orekan dago.

Migrazioaren eta garapenerako lankidetzaren arteko harremana

Oraindik ez dago emigrazioarako eta garapen-lankidetzarako politika publikorik. EAEn urriak eta hasiberriak dira uztardura hori aintzat hartzen duten ekimen instituzionalak.

Migrazio-prozesuak eta garapenerako lankidetzaren lotzen dituen politika berri bat formulatzeko, kontuan izan behar dira giza garapenaren konplexutasuna, “hemen”, eta garapenean laguntzeko aukera, “han”. Garapenaren erantzukizuna ezin da utzi elkarte sozial eta emigratzaile-taldeen esku soilik; politika horrek tresnak eta baliabideak izan behar ditu baliagarria izan dadin. Lankidetzaren arloan garapenerako lan-ildo berriak sortzeko, lankidetzarako euskal eragileen arteko

eztabaida-guneak sortu behar dira, eta, deszentralizatutako lankidetzaren sistema berri horretan, elkarteak eragile berri gisara sartu behar dira.

Edozein ikuspegitatik Emigratzaileak barne hartzen dituen edozein garapen-lankidetzari “baterako garapen” deitzeko arriskua dago. Hasiera batean, interesgarria izan daiteke elkarte horiek lankidetzaren prozesuetan sartzea eta lankidetzarako eragile gisara aitortzea, eta, hortik abiatuta, ekintzen sakontasun eta garrantzia areagotuz joatea, jatorriko gizartean nahiz harrerakoan izandako eraginari dagokionez.

Tokiko edo erkidegoko lankidetzaren deszentralizatuak “tokiko” taldeak jatorriko beste taldeekin harreman estuan jartzeko mekanismoak sor ditzake. Garapenerako lankidetzak balio erantsia sor dezake, emigratzaile-taldeak sendotuz eta horiek jatorriko herrialdeko lankidetzaren prozesuetan murgilduz.

Emigratzaile-taldeen eta haien jaioterrien parte-hartzea eta jabetzea ahalbidetzen duen garapen-politika bat behar da. Alegia, beharrezkoa da partekatutako interesak definitzea eta harrera-herrialdeko administrazio publikoaren, emigratzaileen eta jatorriko herrialdeko gobernu lokalen eta gizarte zibileko taldeen artean elkarrekikotasun-, elkartasun- eta erantzukizun partekatuko harremanak sendotzeko tresnak sortzea.

Emigratzaile-elkarteen parte-hartzea garapenean

Emigratzaile-taldeen ustez, sartzeko aukera duten partaidetza-guneak urriak dira, eta, bestalde, eragin txikia dute. Haien eskaera batzuk bideratzen dituzten gune “formalizatuetan” parte hartzen badute ere, partaidetza-gune horiek oso zatikata daude, eta ez dute harremanik erabaki-guneekin. Gainera, elkarteek ez dute benetako ahalmena zuzenean haiei dagozkien programei eta politikei buruzko erabakietan eragina izateko.

Euskadiko elkarteek erronka handiei egin behar diete aurre, indartu eta sare zabala-goetan parte hartuz, protagonismo berriak lortu eta gune berriak konkistatzeko. Era berean, elkarte horien erronka da hemengo eta une honetako garapenerako ziurtasun berriak sortzen parte hartzea. Bestalde, jaioterriko komunitateen garapenean eraginkortasun handiagoz parte hartzeko aukera dute. Horretarako, elkarteak mintzaide sozial eta politiko gisara onartu behar dira. *Elkarteek garapen-prozesuak sortzeko gai diren mintzaide politiko gisara duten potentzialaren errekonozimenduari erantzuteko, beharrezkoa da uste politiko argia edukitzea partaidetza-guneak zabaltzeko, eta uste hori pertsonen hemengo eta oraingo garapenean integratzea.*

Elkarteek, bestalde, antolaketa- eta eragin-ahalmena indartzeko mekanismoak eskuratu behar dituzte. Administrazio publikoek beren gain hartu behar dute erantzukizun partekatu hori, eta, horretarako, gizarte zibileko erakundeen, gobernuen eta emigratzaile-taldeen artean elkarteak eta elkarte-sare osoa sendotzeko aliantzak sortu behar dituzte.

Emakume emigratzaileak dira garapen-baldintzak sortzeko aukera mugatuena dituztenak. Emakume eta emigratzaile izateak ongizatearekin eta babesarekin lotutako gaitasunak garatzera mugatzen ditu, eta murriztuta dute bizikidetasun- eta partaidetza-gaitasunak garatzeko aukera. Batik bat gizonezkoen osatutako elkarreetan edo Euskadiko elkartearen sarean sartzeko, beharrezkoa da instituzioek emakumeei babesa ematea, haien eskaerak artatzea eta garapenerako berariazko ekarpenak egiteko duten gaitasuna onartzea.

Azterketa honetan, begirada bat egiten zaio gaur egun berezia dirudien arren euskal gizartearen baldintza berria irudikatzen duen kolektibo baten giza garapeneren konplexutasunari. Atzerritarrek, demografia-aldaketa izugarria eragiteaz gain, gizarte plural bihurtzeko aukera ere ekarri digute. Gizarte horretan, ikusgarritasuna eta bideragarritasuna izango dute hura osatzen duten identitate anitz, askotariko, aldakor eta zeharkakoek. Horretarako, beharrezkoa da emigratzaile-taldeen gizarte berri horren eraketan betetzen duten rola indartzea.

Bibliografía

- Abad, L. V. (2004): “Codesarrollo y Políticas de Inmigración” txostena, “El Codesarrollo. Reflexiones teóricas y prácticas” mahainguruan aurkeztua, Eusko Jaurlaritzako Immigrazioko Zuzendaritza, Bilbo.
- Al-Ali, N., eta Koser (2002): “Transnationalism, international migration and home”, in N. Al-Ali eta K. Koser (argit.): *New approaches to migration? Transnational communities and the transformation of home*, Londres eta New York, Routledge, Taylor and Francis taldea, 1-14.
- Alboan (2006): *De la ciudadanía local a la global y de la ciudadanía global a la local. El camino andado*. Bilbo.
- Atienza, J. A. (2004): “Migraciones y crisis del desarrollo” in: Hidalgo, F. (argit.) *Migraciones. Un juego con cartas marcadas*. Quito-Ecuador: Abya-Yala, 15-43 or.
- Basch, L. et al. (1994): *Nations Unbound: Transnational Projects, Postcolonial Predicaments and Deterritorialized Nation-States*. AEB: Gordon&Breach Publishers.
- Bauböck, R. (1994): *Transnational Citizenship. Membership and Rights in International Migration*. Erresuma Batua: Edwar Elgar.
- Boyd, M. (1996): “Family and Personal Networks in International Migration: Recent developments and new agendas” in: Cohen, R. (argit.) *The Sociology of Migration*, Erresuma Batua: Edgard Elgar.
- Bustelo, P. (1998): *Teorías contemporánea del desarrollo económico*. Madril. Síntesis.
- Canclini, N. (1999): *La Globalización Imaginada*. Bartzelona: Paidós.
- Castells, M. (2000): *La Era de la Información*. I. II. eta III. lib. Madril: Alianza Editorial.
- Durand, J. (1994): *Más allá de la línea. Patrones Migratorios entre México y USA*. Mexiko: Consejo Nacional para la Cultura y las Artes.
- De Lucas Javier (2003): “Inmigración: otra política” in: Sampedro, V. eta Llera, M. (argit.), *Interculturalidad: interpretar, gestionar y comunicar*, Bellaterra: Bartzelona, 81-103 or.
- Delgado Wise, R. et al. (2009): “Seis tesis para desmitificar el nexo entre migración y desarrollo”. *Migración y Desarrollo*, 12. zk.: 27-52. Red Internacional de Migración y Desarrollo Latinamericanistas.
- Frank, G. (1966): “The Development of Underdevelopment”, *Monthly Review* 18: 17-31 or.
- Giddens, A. (1990): *The Consequences of Modernity*, Stanford: Stanford University Press.

- Giménez Romero, C. et al. (2006): *El Codesarrollo en España. Protagonistas, Discursos, Experiencias*. Madril: Catarata.
- Glick Shiller et al. (1992): "Towards a Transnational Perspective on Migration. Race, Class, Ethnicity and Nationalism Reconsidered", *Annals of the New York Academy of Sciences*, 645. lib., New York: The New York Academy of Sciences.
- Gómez Gil, C. (2008): *Potencialidades y Limitaciones del Codesarrollo*. Bilbo: Bakeaz.
- Goldring (1998): "The power of status in transnational social fields" in: Smith, M. P. eta Guarnizo L. E. (argit.) *Transnationalism from below*. New Brunswick&London: Transaction Publishers, 165-196 or.
- Guarnizo, L.E. (2003): "The Economics of Transnational Living", *International Migration Review*, 37 (3), 666-99. Helbide honetan eskuragarri: <http://hcd.ucdavis.edu/faculty/webpages/guarnizo/EconTransLiving.html> Marzo 2011.
- Harvey, D. (1989): *The Condition of Posmodernity*. Oxford: Oxford University Press.
- Hierro Esnarriaga, C. (2008): *Manual de prácticas participativas: asociaciones de inmigrantes*. Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza eta Immigrazioko Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Hondagneu-Sotelo, P. (1994): *Gendered Transitions: Mexican Experiences of Immigration*. Berkeley: University of California Press.
- Itzigshon, J. eta Giorguli-Saucedo, S. (2005): "Incorporation, Transnationalism, and Gender: Immigrant Incorporation and Transnational Participation a Gendered Processes", *International Migration Review*, XXXIX. lib., 4. zk., 2005eko negua, 895-920 or.
- Kearney, M. (1986): "From the indivisible hand to the visible feet. Anthropology studies on migration and development", *Annual Review of Anthropology* (15): 331-336 or.
- Lucas, J. (2002): "La integración del fenómeno migratorio en las políticas de cooperación. El modelo de Codesarrollo". txostena, "Hacia el Codesarrollo" immigrazioari eta lagundutako elkarlanari buruzko I. jardunaldietan aurkeztua, Bilbo.
- Malgesini, G. (bildumaria): (1998): *Cruzando Fronteras. Migraciones en el Sistema Mundial*. Bartzelona: Icaria: Fundación Hogar del Empleado.
- Malgesini, G. eta Giménez, C. (1997): *Guía de Conceptos sobre Migraciones, Racismo e Interculturalidad*. Madril: La Cueva del Oso.
- Marín Sánchez, I. (2005): "La cooperación al desarrollo frente a la migración: rupturas locales y aprendizajes para la acción" in: Bretón, V. eta López, A. (koord.) *Las ONGS en la reflexión antropológica sobre el desarrollo y viceversa. Perspec-*



- tivas africanas y latinoamericanas*. Sevilla: FFAA-Fundación el Monte-Asociación Andaluza de Antropología, 53-69 or.
- Massey, D. et al. (1998): *Worlds in Motion. Understanding International Migration at the End of Millennium*. Oxford: Clarendon Press.
- Max Neef Manfred (1993): *Desarrollo a escala humana*. Montevideo, Uruguay: Ed. Nordan.
- Molina, J. L. eta Valenzuela, H. (2006): *Invitación a la Antropología Económica*.
- Moctezuma Longoria, M. (2005): “*Morfología y desarrollo de las asociaciones de migrantes mexicanos en Estados Unidos. Un sujeto social y político extraterritorial*”, *Migración y Desarrollo*, 5, 59-85 or.
- Nussbaum Martha, (2007): *Human Rights and Human Capabilities*. Harvard Human Rights Journal, 20. zk.
- Nussbaum Martha, (2002): *Las mujeres y el desarrollo humano: el enfoque de las capacidades*. Barcelona, Herder.
- Pedone (2006): *Estrategias Migratorias y Poder. Tú siempre jalas a los tuyos*. Quito-Ecuador: Abya-Yala.
- Portes, A. eta Böröcz, J. (1998): “*Migración contemporánea. Perspectivas teóricas sobre sus determinantes y sus modalidades de incorporación*” in: Malgesini, G. (bildumaria): *Cruzando Fronteras. Migraciones en el Sistema Mundial*. Barcelona: Icaria: hogar del Empleado.
- Pries, L. (1999): *Migration and Transnational Social Spaces*. Erresuma Batua: Ashgate.
- Portes, A. eta Sesenbrenner, J. (1993): “*Embeddeness and Immigration: Notes on the Social Determinants of Economic Action*”. *American Journal of Sociology* 98 (6): 1320-1351.
- Nazio Batuen Garapenerako Programa (2009): Giza Garapenari buruzko Txostena. *Superando barreras: Movilidad y desarrollo humanos*. NBGP.
- Rostow, Walt Whitman (1961): *Las etapas del crecimiento económico: Un manifiesto no-comunista*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.
- Rouse, R. (1993): “*Making sense of settlement: class transformation, cultural struggle, and Transnationalism among Mexican migrants in the US*” in: Glick Shiller et al. (argit.) *Towards a Transnational Perspective on Migration*, New York: The New Academy of Sciences.
- Royo, E. (2008): “*Co-desarrollo. Los riesgos de una tendencia*”. CIDOB.
- Sassen, S. (2001): *¿Perdiendo el Control? La Soberanía en la Era de la Globalización*.

Soysal, Y. (1994): *Limits of Citizenship. Migrants and Postnational Membership in Europe*. Chicago: University of Chicago Press.

Tortosa, J.M. (2008) *Maldesarrollo y desglobalización*. Fundación Carolina. Helbide honetan eskuragarri: <http://www.fundacioncarolina.es/es-ES/nombrespropios/Documents/Art%C3%ADculo%20JM%20Tortosa%2012-08.pdf> 2011ko martxoa.

Unzueta Sesumaga, Amaia, Di Carlo Maria Giulia, Bakeaz (2009ko urria-2010eko iraila): *Estudio-diagnóstico sobre las asociaciones de inmigrantes de origen extranjero en Bizkaia*.

Unzueta Sesumaga, A. (2009): “*Asociacionismo de mujeres inmigrantes latinoamericanas y codesarrollo en el País Vasco: condicionantes y posibilidades*”. Bakeaz koadernoak, 95. zk.

Wallerstein, I. (1974): *The Modern World System*. New York: Academy Press.

